



DEKRETUA, XXXXREN XX(E)KOA, JENDAURREKO IKUSKIZUNEN ETA JOLAS JARDUEREN LEGEA GARATZEKO ERREGELAMENDUA ONESTEN DUENA

Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legeak (EHAA 3. zk., 2016ko urtarrilaren 7koa) Euskadiko Autonomia Erkidegoan egiten diren jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak arautzen ditu, eta ikuskizun edo jarduerok eskaintzen dituzten establezimendu publikoek eta leku irekiek zer baldintza eta betekizun izan behar dituzten ezartzen du.

Dekretu honek esandako legearen erregelamendua garatzen du, legeak berak erregelamenduaren lankidetzara eskatzen duen auzietarako, baita lege-araudia indarrean diren ordenamendu-arauekin argitzeko eta bateratzeko ere.

Hainbat ordezkari aukera balioetsi dira, arautzaileak eta ez-arautzaileak, guztia ere arlo honen inguruan erregelamendurik garatu behar ez izateko. Baina, azkenean, bistan geratu da ezinbestekoa dela esandako legearen hainbat alderdi erregelamenduz zehaztea.

Legeak erregelamendu-garapenera bidaltzen du hainbatetan: legerari atxikitako establezimenduen, ikuskizunen eta jardueren katalogoa aldatzeko; araubide bereziko establezimenduak zein izango diren zehazteko, herritarren elkarbizitzan eragin handiena izango duten aldetik; sarrera eskubidea ukatzeko baldintzak erregulatzeko; sarrerak saltzeko baldintzak; ordutegiaren araubidea; antolatzaileek sarrera adinaren arabera mailakatzea eta sailkatzea; adingabeentzako saioretarako baldintzak; sarrera-kontrolak gaitzeko erregulazioa; segurtasun-, higiene- eta osasun-zerbitzuak eta tankerakoak eska litezkeen kasuak zehazteko; baita zehapen arinen exekuzioa bertan behera uzteko balioko duten berretzeko neurriak eta zehapen-erregistroa erregulatzeko ere.

Erregelamendu-garapena beharrezkoa da hala eskatzen duten alderdietan, halakorik gabe lege aginduak berak ez bailuke erabateko birtualtasuna lortuko. Baina beste kasu batzuetan ere beharrezkoa da, interpretazio-zalantzak argitzeko eta aurreko erregelamendu-araudia lege berriaren printzipioetara egokitzeko.

1995eko legea garatzean sortutako eta oraindik indarrean dauden erregelamendu batzuen aldaketa partziala egitea ere balioetsi da. Alabaina, egin beharreko aldaketen norainokoa kontuan hartuta, dekretu berri bat prestatzeari ekitea komeni da, segurtasun juridiko handiagoa izateko.

Hala ere, ez da beharrezkoa aurreko legearen garapenean sortutako sektore erregelamendu batzuk edo erregelamendu berezi batzuk osotasunean birformulatzeari ekitea (adibidez, zezenketa- edo piroteknia-ikuskizunen erregelamenduak), daudenean utzita balio baitezakete, aldaketa handirik gabe, eta erregulazio orokor berriaren aplikazio osagarriari eutsita. Tankerako zerbait gerta liteke erreklamazio-orrien erregelamendua arautzearekin edota nahitaezko aseguruekin ere.

Ezin da aukera ez-erregulatzailerik egokitzen hartu sektoreak berak bere burua erregulatzeko, ez baitator bat legegilearen aginduarekin, ez eta lege honen iturburu diren

printzipioekin ere. Dena dela, erregelamendu-araudiak kontuan izango du askatasun-, segurtasun- eta bizikidetzaren printzipioen arteko ezinbesteko oreka, jarduerari eska dakiekeen segurtasun-baldintzen eta bestelako enplegaritza alorreko obligazioak zehazteko bidean.

Erregelamendu-garapen honi ekiteko helburu nagusia hau da: segurtasun juridiko handiago eskaintzea Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren Legea erabiltzean (abenduaren 23ko 10/2015), aipatutako legearen manuak zehaztuz.

Erregelamenduz arautzearen ardatza lege mandatu osatzea izango da, legeak berak erregelamendu-garapena eskatzen duen kasuetan.

Jardueren eta establezimenduen katalogoa aldatu egiten da lege-mandatuari jarraikiz eta legea onartu berria izanagatik ere; helburua kontzeptuen zenbaketa eta nomenklatura tradizionala saihestea izan da (ez baita erabilgarriena gaur egun eta etorkizunean), eta sailkapen polibalenteagoa eta malguagoa topatzea, deskriptiboagoa.

Hainbat lege-manu garatu dira haren aplikazio-eremua zehazteari begira, errazago interpretatu ahal izateko, hala nola izaera familiarreko edo sozialeko jarduerak pribatuak edota barneko enpresa- edo heziketa jarduerekin loturikoak aplikazio eremutik at uzteko. Araubide bereziko establezimenduek izan beharreko definizioa eta baldintzak aurreikusten dira, eta ospakizun-tokiei eska dakizkiekeen sendotasuneko, segurtasun estrukturalako eta higieneko baldintzak xehatzen dira, baita ikuskizunetan eta jolas-jardueretan sartzeko eta egoteko baldintzak ere, arreta berezia ipinita adingabeen babesari eta ekitaldietan zehar erosotasuna eta bake-giroa izateari loturik; xede hori lortze aldera, onarpen-kontrolerako, segurtasuna bermatzeko edota aretozaintzako zerbitzuak ezarriko dira ekitaldi jakin batzuetan, haien ezaugarriak eta edukiera kontuan izanda.

Era berean, ikuskizunak eta jolas-jarduerak antolatzeko boluntarioen partaidetza ere aurreikusten da, eta sarrerak eta abonamenduak saltzeko baldintzak arautzen, baita dirua itzultzearekin lotuta erabiltzaileek dituzten eskubideak ere.

Azkenik, establezimenduan eta jardueraren ikuskaritza eta kontrola arautzen da, zehapenen erregistroa konfiguratzeko (berrerortzerik ba ote den ikusteko) eta berrezteko neurri motak zehazten dira, zehatutako ikusleak eta erabiltzaileak euren borondatez egin ahal izateko, zehapen arinak bete behar diren ordez.

Horregatik, Segurtasuneko sailburuak proposatuta, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoarekin bat etorri eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2017ko xxxren xx(e)(a)n egindako bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea.
2. artikulua.- Aplikazio-eremua.
3. artikulua.- Ospakizun-tokiak.
4. artikulua.- Betebeharrak eta erantzukizunak.

II. KAPITULUA.- OSPAKIZUN-TOKIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

5. artikulua.- Baldintza teknikoak

Lehenengo atala.- Sendotasuna, egituraren segurtasuna eta irisgarritasuna.

6. artikulua.- Sendotasuna eta segurtasuna.
7. artikulua.- Irisgarritasuna.
8. artikulua.- Kapazitatea eta edukiera.

Bigarren atala.- Suteen eta bestelako arriskuen aurkako prebentzioa eta segurtasuna

9. artikulua.- Segurtasuna suteen eta bestelako arriskuen arloan
10. artikulua.- Ebakuazio-neurriak
11. artikulua.- Seinaleztapena
12. artikulua.- Larrialdi-argiak eta seinaleztapena.
13. artikulua.- Suteen aurka babesteko ekipoak eta sistemak
14. artikulua.- Autobabesa.

Hirugarren atala. Baldintza akustikoak.

15. artikulua.- Baldintza akustikoak.
16. artikulua.- Eragin akustikoaren azterketa.
17. artikulua.- Erregistrodun soinu mugagailuak.
18. artikulua.- Bide publikoko inpaktua aurreikustea.

Laugarren atala.- Higienea eta osasungarritasuna

19. artikulua.- Higiene- eta osasungarritasun baldintzak.
20. artikulua.- Higiene dotazioak.
21. artikulua.- Neurri txikiko ostalaritza lokalak.
22. artikulua.- Edukiera-mugarik gabeko leku irekietan egiten diren ikuskizunak eta jarduerak.
23. artikulua.- .- Aldi bateko instalazioak.
24. artikulua.- Higiene zerbitzuen irisgarritasuna.

Bosgarren atala.- Eska daitezkeen bestelako baldintzak.

25. artikulua.- Aireztapena.
26. artikulua.- Aldagelak
27. artikulua.- Kamerinoak
28. artikulua.- Jantzizaindegiak

III. KAPITULUA.- INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA

29. artikulua.- Establezimenduaren kartela edo plaka
30. artikulua.- Ordutegi-taldearen identifikazio bereizgarria
31. artikulua.- Lokalean daudenei zuzendutako informazioa
32. artikulua.- Iragarkiak, kartelak eta publizitate programak.

IV. KAPITULUA.- ORDUTEGIAK

33. artikulua.- Ordutegi orokorra
- 34.- artikulua.- Ordutegien publizitatea
35. artikulua.- Amaiera eta irtenaraztea
36. artikulua.- Nahitaezko itxiera-aldia eta murrizketa-aldiak.



37. artikulua.- Edariak kontsumitzea lokalen kanpoaldean.
38. artikulua.- Ordutegi bereziak.
39. artikulua.- Ordutegiak luzatzea.
40. artikulua.- Ordutegiak murriztea.

V. KAPITULUA.- SARRERAK ETA ABONAMENDUAK SALTZEA

41. artikulua.- Sarrerak eta abonamenduak
42. artikulua.- Edukia
43. artikulua.- Prezioa
44. artikulua.- Salmenta
45. artikulua.- Zuzeneko salmenten kanala
46. artikulua.- Salmenta-puntuak
47. artikulua.- Salmenta telematikoa
48. artikulua.- Komisioarekin saltzea
49. artikulua.- Salmenta galarazia
50. artikulua.- Abonamenduak
51. artikulua.- Ezeztapenak eta diru itzulketak

VI. KAPITULUA.- ONARPEN- ETA SARRERA BALDINTZAK

Lehen atala.- Baldintza orokorrak eta espezifikoak.

52. artikulua.- Baldintza orokorrak
 53. artikulua.- Baldintza espezifikoak.
- ### **Bigarren atala.- Haurren eta gazteen babesa**
54. artikulua.- Adingabeei sarrera eta egotea galaraztea.
 55. artikulua.- Interneteko edukietara sartzeko mugak
 56. artikulua.- Artista edo exekutatzaile adingabeak
 57. artikulua.- Sailkapena adinaren arabera.
 58. artikulua.- Adingabeei bideratutako saioak.
 59. artikulua.- Gazteentzako saioak.

VII. KAPITULUA.- KOKAPEN- ETA SEGURTASUN BALDINTZAK

60. artikulua.- Erantzukizuna

Lehenengo atala.- Sarrera- eta edukiera kontrolak

61. artikulua.- Sarrera-kontrolako eta onarpeneko zerbitzuak.
62. artikulua.- Edukiera kontrolatzea

Bigarren atala.- Onarpen-zerbitzuko langileen gaikuntza

63. artikulua.- Onarpen zerbitzuko langileen egitekoak.
64. artikulua.- Onarpen zerbitzuko langileen egitekoen zehaztapena eta egikaritzea
65. artikulua.- Onarpen zerbitzuko langileen gaikuntza
66. artikulua.- Onarpen zerbitzuko langileen erregistroa.
67. artikulua.- Gaikuntzaren ezeztapena.

Hirugarren atala.- Segurtasun pribatuko zerbitzuak

68. artikulua.- Obligazioa.
69. artikulua.- Salbuespena.
70. artikulua.- Dotazioa.
71. artikulua.- Bateriaezintasuna.
72. artikulua.- Ikuskaritzea.

Laugarren atala.- Kokapena ta ebakuazioa.

73. artikulua.- Kokapena eta ebakuazioa.
74. artikulua.- Kokapen- eta ebakuazio langileak

75. artikulua.- Aniztasun funtzionala duten pertsonak kokatzea.

Bosgarren atala.- Lehen laguntza eta osasun laguntza.

76. artikulua.- Botikina.

77. artikulua.- Lehen sorospena emateko gela.

78. artikulua.- Desfibrilagailuak.

79. artikulua.- Erizaintza-zerbitzua.

80. artikulua.- Anbulantziak.

81. artikulua.- Osasun laguntza edukiera handiko ekitaldietan

Seigarren atala.- Aseguruak

82. artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguruak.

Zazpigarren atala.- Boluntarioritza

83. artikulua.- Boluntarioen lankidetzaren antolaketan.

84. artikulua.- Boluntarioen lankidetzaren kudeaketa.

85. artikulua.- Eskubideak eta eginbeharrak.

86. artikulua.- Bermeak.

VIII. KAPITULUA. ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEN GAIKUNTZA TITULUAK

Lehen atala.- Arau orokorrak

87. artikulua. Gaikuntza-titulua.

88. artikulua.- Gaitutako jarduerak.

89. artikulua.- Jarduera lizentzia.

90. artikulua.- Ikuskizunetan eskumena duen Zuzendaritzaren txostena.

91. artikulua.- Udalerriak eman beharreko informazioa.

92. artikulua.- Jarduera sailkatuaren alde aurreko jakinarazpena.

Bigarren atala.- Arau espezifikoak.

93. artikulua.- Udal-titulartasuneko establezimenduak.

94. artikulua.- Bi funtzionamendu-mailako establezimenduak.

95. artikulua.- Ludotekak.

96. artikulua.- Sexu-zerbitzuak ematen dituzten establezimenduak.

Hirugarren atala.- Araubide bereziko establezimenduak.

97. artikulua.- Araubide bereziko establezimendu motak.

98. artikulua.- Eska dakizkiekeen baldintzak.

99. artikulua.- Ikuskizunetan eskumena duen Zuzendaritzaren txostena.

IX. KAPITULUA ALDI BATEKO INSTALAZIOEN GAIKUNTZA-TITULUAK.

100. artikulua.- Aldi bateko instalazioak

Lehen atala.- Ikus-entzuleak hartzeko aldi bateko instalazioak.

101. artikulua.- Betekizunak.

102. artikulua.- Udal-baimena.

Bigarren atala.- Barrakak eta azoketako eremuak.

103. artikulua.- Barrakak eta azoketako atrakzioak.

104. artikulua.- Azoketako eremuak.

X. KAPITULUA. IKUSKIZUNAK ETA JOLAS JARDUERAK EGITEKO GAIKUNTZA TITULUAK

105. artikulua.- Betekizunak.

106. artikulua.- Gaikuntza titulua.

107. artikulua.- Baimena emateko arau orokorrak.

108. artikulua.- Segurtasun-memoria.

109. artikulua.- Arau espezifikoak establezimendu edo lokaletarako baimena emateko.
110. artikulua.- Arau espezifikoak espazio irekietan baimena emateko.
111. artikulua.- Aldez aurreko jakinarazpen okasionala establezimendu edo lokaletan.

XI. KAPITULUA.- MANTENTZE-LANAK, IKUSKARITZA ETA KONTROLA

112. artikulua.- Baldintza teknikoen mantentze lanak
113. artikulua.- Mantentze-lanak eta berrikusketa egiteko betebeharra.
114. artikulua.- Jardueraren etenaldi jarraitua.
115. artikulua.- Dokumentazioa.
116. artikulua.- Ikuskaritza-jarduera
117. artikulua.- Establezimendua ikuskatzea.
118. artikulua.- Jarduera ikuskatzea.
119. artikulua.- Aktak.
120. artikulua.- Akatsak zuzentzea
121. artikulua.- Ikuskaritzaren helburuak eta lehentasunak

XII. KAPITULUA. ZEHAZPENEN ETA BERREZTEKO NEURRIEN ERREGISTROA.

Lehenengo atala.- Zehapenen erregistroa.

122. artikulua.- Erregistroa sortzea.
123. artikulua.- Atxikipena.
124. artikulua.- Inskribatu daitezkeen datuak
125. artikulua.- Datuen eskuragarritasuna eta babesa
126. artikulua.- Ezereztea

Bigarren atala.- Berrezteko neurriak

127. artikulua.- Berrezteko neurriengatik etetea.
128. artikulua.- Berrezteko neurrien programak.
129. artikulua.- Zehapena etetea eskatzea

XEDAPEN GEHIGARRIAK

- Lehena.- Titulartasun- edo helbide-aldaketak komunikatzea.
Bigarrena.- Animaliekin egiten diren ikuskizunak eta jolas jarduerak.
Hirugarrena.- Aldi bateko instalazio puzgarriak.
Lauugarrena.- Ikuskaritzaren helburuen eta lehentasunen berrikuspena.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

- Lehenengoa.- Izapidetzen ari diren espedienteak.
Bigarrena.- Katalogora egokitzea.
Hirugarrena.- Establezimenduak egokitzea.
Lauugarrena.- Udal-titulartasuneko establezimenduak.
Bosgarrena.- Onartzeko baldintza bereziak.
Seigarrena.- Onarpen-zerbitzuko langileak.
Zazpigarrena.- Zehazpen-erregistroa martxan ipintzea.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA AZKEN XEDAPEN

- I. ERANSKINA.- JENDAURREKO IKUSKIZUNEN, JOLAS-JARDUEREN ETA ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEN KATALOGOA.
II. ERANSKINA.- PERTSONAK ZENBATZEKO SISTEMAK.

III. ERANSKINA.- OSASUN-DOTAZIOAK.

IV. ERANSKINA.- IKUSKARITZAREN HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

<

I. KAPITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK.

1. Artikulua.- Xedea

Dekretu honen xedea jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legearen (abenduaren 23ko 10/2015 Legea) erregelamendu-garapena egitea da, honako alor hauekin loturik: ospakizun tokien betekizunak eta baldintzak; horien zaintza, kontrola eta ikuskaritza; zehapenen erregistroa eta berrezteko neurrien erregulazioa.

2. Artikulua.- Aplikazio-eremua 3. Artikulua.- Ospakizun-tokiak

1.- Erregelamenduaren aplikazio-eremua jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legean (abenduaren 23ko 10/2015 Legea) zehaztutakoa da, baita Dekretu honi atxikitako katalogoan zehaztutakoa ere (legeak berak atxikita zeukana aldatzen du).

2.- Aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legearen (abenduaren 23ko 10/2015 Legea) 3. artikulua zehaztutako ikuskizunak eta jarduerak, arau horretan ezarritako baldintzetan.

3.- Aurreko zenbakian aurreikusitako ondoreetarako, ez dira lehia publikotik at baleude bezala hartzen ospakizun pribatu familiarrak edo sozialak, baldin eta 300 pertsona baino gehiago badituzte, nahiz eta horietan onartuak izateko hainbat eskakizun edota ezaugarri familiar zein sozial bete behar izan.

4.- Ez dira aplikazio-eremuan sartzen ikastetxeetan edota lantokietan egiten diren barne-jarduerak, baldin eta irakaskuntzarekin zein enpresa esparruarekin lotuta badaude, edukiari, ordutegiari eta parte-hartzaileei dagokienez.

5.- Ez ditu erregelamendu honek arautzen hotel- eta ostatu-establezimenduetan eskaintzen diren zerbitzu osagarriak, berariaz haietan ostatu hartuta daudenei zuzendutakoak.

6.- Zezen-ikuskizunak eta ikuskizun piroteknikoak, baita hiriarteko kirol-probak ere, euren erregelamendu espezifikoarekin araututa egongo dira. Horiek aurreikusten ez duten orotan, Dekretu hau aplikatuko da modu ordeztailan.

3. Artikulua.- Ospakizun-tokiak

1.- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak nonahi egin litezke, dela establezimendu publiko batean, dela bestelako lokal zein espazioetan, betiere Dekretu honekin bat egiteko eska daitezkeen baldintzak betetzen badituzte eta gaikuntza titulu egokia badute.

2.- Horretarako, hainbat kontzeptu definitu behar dira.

a) Establezimendu publikoak: jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egitera bideratutako lokalak, gaikuntza tituluak dioenarekin bat eta katalogoan zehaztutako sailkapenari jarraikiz.

- b) Araubide bereziko establezimenduak: xedapen honetan establezimendu publikotzat zehaztutakoak, herritarren bizikidetzari, segurtasunari edo osasunari biziago eragin diezaieketen aldetik, ordutegi bereziaren edota Dekretuan bertan aurreikusitako baldintza berezien eraginez.
- c) Funtzionamendu-maila desberdinak dituzten establezimenduak: edukiera eta funtzionamendu-maila garatzen duten erabileraren edota jardueraren arabera desberdinduta dauzkaten establezimenduak.
- d) Esparruak: espazioz konfiguratutako establezimenduak, edozer dela ere euren neurria, itxitura perimetrala dutela eta sarbide bat edo gehiago zehaztuta dauzkatenak, ikuskizun edo jolas-jarduera jakinak garatzeko instalazioak eta egitura iraunkorrak dauzkatenak.
- e) Espazio irekiak edo publikoak: jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko gune, toki edo espazio publiko zein pribatuak, baina ikuskizun edo jolas-jarduera hori gauzatzeko azpiegitura edota instalazio finkorik ez dauzkatenak. Ondorio horietarako, ez dira azpiegitura edo instalazio finkotzat hartuko kioskoak, atezaindegiak, saskibaloian jokatzeko saskiak, pilotalekuak eta espazio ireki ez perimetratueta dauden bestelakoak.
- f) Sarbide mugatuko espazioak: jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak egiteko espazio irekiak, hain zuzen, hesiz, sokaz, zintaz edota bestelako sistemaz inguratuta eta erakunde antolatzaileak behar beste zainduta; horretarako berariaz aurreikusitako tokietatik bakarrik dute sarrera, betiere edukierari dagokion kontrola eginda.

4. Artikulua.- Betebeharrak eta erantzukizunak.

- 1.- Establezimendu publikoen titularrak haiek ustiatzen dituzten pertsonak izango dira, fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazteko asmoarekin edo gabe, dagokion gaikuntza tituluaren arabera.
- 2.- Antolatzaileak jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egin edo bultzatzen dituzten pertsonak izango dira, fisikoak edo juridikoak, publikoak edo pribatuak, irabazteko asmoarekin edo gabe.
- 3.- Eskatu beharreko lizentzia edo baimenak ez badira eskatzen edo ez badira alde zuzeneko komunikazioak aurkezten, jendaurreko ikuskizun edo jolas-jardueraren deialdia egiten duena edo horiek jakinarazten dituen joko da titulartzat edo antolatzailetzat eta, halakorik ez bada, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera egingo den establezimendu publiko, instalazio edo leku irekira sartzeko eserlekuen salmentako diru-sarrerak lortzen dituenak.
- 4.- Titularrak establezimendua edo ospakizun-tokia errentan eman edo aldi baterako lagako balio beste antolatzaileraren bati, lagatzailearen eta lagapena hartu duenaren ardura elkartasunezkoa izango da lege-betebeharrei dagokienez, baita kontratuaren indarraldian gerta litezkeen arau-hauste eta zehazpen administratiboei dagokienez ere.

Edonola ere, udalari negozio juridiko horren berri egin aurretik emanaz gero, jarduera egiten duenak izango du lokalaren funtzionamenduarekin lotuta ezartzen diren betebeharren ardura; lizentziaren titularrak, berriz, lokalaren egiturazko elementuei dagozkien betebeharrak izango ditu, nola eta ez den aurkezten bestelako erantzukizun araubideren bat justifikatzen duen titulu nahikorik.

II. KAPITULUA.- OSPAZKIZUN-TOKIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK

5. Artikulua.- Baldintza teknikoak

Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak gauzatzeko tokiek aplikagarri den ordenamenduak eskatzen dituen segurtasuneko, osasungarritasuneko eta irisgarritasun unibertsaleko neurriak bete beharko dituzte, bereziki honako hauei lotutakoak:

- a) bertaratu, langile eta artisten segurtasuna eta ondasunen babesa;
- b) egituren sendotasuna eta instalazioen funtzionamendu egokia;
- c) instalazio elektrikoaren baldintzak eta bermeak;
- d) suteak eta jardueraren beraren gainerako arriskuak aurreikustea eta haien aurkako babesa ematea, eta kanpoko laguntzaren irisgarritasuna erraztea;
- e) osasungarritasun- eta higiene-baldintzak eta baldintza akustikoak, berariaz zehaztuta zer intsonorizazio-baldintza bete behar duten lokalek eragozpenik ez sortzeko hirugarrenei, betiere zaratei buruzko legerian ezarritakoaren arabera;
- f) hiri eta naturako ingurunea eta historia-, arte- eta kultura-ondarea babestea;
- g) irisgarritasun unibertsaleko baldintzak eta gozamen-baldintzak aniztasun funtzionala duten pertsonentzat; baldintza horiek bat etorri behar dute irisgarritasunari eta arkitektura-oztopoak kentzeari buruzko araudian ezarritakoarekin, eta ikuskizunak benetan gozatzea ahalbidetu behar diete pertsona horiei;
- h) indarrean dauden autobabes-arauden arabera autobabes-plana;
- i) establezimendu, lokal edo instalazioaren kapazitatea eta edukiera;
- j) araudi sektorial aplikagarriak eskatutako gainerako baldintzak.

Lehen atala.- Sendotasuna, egituraren segurtasuna eta irisgarritasuna.

6. Artikulua.- Sendotasuna eta segurtasuna

Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egitera bideratutako eraikinek Eraikuntzako Kode Teknikoaren eta haren araudi osagarriko preskripzioak bete beharko dituzte, baita kode hura garatzen dutenetan jasotakoak ere, esandako arauetan edo arau hura ordezkatzeko duen araudian aurreikusitakoarekin bat.

7. Artikulua.- Irisgarritasuna

1.- Ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiten dituzten tokiak egokitu egin beharko dira, irisgarritasunari eta oztopo arkitektonikoak zein komunikaziokoak erretiratzeko arau-xedapenek diotenera.

2.- Establezimendu publikoen titularrek eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren antolatzaileek beharrezko neurriak hartuko dituzte aniztasun funtzionala duten pertsonen zerbitzuetara sartzera eta haietan gozatzea errazteko, guztia ere irisgarritasunaren alorrean aplikagarri den araudia betez.

8. Artikulua.- Kapazitatea eta edukiera

1.- Establezimendu batean jarduera baterako edota jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduera bat egiteko gaikuntza-tituluak edukiera jakin bat hartzeko gaitzen du.

Jarduera bat garatzen denean, lokal, esparru edo establezimendu batean gehienez ere izan daitekeen pertsona kopurua da edukiera; hau da, larrialdiren bat izanez gero, gehienez ere ebakatu beharra litzatekeen pertsona kopurua.

2.- Edukiera zehazteko, dagokion okupazio-indizea hartuko da kontuan. Dena dela, establezimendu batean jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduera bat egiteko baimen berezia behar denean gaikuntza-tituluan jasota ez dagoelako, edukiera zehazteko ebakuazio-bideen dimentsioak hartuko dira kontuan.

3.- Lokal, esparru edo establezimendu batek hainbat jarduera baldin badauzka gaituta gaikuntza tituluan, haietako bakoitzerako edukiera bat zehaztuko da.

4.- Lokala, esparrua edo establezimendua hainbat solairu, areto edo gune ondo bereizitan egituratuta baldin badago, haietako bakoitzak edukiera baimendu bat izango du, eta guztizko edukiera zati bakoitzerako baimendutako edukieren batura izango da.

Bigarren atala.- Suteen eta bestelako arriskuen kontrako prebentzioa eta segurtasuna

9. Artikulua.- Segurtasuna suteen eta bestelako arriskuen arloan

Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko eraikinek eta eraikuntzek prebentzio- eta segurtasun-baldintzak bete beharko dituzte, suteekin eta bestelako arriskuekin loturik.

10. Artikulua.- Ebakuzio-neurriak

2.- Bestelako arauak ezartzen dutenari kalterik egin gabe, honako ebakuazio-neurri hauek izan beharko dituzte gutxienez:

- a) pertsonak ebakutzeko aurreikusitako ate edo irteera guztiek akatsik gabe funtzionatzeko moduan egon beharko dute;
- b) jarduera garatzen den guztian, ebakuazio bideak irisgarri edukiko dira, trabarik gabe eta erabilgarri kanpo-espazio seguru batera iritsi arte;
- c) ebakuaziora bideratutako atak ixteko sistemak ezin du jardun ebakuatu beharreko gunetan jarduera den bitartean, eta, hala izan ezean, atak erraz eta bizkor irekitzeko modua izan beharko da ebakuazioaren norabidetik.

11. Artikulua.- Seinaleztapena

Bestelako arauk ezartzen dutenari kalterik egin gabe, honako seinaleztapen-neurri hauek izan beharko dituzte gutxienez:

- a) ebakuazio-ibilbideen norabidea adierazteko seinaleak eduki beharko dituzte, eta jendeak okupa dezakeen edozer tokitatik ikusteko moduan egon beharko dute, baita irteerak edo irteerak adierazteko seinaleak zuzenean ikusten ez diren puntuetatik ere;
- b) kontrako bidea harraraz dezaketen aukerak dauden ebakuazio-ibilbideetako puntuetan seinaleak eduki beharko dira, bide egokia garbi adierazita gera dadin;
- c) seinaleek modu koherentean egon beharko dute kokatuta, okupatzaileen banaketaren arabera;
- d) suteetatik babesteko eskuzko baliabideek seinaleztatuta egon beharko dute, araudi aplikagarrian ezarritakoari jarraikiz;
- e) suteetatik babesteko eskuzko baliabideak topatzeko eta ebakuaziorako seinale guztiek ikusteko moduan egon beharko dute, baita ohiko argi-hornidurak kale egiten duenean ere.

12. Artikulua.- Larrialdi-argiak eta seinaleztapen argiak

Bestelako arauk ezartzen dutenari kalterik egin gabe, larrialdietarako argiek eta seinaleztapenenek neurri hauek izan beharko dituzte gutxienez:

- a) larrialdietarako argiek akatsik gabe funtzionatzeko moduan egon beharko dute, eta, argiak joanez gero, publikoa kanpora erraz eta seguru ebakutzeko aukera eman behar dute;
- b) larrialdietarako argiek irteeretara ematen duten ateetan egon beharko dute, irteerako eskaileretan, korridoreetan eta antondoetan, baita aretoari edo barrutiari atxikitako geletan ere;
- c) larrialdietako argiek, berriz, ohiko argiek huts egiten dutenean jendea irteteko adinako argia sortuko dute era automatikoan, ebakuazio-bideak nondik diren adierazita eta suteetatik babesteko eskuzko ekipoak eta sistemak ikusteko;
- d) seinaleztapen-argiak irteeretako ateen gainean ipiniko dira, eskailera, korridore eta atondoetan;
- e) seinaleztapen-argiak etengabe egon beharko du piztuta ikuskizuna martxan den denboran, harik eta lokaletik edo eremutik publikoa erabat irteten den arte;
- f) seinaleztapen-argiek ohiko horniduraren bidez funtzionatuko dute, edo larrialdi-argien iturriak berak sortutakoaren bitartez bestela;
- g) jarduerak argiztapen-maila apalez egiten direnean, garaiera batetik besterako maila bakoitzean seinaleztapen-pilotuak ipini beharko dira, larrialdietako argiekin

konektatuta eta urratsari argi egiteko adina indarrekin, metro lineal bakoitzeko edo frakzioko bat.

13. Artikulua.- Suteetatik babesteko ekipoak eta sistemak

Bestelako arauak ezartzen dutenari kalterik egin gabe, suteetatik babesteko ekipo eta sistema hauek izan beharko dituzte gutxienez:

- a) suteetatik babesteko eskuzko ekipo eta sistema guztiek erabat ikusteko eta eskuratzeko moduan egon beharko dute, akatsik gabe funtzionatzen dutela;
- b) establezimendu edo barrutiaren planoen ale batek segurtasun-arduradunen esku beharko du, larrialdiren bat gertatuz gero segurtasun publikoko zerbitzuei emateko. Jendurreko ikuskizunetarako eta jolas jardueretarako eraikinek eta eraikuntzek suteen eta bestelako arriskuen arloan indarrean dauden prebentzio- eta segurtasun neurriak bete behar dituzte.

14. Artikulua.- Autobabesa

1.- Establezimendu publikoek eta jendurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak egiten dituzten gainerako ospakizun tokiek dagokien autobabes plana izan beharko dute, larrialdiei aurre egiteko autobabes betebeharrak arautzen dituen araukeytak hala zehazten duenean.

2.- Autobabes-planak gaikuntza-tituluan aurreikusitako jarduera guztiak bildu beharko ditu.

Hirugarren atala.- Baldintza akustikoak

15. Artikulua.- Baldintza akustikoak

1.- Establezimendu publikoek eta jendurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiten diren gainerako tokiek bateragarri izan behar dute zarata-mapek edo kapazitate akustikoak ezartzen dituzten determinazio eta baldintzatzaileekin, baita inpaktu akustikoa minimizatzeko ekintza-planekin eta udal-plan espezifikoen neurriekin ere, eta, oro har, errespetuzko behar dute izan kutsadura akustikoa saihesteko edo murrizteko indarrean diren gainerako arau eta programekin.

2.- Establezimenduaren edo esparruaren barruan 90 dB A gainditu baldin badaitezke, kartel bat ipini beharko da establezimendura edo esparrura sartzeko bideetan.

16. Artikulua.- Inpaktu akustikoaren azterlana

Kutsadura akustikotik babesteko araudiak edo udal-ordenantzek hala eskatzen dutenean, gaikuntza-titulua edo alde aurreko jakinarazpenaren eskaerarekin batera establezimenduaren edo programatutako jendurreko ikuskizunaren inpaktu akustikoari buruzko azterlana aurkeztu beharko da.

17. Artikulua. Erregistragailudun soinu mugatzaileak

Jendaurreko ikuskizun musikalak edo jolas jarduerak egiten diren establezimenduek, barrutiek edo esparruek soinu-mugatzaileak eduki beharko dituzte instalatuta, erregistragailuarekin, ziurtatzeko ez dituztela gainditzen kutsadura akustikoaren araudian edo udal-ordenantzetan ezarritako muga-balioak. Esandako mugatzaile horiek establezimenduaren barruan ez ezik aire zabaleko muga-tokietan, eranskinetan edo osagarrietan ere egin beharko dituzte neurketak.

18. Artikulua.- Bide publikoko inpaktua aurreikustea

Establezimenduaren titularrek eta ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileek neurriak hartuko dituzte bide publikoa okupatzen duten pertsonen metaketak prebenitzeko, haietara sartzean edo irteteen; bereziki, neurriak hartuko dituzte sarrera irteerak antolatzeko, gerta litezkeen pilaketek ez dezaten arriskurik edo endredorik sortu zirkulazioan edo oinezkoetan.

Laugarren atala.- Higiene eta osasungarritasuna.

19. Artikulua.- Higiene- eta osasungarritasun baldintzak

Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiten diren establezimendu publikoek eta gainerako tokiek zerbitzu higienikoak izango dituzte, honako baldintza hauen arabera:

- a) behar beste aireztatutako tokietan ipiniko dira, ikus-entzuleen eremutik berezita;
- b) une oro garbitasun- eta higiene-egoera ezin hobean egon beharko dute;
- c) behar beste argizatuta egongo dira, eta segurtasuneko argiak ere izango dituzte;
- d) zorua iragazgaitza eta ez-labainkorra izango da, Eraikingintzako Kode Teknikoaren (Db SUA) segurtasun, erabilera eta irisgarritasun arloko oinarritzko dokumentuan ezarritako irizpideekin bat;
- e) hormak iragazgaitzak izango dira, eta azulejuz edo beira-materialez estaliak, zorutik hasi eta bi metroko garaierara arte gutxienez;
- f) komunen guneko sarrerak espazio erkidea duenean, konketak bertan ipini ahal izango dira, nola eta ez duten inola ere igarotzeko zabalera murrizten; kasu horretan, konketen guztizko kopurua ez da izango berezita ipinitakoen batura baino txikiagoa;
- g) sexuen arabera banatuta egongo dira, eta ikusteko eta ulertzeko moduko karteekin adierazita.

20. Artikulua.- Higiene dotazioak

Zerbitzu higienikoek dotazio hauek izango dituzte gutxienez:

- a) Bainugela bakoitzean, gutxienez, konketa eta komun bat ipini beharko dira.
- b) 100 pertsona baino gehiagoko establezimenduetan, lokaletan edo esparruetan, honako arau hauek jarraituko dira:

- aurreko letrako gutxieneko dotazioari komun bat gaineratuko zaio edukiera 100 lagun edo frakzio bat handitzen denean; gizonezkoetarako bainugelen kasuan, izan liteke komuna edo gernutokia, baina gernutokien kopurua ezingo da izan komunen bikoitza baino handiagoa;
 - komunek konpartimentutan banatuta egon beharko dute beti;
 - konketen kopurua, gutxienez, komunen eta gernutokien kopuruaren erdia izango da.
- c) 10.000 lagunetik gorako edukieren kasuan, aurreko letran aurreikusitako dotazioak honako arau hauen arabera joango dira handitzen:
- oro har ezarritako komunen kopurua 200 lagun edo frakzioko komun bat erantsita handituko da;
 - ezarritako konketen kopurua 400 lagun edo frakzioko konketa bat erantsita handituko da;
 - gizonezkoetarako komunen kasuan, erantsitako dotazioak izan litezke komunak edo gernutokiak, baina gernutokien kopurua ezingo da izan komunen bikoitza baino handiagoa.
- d) Aldian behingo edo ezohiko jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren kasuan, gutxieneko dotazioak aurreko arauen arabera zehaztuko dira; beharrezko izanez gero, dotazio higieniko eramangarriak instalatu ahal izango dira daudenak osatzeko, beti higiene-eskakizun egokiak ziurtatuta. Ikuskizunaren edo jolas-jardueraren ezaugarriak direla-eta dagokion zerbitzu-kopurua izatea ezinezkoa dela egiaztatzen bada, gehienez ere %25 murriztu ahal izango da.
- e) Ikuskizunaren edo jolas-jardueraren ezaugarriak direla-eta aurreikusten bada higiene-zerbitzuen erabilera une jakin batzuetan konzentratuko dela, dotazio horiek %50 areagotuko dira.

21. Artikulua.- Neurri txikiko ostalaritza lokalak

Neurri txikiko ostalaritza-lokaletan, sexu bakoitzeko eta egokitutako komunetarako eskakizunek establezimenduaren % 10 baino gehiago hartzen dutenean, ordeko konponbideak onartuko dira, eskumena duen administrazioaren irizpide arrazoituarekin.

22. Artikulua.- Edukiera-mugarik gabeko leku irekietan egiten diren ikuskizunak eta jarduerak.

Aire zabaleko espazio irekietan egingo diren jendaurreko ikuskizunetan eta jolas-jardueretan, edukiera-mugarik ez bada, dotazio higienekoak ekitaldirako gaitutako guztizko azaleraren arabera zehaztuko dira, sexu bakoitzeko honako proportzio honetan:

- a) 600 metro koadro arte, bi komun eta konketa bat;
- b) 2.000 metro koadro arte, lau komun eta bi konketa;
- c) 5.000 metro koadro arte, sei komun eta hiru konketa;
- d) 5.000 metro koadrotik gora, bi komun eta konketa bat gehituko dira 2.500 metro koadro edo frakzio bat eransten diren bakoitzean.

23. Artikulua.- Aldi bateko instalazioak

Aldi bateko instalazioetako, eramangarrietako eta desmuntagarrietako dotazio higienikoak honako arau hauen arabera izango dira:

- a) establezimendu finkoetarako eskatutako proportzio bera izango dute, eta toki irisgarrietan ipiniko dira;
- b) jarduera nagusian diren dotazioak kontuan hartuko dira, betiere aldi bateko jardueratik jarduera nagusira arteko distantzia 50 metro baino handiagoa ez denean;

24. artikulua.- Higiene zerbitzuen irisgarritasuna

1.- Establezimenduek, lokalek edo esparruek aniztasun funtzionala duten pertsonentzako egokitutako zerbitzu higienikoak izango dituzte, irisgarritasunaren araudiari eta honako arau hauei jarraikiz:

- a) kasu guztietan gutxienez komun eta konketa bana egongo dira egokituta, eta gutxienezko dotazio hori egokitutako konketa eta komun banarekin handituko da edukiera 500 lagun edo frakzioa handitzen denean;
- b) 5.000 laguneko edukieratik gora, aurreko letran aurreikusitako dotazioak handitzeko bana ipiniko dira 2.000 pertsonako edo frakzioko;
- c) egokitutako konketak eta komunak aniztasun funtzionala duten pertsonentzako erreserbatutako tokietatik hurbil ipiniko dira;
- d) 500 laguneko edukiera baino txikiagoa duten establezimendu, lokal edo esparruetan, komunen barruan ipini ahal izango dira, eta edukiera handiagoko kasuetan, berriz, esparru berezietan egon beharko dute.

2.- Aire zabaleko espazio irekietan egingo diren jendaurreko ikuskizunetan eta jolas-jardueretan, edukiera-mugarik ez bada, gutxienez konketa eta komun bana egongo dira aniztasun funtzionala duten pertsonen eskura.

Bosgarren atala.- Eska daitezkeen bestelako baldintzak

25. Artikulua.- Aireztapena

1.- Establezimenduek haizagailuak, aire instalazioak edo erauzgailuak izan behar dituzte. Lokaletako airearen berriztapena horien azaleraren eta zehaztuta duten edukieraren arabera izango da, eta Eraikinetako Instalazio Termikoen Araudiak (RITE) xedatutakoa errespetatuko du.

2.- Ikuskizunen, jolas jardueren eta establezimendu publikoen lokaletako airearen kalitatea onargarria izan dadin, arau honetan ezarritako aireztapen irizpideak jarraituko dira: «bizitzeko ez diren eraikinen aireztapena. Barrunbeak aireztatze eta egokitzeko aireztapen sistemen prestazioen eskakizunak». Erabilera eta gela bakoitzerako ezarritako berriztapenak egin beharko dituzte, duten edukierari eta azalerari jarraiki.

26. Artikulua.- Aldagelak

1.- Kirol-jardueretarako bideratutako establezimenduek aldagelak izan beharko dituzte, manu honetako arauei jarraikiz.

2.- Aldagelen kopuru eta azalera minimo erabilgarria honako arau hauen arabera kalkulatu da:

- a) sexuen arabera bereizita egongo dira;
- b) aldagela bakoitzaren gutxieneko azalera erabilgarria 25 metro koadrokoa da, eta pertsonako 0,50 metro koadro handituko da, instalazio horietan 50 lagun baino gehiagok jardutea aurreikusita dagoenean;
- c) nolana ere, establezimenduaren azalera erabilgarria ikus-entzuleentzat, aldagelak eta komunak albo batera utzita, 100 m² baino txikiagoa edo edukiera 50 pertsonakoa baino txikiagoa denean, bi aldagelen azalera erabilgarria 40 m²-koa edo handiagoa izango da;
- d) kirol-instalazioa lehiara bideratuta baldin badago, aurrekoez gain, arbitro-ekipoentzako bi aldagela ere izan beharko ditu, eta haietako bakoitzak gutxienez 5 metro koadro izan beharko ditu;
- e) ikus-entzulerik aurreikusten ez duten kirol-instalazioetan, eskatutako dotazio higienikoak aldageletan ipini ahal izango dira, bereizita, baina kasu horretan dotazio higienikoen azalera ez du kontatuko aurreko zenbakietako neurrietarako.

3.- Aldagelek honako zerbitzu hauek izango dituzte, une oro garbitasun- eta higie-negoera ezin hobean:

- a) erabiltzaile guztiek aldi berean modu indibidualen erabiltzeko beste aulki eta armairu;
- b) etxeko ur beroa duten dutxak, janzteko eta eranzteko gaitutako tokitik bereizita eta honako gutxieneko kopuru hauetan: dutxa bat kirol jarduera indibidualen hamar erabiltzaileko, eta dutxa bat taldeko kirol-jardueren hiru erabiltzaileko;
- c) higie-nezerbitzuak aldagela bakoitzean, Dekretu honetako arauekin bat edukierari dagokion kopuruan.

27. Artikulua.- Kamerinoak

1.- Kiroletakoak ez diren jendaurreko ikuskizunetara bideratutako establezimendu publikoetan, artistek, interpretariak edo exekututzaileek jarduten dutenean, kamerinoak izan beharko dira, honako baldintza hauekin:

- a) indibidualak edo kolektiboak, sexuen arabera bereizita;
- b) agertokitik gertu ipiniko dira, bertara zuzeneko biderik gabe;
- c) gutxieneko azalera sei metro koadro izango da indibidualetan, eta 25 metro koadro kolektiboetan;
- d) indibidualek konketa bat izango dute, eta kolektiboek, berriz, gutxienez lau;
- e) armairuak izango dituzte, baita ispiluak, aulkiak eta beharrezko bestelako elementuak ere;
- f) kamerinoei atxikita, sexuaren arabera bereizitako komunak izango dira artistek edo exekututzaileek bakarrik erabiltzeko, eta gutxienez komun eta konketa bana izango dituzte.

2.- Ez dira baldintza horiek bete beharko Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren legearen (abenduaren 23ko 10/2015) 25.4 artikuluan aurreikusitako jarduera nagusiaren aldian behingo ikuskizun osagarri baten aldez aurreko komunikazioaren kasuan.

28. Artikulua.- Jantzizaindegiak

1.- Establezimendu publikoek jantziak gordetzeko espazio bat eduki ahal izango dute, arropa, poltsak, motxilak eta gainerako objektu handiak gordetzeko.

2.- Jantzizaindegiak zirkulazio-bide nagusian egon beharko du zuzenean, sarreratik gertu, eta harreratik nolabait gainbegiratzeko modua izan behar da, ilara egiteko espazioarekin.

3.- Jantzizaindegia antolatzaileek artatzen ez dituzten armairuz osatuta badago, armairuok baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) itxeko sistemak izatea, bertan utzitako objektuak segurtasunez gordetzeko;
- b) gehienez ere bost metroko ilarak osatu ahal izango dituzte, ilaren arten gutxienez metro bateko distantziarekin;
- c) jantzizaindegiak okupatutako espazioa ez da hartuko ebakuazio-bidetzat.

4.- Jantzizaindegia antolatzaileek zaintzen badute:

- a) mostradore bat eta zenbakitutako pertxak izan beharko dituzte;
- b) jantzizaindegi bakoitzeko gehieneko edukiera ezingo da izan 500 pertxa baino handiagoa, baina establezimenduak jantzizaindegi bat baino gehiago eduki ahal izango ditu;
- c) mostradoreek behar besteko sendotasuna izan beharko dute, antolatzaileak ez diren pertsonak jantzizaindegiaren barrura sar ez daitezen;
- d) jantzizaindegian uneoro antolatzaile bat izan beharko da gutxienez, eta, ikuskizuna edo jolas-jarduera amaitzen denean eta jende-emari handiena den garaietan, gutxienez pertsona bat izan beharko da benetan okupatuta dauden 100 pertxako, eta jantzizaindegian lanean ari den pertsonako metro lineal bat izan beharko da.

5.- Jantzizaindegiaren kokapenak, espazioaren ezaugarriek eta kudeaketak, establezimenduaren eta jardueraren ezaugarriei erantzunez, ebakuazio jarraitua eta gertakaririk gabea bermatu beharko dute. Horretarako, autobabes-planean jaso beharko dira, edota dokumentu independentean, aurreko plana beharrezkoa ez den kasuetan.

III.KAPITULUA.- INFORMAZIOA ETA PUBLIZITATEA

29. Artikulua.- Establezimenduaren kartela edo plaka

1.- Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jarduerari buruzko abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 16.1 artikuluan jasotakoaren arabera, Legearen 16. artikuluan aurreikusitako establezimendu publikoek kartel bat izan beharko dute, Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, honako informazio hau jasota, gutxienez:

- a) titularraren edo arduradunaren kontaktua: telefono-zenbakia, posta-helbidea eta helbide elektronikoa;
- b) Lizentzian, baimenan edo aldez aurretiko komunikazioan jasotako jarduerak edo ikuskizunak;
- c) ordutegia;
- d) gehienez baimendutako edukiera;
- e) adingabeei sarrera debekatzea, hala dagokionean.
- f) onarpen-baldintza bereziak direla jakinarazi beharko da, halakorik izanez gero, baita soinu mailak 90 dezibelio gainditzen dituen ere.

2.- Kartela eredu normalizatuan eginda egon behar da, ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako zuzendaritzak argitaratutako ereduari jarraiki.

3.- Kartela lokalaren edo esparruaren kanpoaldean ipini beharko da, sarrera guztietatik gertu dagoen tokian, lokalera edo esparrura sartzen diren guztiek erabat ikusteko moduan.

4.- Hainbat eraikinez edo gelaz osatutako establezimenduetan, haietako bakoitzean ipini beharko dira kartelak, adierazteko eraikin edo gela bakoitzak zer edukiera duen, zer jarduera egingo diren eta zer ordutegitan, baldin eta establezimenduaren ordutegi orokorraren aldean desberdinak badira

5.- Establezimendu batean establezimenduaren gaikuntza-tituluan jaso gabeko ikuskizun edo jarduera bat egiten baldin bada, aurreko zenbakietan ezarritako kartelak ipini beharko dira, baina egin beharreko jarduerari erreferentzia eginez, eta, beharrezko izanez gero, establezimenduaren edo gelaren kartel generikoa ordezkatu beharko da.

30. Artikulua.- Ordutegi-taldearen identifikazio bereizgarria

1.- Aurreko artikuluan aurreikusitako kartel edo plakaz gain, ostalaritzako, dantzarako eta dibertsiorako establezimenduek identifikatzeko bereizgarri bat jarri beharko dute establezimenduetarako sarbideetan, eta bertan zehaztuta agertu behar da zein taldetakoak diren, Dekretu honetan jasotako ordutegi arauketarekin bat etorritz.

2.- Identifikazio bereizgarriaren ezaugarriak Ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailburuaren Aginduz arautuko dira.

3.- Lokalak araudi berezi batek hirigintza babes eremuan sartuta dauden kasuetan, baimendu ahalko dira, salbuespenez, aurreko paragrafoan aurreikusita ez dauden bestelako formatuak edo kokapenak dituzten bereizgarriak, betiere, establezimendua zein taldetan dagoen identifikatzeko balio badu.

31. Artikulua.- Lokalean dauden ikus-entzuleei zuzendutako informazioa

1.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, ikuskizuna edo jolas-jarduera antolatzen duenak informazio hau jarri behar du jendearentzat agerian dagoen toki

batean, eta ondo irakurtzeko moduan, eta autonomia erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan, honako informazio hau:

- a) Gaikuntza-agiriaren kopia: lizentzia, baimena edo aurkeztutako alde zureko jakinarazpena, kasuaren arabera.
- b) Telefono-zenbakia, posta-helbidea, fax-zenbakia edo posta elektronikoko helbidea edo, baldin badu, webgunea, erreklamazioak aurkeztu edo informazioa eskatu ahal izateko.
- c) Erreklamazio-orriak daudela.
- d) Irekitzeko eta ixteko orduak.
- e) Gehienez ere baimentzen den edukiera.
- f) Onartzeko baldintzak, sartzeko mugak barne, halakorik badago.
- g) Ikuskizuna edo jarduera behar bezala garatzeko bete beharreko arau partikularrak edo jarraibideak, halakorik badago.

2.- Autobabes-plana beharrezkoa den kasuetan, establezimenduan kokapen-planoak ipini beharrik ba ote den balioetsi beharko da, honako eduki honekin:

- a) pertsona non dagoen kokatzea;
- b) larrialdietako irteeretara ematen duten ebakuazio-bideak;
- c) suteen kontrako babes-bitartekoen kokapena;
- d) larrialdi-kasuan jarraitu beharreko jardura arauak, baita ebakuatutako pertsonen elkargunea ere.

32. Artikulua.- Iragarkiak, kartelak eta publizitate programak

Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren berri ematen duten iragarki, kartel eta programek informazio hau eman behar dute gutxienez:

- a) Zer izen, telefono eta posta elektronikoko daukan jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jardura antolatzen duenak.
- b) Zein motatakoa den jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jardura, eta nortzuk diren exekutatuakile nagusiak.
- c) Zein egunetan eta lekutan izango den jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jardura; zein den haren ibilbidea –hala badagokio–, ordutegia eta gutxi gorabeherako iraupena.
- d) Zeintzuk diren onartzeko baldintzak; sarrerak erosteko salmenta-kanalak edo salementa puntuak, eta zer prezio daukaten, zergak barne, hala badagokio.
- e) Hala badagokio, jendaurreko ikuskizunaren edo jolas-jardueraren sailkapena adinaren arabera.

2.- Jardueren kartelak, iragarkiak eta programak edozein bitartekoz inprimatu, banatu edo zabaltzeaz arduratzen diren enpresek administrazio publiko eskudunei lagundu beharko diete identifikatzen nork antolatu dituen iragarritako ikuskizun edo jarduerak.

IV. KAPITULUA.- ORDUTEGIAK

33. Artikulua.- Ordutegi orokorra

1.- Iragarritako moduan hasi eta burutu behar dira jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak, eta kartel, programa edo iragarkietan aurreikusitako denboran; salbu eta ustekabeko arrazoiek horiek aldatzea justifikatzen badute, eta aldaketok behar besteko aurrerapenarekin jakinarazten bazaizkio jendeari.

2.- Ikuskizunak eta jolas-jarduerak egiteko establezimenduak eta tokiak ixteko ordutegi orokorra hau izango da:

a) I. taldea, 23:00ak:

- Aire zabalean erakustaldiak ematen dituzten establezimenduak, hala nola, udako zinemak, autozinemak, antzokiak edo entzunaretoak
- zezen-plazak;
- igerileku publikoak;
- jolas-jardueretarako establezimenduak;
- jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoko establezimenduak;
- autozerbitzuak eta taberna-kioskoak;
- alkoholik gabeko edariak saltzeko eta kontsumitzeko ostalaritzako establezimenduak.

b) II. taldea, 01:00a:

- erakustaldi-establezimendu itxiak;
- zirkuak;
- kultura- eta gizarte-jarduerako establezimenduak;
- azoka-pabilioiak;
- kirol-establezimenduak;
- erabilera anitzeko establezimenduak;
- apustuatarako lokalak eta joko-aretoak;
- jolas-atrakzioetarako establezimenduak lokal itxietan;
- herri-azoketako eta -dantzaldietako esparruak;
- dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak, 75 dezibelioko zarata-mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 65 dezibeliokoa dutela;
- ostalaritzako establezimenduak, 75 dezibelioko zarata-mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 65 dezibeliokoa dutela;
- titulartasun pribatuko eta erabilera publikorako establezimenduak, irabazi asmorik gabeak, 75 dezibelioko zarata-mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 65 dezibeliokoa dutela.

c) III. taldea, 02:30ak:

- bingoak;
- dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak, adibidez taberna bereziak, pubak edo antzekoak, 90 dezibelioko zarata mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 70 dezibeliokoa dutela;
- ostalaritzako establezimenduak, 90 dezibelioko zarata-mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 70 dezibeliokoa dutela;

- titulartasun pribatuko eta erabilera publikorako establezimenduak, irabazi asmorik gabeak, 90 dezibelioko zarata-mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 70 dezibeliokoa dutela.

d) IV. taldea, 04:30ak:

- kasinoak;
- sexu-zerbitzuak ematen dituzten establezimenduak;
- dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak, hala nola, dantzalekuak diskotekak edo antzekoak, 100 dezibelioko zarata mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 75 dezibeliokoa dutela;
- ostalaritzako establezimenduak, 100 dezibelioko zarata-mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 75 dezibeliokoa dutela;
- titulartasun pribatuko eta erabilera publikorako establezimenduak, irabazi asmorik gabeak, 100 dezibelioko zarata-mugarekin eta aireko zarataren gutxieneko isolamendu akustikoa, gertueneko bizilekuari dagokionez, 75 dezibeliokoa dutela.

3.- Aldi bateko instalazioak ixteko ordutegia iraunkorretarako finkatutako berbera da, jardueraren arabera.

4.- Baimen espezifikoak behar duten jendaurreko ikuskizun eta jolas-jarduera okasionalen amaiera ordua gaikuntza-tituluan zehaztutakoa izango da, aintzat hartuta ikuskizun edo jarduera egingo den tokiaren ezaugarriak, kanpo-inpaktua eta establezimenduetarako aurreikusitako ordutegi taldeen asimilazioa. Halakorik ezean, amaiera-ordua 02:00etan izango da.

5.- Establezimenduen eta bestelako ikuskizunen eta jardueren amaiera-ordu orokorra metatuz luzatuko da, honako kasu hauetan:

- a) ordu eta erdi ostiraletan, larunbatetan eta jai-bezperetan;
- b) ordu erdi bat ekainaren 1etik irailaren 30era bitartean;
- c) gehienez ere bi ordu udal-baimenagatik, Dekretu honen 39. artikuluan zehaztuta bezala.

34. Artikulua.- Ordutegien publizitatea

Dekretu honen 31. artikuluan ezarritakoari jarraiki, establezimenduetan, ikusteko moduko tokian, irekiera- eta itxiera-orduak adierazi beharko dira, euskarri zurrun baten bidez. Euskarri horren neurriak 25 cm. bider 14 cm. izango dira, ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak emandako ebazpenean zehaztutako ereduaren arabera.

35. Artikulua.- Amaiera eta irtenaraztea

1.- Establezimendu edo instalazio iraunkorra zein aldi batekoa ixteko ordua iristen denean, edo jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera amaitzekoa, honako neurri hauek hartuko dira lokalaren titularraren ardurapean:

- a) musika, ikuskizuna, errepresentazioa, emanaldia, proiektzioa edo jarduna etetea, baita lokalean izan litekeen edozer soinu-iturri eta erabiltzaileentzako zerbitzua etetea ere;
- b) edozer tankeratako makinak, aparailuak edo joko-sistemak funtzionatzeari uztea; era berean, jokorako lokaletan ezingo da partida edo joko baimendurik hasi;
- c) lokalean sartzeko atea ixtea eta erabiltzaile potentzialei sartzeko ez uztea;
- d) lokalean geratzen diren erabiltzaileak ateratzea, lokalerako, instalaziorako, ikuskizunerako edo jolas-jarduerarako aurreikusitako itxiera-ordutik kontatzen hasi eta 30 minuturen barruan; une horretatik aurrera, lokala egokitzen eta garbitzen dihardutenak bakarrik geratu ahal izango dira.

2.- Baimena behar duten lokal itxietan egindako ikuskizunek eta jarduerak aurreko zenbakian aurreikusitako denbora izango dute lokala husteko, baldintza berberekin. Baimendutako gehieneko edukierak hala gomendatzen duenean, baimenak berak zehaztu ahal izango du husteko denbora egokia.

3.- Artikulu honetako 1. zenbakiko b) letran zehaztutakoa kasinoaren araudiko zirkulujokoetarako xedatutakoari kalterik gabe ulertuko da.

36. Artikulua.- Nahitaezko itxiera eta murrizketa aldiak

1.- Jendaurreko ikuskizunak eta jolas-jarduerak ezingo dira hasi 06:00ak baino lehen, nola eta erregelamendu sektorialeak edo ikuskizun edo jarduerak zehatz hori arautzen duen administrazio baimenak ez duten bestelako ordutegirik ezartzen.

2.- Lokaletarako edo 3. eta 4. taldeetan jasotako jardueretarako ezarritako amaiera- edo itxiera-orduaren, hura burututa egon ala ez, eta irekitzeko edo hasteko orduaren artean gutxienez sei ordu igaro beharko dira.

3.- Establezimenduaren titularrak udalari formalki komunikatzen badio baimendutako ordutegi orokorraren luzapenei uko egiten diela, derrigorrez itxita egon behar duen ordu-tartea ixteko aurreikusitako ordutegi orokorretik aurrera zenbatzen hasiko da.

4.- Debekatuta dago ikus-entzunezko edo musikako ekipoen funtzionamendua, baita emanaldiak, dantzarako pistak eta tankerakoak ere, eta, oro har, zarata gogaikarriak eragin ditzakeen edozer jarduerak 10:00ak baino lehen.

37. Artikulua.- Edariak kontsumitzea lokalen kanpoaldean

1.- Debekatuta dago lokalen kanpoan edariak kontsumitzea 22:00etatik aurrera, 33. artikuluko 5. paragrafoan aurreikusitako ordutegi orokorraren luzapenei kalterik egin gabe. Edonola ere, udal bakoitzak muga handiagoak ipini ahal izango ditu udal-ordenantzen bitartez edota terrazetarako eta tankerakoetarako ematen dituen lizentzien bidez.

2.- Establezimenduen titularrek, aipatutako ordutik aurrera, erabiltzaileek kontsumizioak lokaletik kanpora ateratzea galaraziko dute; horrek ez ditu erabiltzaileak salbuetsiko lokaletik kanpora kontsumizioekin ateraz ateraz gero izan lezaketen erantzukizunetik.

38. Artikulua.- Ordutegi bereziak

1.- Establezimendu, ikuskizun edo jolas-jardueraren ezaugarriak direla-eta justifikatuta dagoenean ordutegi berezia jartzea, ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak baimena eman ahal izango du ordutegi orokorra luzatzeko honako kasu hauetan:

- a) udalerrietako herrigunetik kanpo edo errepideetan dauden lokalak edo instalazioak;
- b) aireportu, portu, tren-geltoki, autobus geltoki eta tankerakoetan dauden lokalak eda instalazioak, eta nagusiki bidaiarien eta langileen zerbitzura daudenak eta gau-parteko zein goizaldeko ordutegiak dituztenak;
- c) ezaugarri espezifikokoak edo ezohikoak kontuan izanda, ordutegi desberdindua ezartzea justifikatzen duten jolas-jarduerak eta bestelako ikuskizunak.

2.- Ordutegi berezia baimentzeko prozedura alderdi interesdunaren edo dagokion udalaren eskaerarekin batera hasiko da. Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe horretan ebazpenaren jakinarazpenik jasotzen ez bada, interesdunak ulertu ahal izango du eman diotela eskatutako baimena.

3.- Ebazpenaren aurretik, dagokion udalari txostena eskatuko zaio, eskatutako ordutegi-luzapenak inguru horretan izan dezakeen eraginari buruz.

4.- Baimena eskuratzeko ebazpena emateko, baliteke zuzenketa-neurri osagarriak bete behar izatea, bizilagunei endredoak saihesteko, eta ezezkoa izango da baldin eta ordutegia zabaltzeak segurtasun-arazoak, bizikidetzaren hondatzea, osasun publikoko arriskuak edota hirugarrenei endredoak eragiten baditu.

5.- Ordutegi bereziaren baimena ez da metatuko udalek Dekretu honen arabera eman ditzaketen beste ordutegi-luzapen batzuekin, eta prekarioan emango da; halaber, hura emateko kontuan izandako inguruabarrak aldatzen badira, ezeztatu ahal izango du.

39. Artikulua.- Ordutegiak luzatzea

1.- Udal-agintariak gehienez ere bi orduz luzatu ahal izango dute itxiera-ordutegia, honako ekitaldietakoren bat dela eta:

- a) udalak berak edo autonomia-erkidegoko erakunde eskudunak jai-giroko edo interes turistikoko sailkatutako ekitaldiak, hala nola ospakizun publikoak, auzoetako

jaiak, gizarte- edo azoka-izaerako gertaerak, lehiaketak, erakusketak eta tankerako bestelakoak, urte naturaleko gehienez ere hamabost eguneko mugarekin;

b) zaindarien egunak, udal bakoitzak bere udal-mugarterako ofizialki ezarrita dauzkanak;

c) Aste Santuko ostegunetik astelehenera bitartean; inauterietako ostegunetik asteartera, eta abenduaren 15etik urtarrilaren 6ra Eguberrietan.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, udalek, era berean, ordutegi orokorra luzatu ahal izango dute, gehienez ere bi orduz, urte naturaleko gehienez ere hamabost eguneko mugarekin, gerora azaltzen diren inguruabar apartekoen eta ezohikoen arabera, lehendabiziko paragrafoko a) letran aurreikusitakoan tankeran

3.- Auzoetako jaien edota udal-mugarterean definitutako lurralde-eremu baten barruan mugatutako bestelako gertaeren kasuan, udalak zehaztu ahal izango du ordutegi berezia udalerriko lurralde-eremu jakin horretarako dela.

4.- Ordutegiak luzatzeko aurreikusitako prozedura ofizioz hasi ahal izango da, edota establezimenduen titularrek edota interesak biltzen dituzten enpresa elkarteek eskatuta.

Ordutegiak luzatzeko prozedura alde batek eskatuta hasten denean, ebazteko eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da artikuluko honetako lehen paragrafoan aurreikusitako prozedurarako. Artikuluko honetako bigarren paragrafoak aipatzen duen prozeduraren kasuan, eskaera gutxienez luzapena eskatzen den data baino hamar egun lehenago egin beharko da, eta luzapenaren eskaerari buruzko ebazpena indarrean jartzeko eskatutako data baino 72 ordu lehenago eman eta jakinarazi beharko da.

Epe horretan ebazpenaren jakinarazpenik jasotzen ez bada, interesdunak ulertu ahal izango du eman diotela eskatutako baimena.

5.- Ordutegiak luzatzeko udal-ebazpenak baliteke lokalei hainbat zuzenketa-neurri berezi ipintzea, hala nola zarata-maila edo gehiegizko dardarak kontrolatzeko, arintzeko edota gabetzeko gailuak instalatzeko betebeharra.

Baimena emateko ebazpenaren publizitatea egingo zaie herritarrei, eta ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzari jakinaraziko zaio.

6.- Udalak baimendutako lokalen kanpoaldeko terrazen eta tankerakoen ordutegia udalak instalazio horietarako ezarritakoa izango da, betiere Dekretu honetan ezarritako mugen barruan eta hirugarrenei endoredorik sortu ezean.

7.- Zaindariaren edo auzoetako jaien kasuan, udalek gehieneko zarata mailak ezarri ahal izango dizkiote establezimenduen eta txosna herritarren kanpoaldeko megafoniari, kontuan hartuta zer ordu den eta zein aldetan kokatuta dauden. Era berean, udalek haien jarduerekin jarraitzeko aukera emango diete, baina soinurik edo megafoniarik gabe.

40. Artikulua.- Ordutegia murriztea



- 1.- Udalek jarduera-lizentzian bertan ordutegi espezifiko murriztu bat ezarri ahal izango dute establezimenduetarako, oro har aplikatzen denarekin alderatuta, funtzionamenduaren ezaugarriek edo haiek egiten diren tokitik ospitale edo haur edo adinduentzako egoitza-ekipamenduetara dagoen distantziak hala justifikatzen badute.
- 2.- Ordutegia murrizteko beharra establezimendua martxan ipini eta gerora sortutako inguruabarrek eragina bada, udalak ebazpen arrazoitua eman beharko du, kontraesaneko espedientea izapidetu ostean.

V. KAPITULUA.- SARRERAK ETA ABONAMENDUAK SALTZEA

41. Artikulua.- Sarrerak eta abonamenduak

- 1.- Jendaurreko ikuskizun batera sartzeko eta bertan egoteko, baliteke sarrera bat edo abonamendu bat eduki beharra izatea.
- 2.- Sarreratzat hartuko da antolatzaileak emandako txartela edo tiketa, berez, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera egiten ari diren esparrura edo tokira sartzeko eskubidea ematen duena, haren edukiarekin bat.
- 3.- Abonamendutzat hartuko da antolatzaileak emandako baimena edo titulua, berez, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera egiten den esparrura edo tokira sartzeko eskubidea ematen duena, hark irauten duen bitartean.

42. Artikulua.- Edukia

- 1.- Sarrerek zenbaki korrelatiboz zenbatuta egon beharko dute. Halaber, bi alde desberdin izan beharko dituzte: erabiltzaileari zuzendutako zati nagusia eta sarrera-kontrolako langileei zuzendutako matrizea.
- 2.- Erabiltzaileari zuzendutako zati nagusia erabiltzailearen esku geratuko da jarduera edo ikuskizuna egiten ari diren lokalera, establezimendura edo tokira sartu ostean.
- 3.- Antolatzaileak berari dagokion matrizea gordeko du, jarduera edo ikuskizuna egin eta gutxienez hiru hilabeteko epean. Matrize horren tokian, dagozkion zerrenda informatikoak erabili ahal izango dira, hala dagokionean.
- 4.- Sarrerek, oro har, honako informazio hau izango dute, gutxienez Euskadiko Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan:
 - a) hurrenkera-zenbakia;
 - b) antolatzailearen identifikazioa;
 - c) programatutako ikuskizuna edo jarduera;
 - d) tokia, eguna, hasiera-ordua eta amaitzeko gutxi gorabeherako ordua. Ateak zabaltzeko ordua.
 - e) eserleku mota eta zenbakia, eserleku zenbakituko saioetan;
 - f) sarreraren jaulkitze-data;
 - g) sarreraren prezioa;

- h) itzultzeko baldintzak;
- i) onarpen-eskubidearen baldintzak, hala dagokionean.

5.- Establezimenduaren barruan ikuspegi murriztua duten sarreraren kasuan, horren berri eman beharko da sarreraren edukian.

6.- Baimen espezifikoa duten ekitaldietarako eta 10.000 lagun baino gehiagoko edukiera dutenetan, sarrera-ordu gomendatu bat emango da ekitaldiaren ezaugarriak, gaitutako sarbideak eta gainerako inguruabarrak kontuan izanda, sarrera mailakatua lortzeko helburuz. Sarreraren atzealdean, plano bat agertuko da, jartokia zer sektoretan dagoen zehazteko.

43. Artikulua.- Prezioa

1.- Sarreraren edo abonamenduaren prezioa modu askean zehaztu ahal izango du antolatzaileak, baina ezingo ditu prezio desberdinak ezarri jatorria, arraza, sexua edota erlijioa direla eta.

2.- Antolatzaileak zehaztu ahal izango du zer adinetatik aurrera hasi behar duten adingabeak ordaintzen. Adingabeek sarrera ordaindu beharrik ez izateak ez ditu salbuetsiko titulu bat ematetik, esparrura sartu ahal izateko eta edukierari dagokionez zenbatu ahal izateko.

3.- Sarrerak edo abonamenduak ezin izango dira saldu publizitatean iragarri baino garestiago. Hala ere, kasuaren arabera, lizentzia eman edo alde zuzeneko jakinarazpena jaso edo baimendu behar duen organoak baimena eman ahal izango du sarrerak edo abonamenduak komisioaz saltzeko.

44. Artikulua.- Salmenta

1.- Ekitaldietarako sarrerak saldu ahal izateko, establezimenduak, lokalak edo esparruak gaikuntza-titulua izan beharko du delako ikuskizuna edo jolas-jarduera egiteko.

2.- Ekitaldiak baimen espezifikoa behar baldin badu, ezingo dira sarrerak salgai ipini, harik eta baimenaren eskaera egin arte. Ekitaldiak azkenean baimenik eskuratuko ez balu, sarreraren zenbatekoa itzuli egingo da, erregelamendu honetan aurreikusitakoarekin bat.

3.- Ekitaldi baterako gonbidapenak ezingo dira saldu inola ere, ezta jatorria, arraza, sexua edo erlijioa dela eta diskriminatuta egin ere ere.

4.- Salmentan ipinitako sarrera kopurua ezingo da egin beharreko ekitaldiaren edukiera baino handiagoa izan, antolatzaileak eta jarduleak albo batera utzita. Antolatzaileek, gainera, salgai ipinitako sarrera kopurua ekitaldiaren ezaugarri berezietara egokitu beharko dute, segurtasun arrazoiak direla eta, edukiera hori murriztu beharra balitz ere saio jakin baterako.



5.- Antolatzaileak jarleku klase bakoitzaren gutxienez ehuneko hirurogeita hamar salduko dizkie ikus-entzuleei, dela antolatzaileak berak zuzenean salduz dela hirugarrenen bitartez gauzaturiko gainordainik gabeko zuzeneko salmentaren bidez edo baimendutako komisioidun salmentaren bidez. Ehuneko minimo hori ez da eskatuko jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren estreinaldiak direnean, ezta ongintzako ikuskizunetan ere.

6.- Abonamendu bidezko salmentaren kasuan, edo klubek edo elkarteek antolatutako ikuskizunak edo jolas-jarduerak direnean, aurreko zenbakian adierazitako ehuneko abonamenduetan sartu gabeko jarlekuetan edo aldez aurretik bazkideei gorde ez zaizkien txartelen arabera zehaztuko da.

7.- Aniztasun funtzionala dutenei egokitutako sarrerarik ez zaizkie salduko aniztasun funtzionala dutela egiaztatzen ez dutenei, harik eta salmentan jarritako beste sarrera guztiak saldu arte.

45. Artikulua.- Salmenta kanalak

Antolatzaileak erosleek sarrerak zuzenean erosi ahal izango dituzten salmenta puntuak eta kanalak identifikatu behar ditu (aurrez aurre, telefonoz edo bide telematikoz), dela antolatzaileak berak zuzenean saldutakoak dela sarrerak saltzeko kontratatutako enpresen bidez saldutakoak, baldin eta, azken kasu horretan, sarrerak ezarritako prezioan saltzen badira, erabiltzailearentzat komisioren edo kudeaketa- zein banaketa gastuen gainordainik gabe.

46. Artikulua.- Salmenta puntuak

1.- Sarrerak lokalean bertan eman ahal izango dira, edota enpresa beraren edo beste enpresa batzuen lokaletan.

2.- Antolatzaileak beharrezko saltokiak gaituko ditu jarleku kopuruaren arabera, publikoari bizkor banatzeko eta jende-pilaketak saihesteko.

3.- Esandako saltokiek behar den denboran irekita egon beharko dute eta ikuskizuna edo jarduera hasi baino behar besteko aurrerapenekin, ikus-entzule edo parte-hartzaile guztiek jarduera edo ikuskizuna osorik gozatu ahal izan dezaten.

47. Artikulua.- Salmenta telematika

1.- Sarreraren salmenta telematikoa merkataritza elektronikoen araudi erregulatzailea bete beharko du.

2.- Antolatzailea ez den beste enpresa batek sarrerak telematikoki saltzen baditu, sarreraren gainean errekaru bat aplikatuta, komisiorekin saltzea izango da.

3.- Sarrerak partikularren artean birsaltzea gainordainik gabe baino ezin daiteke egin, eta beti ere ezarritakoa baino handiagoa ez den prezioan. Salmenta horretara dedikatzen

den enpresa baten bitartekaritzarekin egiten bada, hark kudeaketa gastuak kobratu ahal izango ditu, eta horiek ezingo dira izan sarreraren prezioaren gaineko ehuneko bat. Era berean, enpresa horiek alde aurretik zehaztuta eta publizitatuta egon beharko dute.

48. Artikulua.- Komisioarekin saltzea

1.- Aldez aurretik ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzari jakinarazita, sarrerak gehienez ere prezio ofizialaren gaineko %20ko gainordainarekin saldu ahal izango dira, bai udal-lizentzia duten establezimenduetan, bai web orrietan, aldez aurretik antolatzailearen eta komisio-hartzailearen arteko adostasunarekin.

2.- Antolatzailearen eta enpresa komisio hartzailearen arteko akordioak, gutxienez, honako hauek zehaztu beharko ditu:

- a) zer jendaurreko ikuskizun edo jolas jardueratarako ezartzen diren, edota, hala dagokionean, zenbat denboran salduko dituen komisio-hartzaileak antolatutako ekitaldien sarrerak;
- b) saldu behar diren sarreraren kopurua, edota bide horretatik salduko diren sarreraren ehunekoa, ituna ekitaldi baterako baino gehiagotarako baldin bada;
- c) prezio ofizialaren gaineko errekaruaren ehunekoa;
- d) ezeztapenen eta itzultzeen kasurako aldeek adostutako araubidea.

3.- Aldez aurreko jakinarazpena ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzan aurkeztuko du antolatzaileak, enpresa komisio-hartzaileekin sinatutako akordioen kopiaekin batera. Esandako aldez aurreko jakinarazpenak antolatzaile batek denbora-tarte jakin baterako antolatutako ikuskizun guztiak edo batzuk bildu ahal izango ditu.

4.- Sarreraren «komisioarekin salduta» zigilua agertu beharko da, eta sarreraren prezioa zehaztuta egon beharko da, bai hasierakoa, bai amaierakoa.

49. Artikulua.- Salmenta galarazia

1.- Galarazita dago sarrerak edo abonamenduak gainordainarekin birsaltzea, baimenik gabe komisioarekin saltzea, eta sarrerak nahiz abonamenduak ezkutuan saltzea, aurreko manuarekin bat.

2.- Sarreraren ezkutuko salmentatzat hartuko da saltzaileak itxuraz eskaintza bezala estaltzen duenean, ekitaldiarekin lotutako artikuluen edo objektuen salmenta nagusiaren ondotik, sarrerak osagarri bezala edo doan emanez.

3.- Dagokion zehapen-prozedura ekiteari kalterik egin gabe, berehala erretiratuko dira, kautelaz, baimendu gabeko gainordainarekin birsaltzen edo komisioarekin saltzen ari diren sarrerak edo abonamenduak, baita ezkutuan saltzen direnak ere, aurreko manuarekin bat.

50. Artikulua.- Abonamenduak

1.- Antolatzaileak erabiltzaileari jakinarazi beharko dio abonamendu bat erosi edo haren harpidetza egin aurretik, zer eskubide eta betebeharrak dituen, eta, zehazkiago:

- a) zer instalazio baliatzeko eskubidea izango duen eta zenbat denboraz;
- b) abonamenduak zer ikuskizun edo jardueratarako eskubidea ematen duen;
- c) abonamenduak leku jakin baterako eskubidea ematen duen edota, aldiz, abonamendua jarleku batekin trukatu beharra dagoen ikuskizun edo jolas-jarduera bakoitzean;
- d) abonamenduak eragiten dituen deskontuak edo aurrezkia;
- e) besterenezina den edo zer transmisio eskubide dituen abonamendua beste pertsona batek erabili ahal izateko.

2.- Antolatzaileak abonamendua duten pertsonen erregistro informatiko bat izan beharko du, eta, gutxienez, honako datu hauek apuntatu beharko dira:

- a) titularraren izen-abizenak edota sozietatearen izena;
- b) nortasun-agiri nazionalaren zenbakia edota, hala dagokionean, abonamenduaren titularraren identifikazio fiskaleko kodea;
- c) abonamenduaren titularraren helbidea;
- d) ordaindutako jarlekuaren identifikazio indibidualizatua, zenbakia eta zerrenda adierazita.

3.- Dagozkion ikuskaritza eta kontrolerako, abonatuak duten pertsonen zerrenda informatikoa dagozkion ikuskaritzaren esku egongo da, establezimendu publikoaren barruetan.

51. Artikulua.- Ezerespenak eta diru itzulketak

1.- Erabiltzaileak aldeztu aurretik ordaindu duen sarreraren prezioa bueltan jasotzeko eskubidea izango du, aldeztu aurretik erreklamazioa egin eta salmentako baldintzen arabera, honako kasu hauetan:

- a) Ikuskizuna edo jolas jarduera hasi baino lehen ezeresten edo eteten bada
- b) Erabiltzaileak ezin izan duenean ikuskizunera edo jarduerara sartu eta gozatu, haren antolaketa akastunagatik edota esparru edo establezimenduetara modu mailakatuan sartzeko aurreikuspen ziurtaturik ez izateagatik
- c) Programatuak diren ikuskizunetan edo jolas jardueran antolatzaileak sartutako funtsezko aldaketarekin ados ez dagoenean, salbu eta ekitaldia jada hasia balego edo aldaketa ezinbesteko kariengatik eratorri bada.

2.- Ikuskizunak edo jarduerak arautzen dituzten erregelamendu espezifikoek bestelakorik ezarri ezean, ikuskizun edo jarduera bat hasi eta gero eteten bada, erabiltzaileak sarreraren zenbatekoa bueltan jasotzeko eskubidea izango du, baldin eta ikuskizunaren edo jardueraren programatuak diren denboraren herena igaro ez bada edo etetea ezinbestean gertatu ez bada. Etendako ikuskizuna edo jarduera berriro abiaraztea

aurreikusten bada, ez da izango sarreraren zenbatekoa jasotzeko eskubiderik, eta hasieran eskuratutako sarrerak edo haren ordekoak balioko du.

3.- Komisioarekin saldutako sarreraren kasuan, itzulketarako antolatzailearen eta komisio-hartzailearen artean adostutakoa hartuko da kontuan, baina horrek ez dio galaraziko erabiltzaileari ordaindutako zenbatekoa bueltan jasotzea.

4.- Abonatuak abonamenduaren kostuaren zati proportzionala itzultzeko eskubidea izango dute aurreko paragrafoetan adierazitako kasuetan.

VI. KAPITULUA.- ONARPEN- ETA EGOTE BALDINTZAK.

Lehen atala. - Baldintza orokorrak eta espezifikoak

52. Artikulua.- Baldintza orokorrak

Establezimenduen titularrek eta ikuskizunen eta jolas-jardueren antolatzaileek sarrera edota bertan egotea ukatu beharko dute kasu hauetan:

- a) edukiera beteta badago;
- b) ixteko ordua iritsi bada;
- c) zehaztutako gutxieneko adina ez badu, indarrean dauden arauen arabera;
- d) sarrera edo jarlekua ordaindu ez baditu, hura eska daitekeen kasuetan;
- e) armak edo arma bezala erabiltzeko moduko objektuak aldean eramaten direnean, nola eta ez diren Segurtasun Indar eta Kidegoetako kideak, bizkartzain pribatuak euren egitekoetan, edota eramateko baimenduta badaude, une oro aplikagarri den araudi espezifikoa zehaztutakoarekin bat;
- f) modu erasokorrean portatzen badira edo jokaera bortitzak azaltzen badituzte, ikusle edo erabiltzaileei enbarazu egin diezaieketenak, edo ikuskizuna edo jardueraren garapen arrunta eragozten dutenak;
- g) ez erakustea oinarrizko eskubideen kontrako ekintzarik sustatzen duen sinbolo, jantzi edo gauzarik eta, bereziki, arrazakeria, xenofobia edo bazterkeria sustatzen duen ezer.

53. Artikulua.- Baldintza espezifikoak

1.- Titularrek eta antolatzaileek hartu beharreko neurriak hartu beharko dituzte, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera behar bezala garatzeko.

2.- Sartzeko eta egoteko muga orokorrari kalterik egin gabe, titularrek edo antolatzaileek baldintza objektibo espezifikoak zehaztu ahal izango dituzte onartzeko eta egoteko, onarpen-eskubideari edo ukapenari jarraikiz.

3.- Baldintza espezifikorik onarpen-baldintzekin loturik egon litezke; ikuskizun edo jardueran sartzeko eta irteteko mugekin, jarduerak hasita daudenean edo amaitu aurretik; janaria, edaria, aparailu elektronikoak edo bestelako objektuak sartzeko

mugekin; animaliak sartzearekin eta abarrekin. Era berean, baldintza horiek desberdinak izan litezke segun eta zer ekitaldi edo jarduera egiten diren.

4.- Baldintza horiek edo sarrera ukatzeko eskubideaz baliatzea, ostera, ez dira aitzakia izango bereizketarik egiteko erabiltzaileen jatorri edo jaioleku, arraza, sexu, erlijio, iritzi, aniztasun funtzional, sexu-orientazio edo genero-identitatea dela-eta edo erabiltzaileen egoera edo inguruabar pertsonal edo sozialak direla-eta.

5.- Titularrek edo antolatzaileek ikuskaritza eta kontrola egiteko eskumena duen administrazioari jakinarazi beharko dizkiote onarpen-baldintza espezifikoak, baita haietan egindako aldaketak ere.

6.- Establezimendu publikoaren, instalazioaren edo leku irekiaren sarreran eta saltokietan eta ikuskizunari edo jolas-jarduerari buruzko publizitatean edo propagandan, toki ageri batean eta ondo irakurtzeko moduan jarriko da zeintzuk diren onartzeko baldintzak, eta zer jarraibide ezarri den ikuskizuna edo jolas-jarduera normal garatzeko.

Bigarren atala.- Haurren eta gazteen babesa

54. Artikulua.- Adingabeei sarrera eta egotea galaraztea

1.- Hemezortzi urtez azpiko adingabeak ezingo dira sartu eta egon, bakarrik edo adindunekin lagunduta, honako hauetan:

- a) erakusketa-areto berezietan, baldin eta proiektzioak, erakusketak edo zuzeneko emanaldiak pornografikoak badira, muturreko biolentzia erakusten badute edo, edukiari erreparatuta, adindunentzat badira;
- b) jokorako establezimendu eta lokaletan, bertako araudi espezifikoak debekatzen duenean;
- c) dantzalekuetan, dantza-aretoetan eta diskoteketan, kalterik eragin gabe adingabeentzako saioak egiteko baimena duten dantza-areto edo diskotekei buruz edota gazte-aretoei buruz xedatutakoari;
- d) eduki pornografiko edo erotiko esplizitua, errepikakorra edo bisualki zehaztatua duten ikuskizun edo jolas-jardueretan;
- e) indarkeriaren apologia argi eta garbi egiten duten ikuskizunetan edo jolas-jardueretan; bereziki, muturreko indarkeria-eszenen deskripzio bisual xehatua, errepikatua edo batere kritikarik gabea dutenetan, ezta pertsoneri edo animaliei kalte fisiko larria modu krudel eta laidogarrian egiten dutenetan ere;
- f) muturreko indarkeriadun borrokaldien kirol jardueren lehiaketa edo emanaldietan, Nazioarteko Batzorde Olinpikoak edota Estatuko zein autonomia-erkidegoko kirol-federazioek aitortu gabeetan;
- g) antolatzaileak hemezortzi urtez azpiko adingabeentzat desegokitzen jo dituen gainerako ikuskizun edo jolas-jardueretan.

2.- Hamasei urtetik beherakoak ezingo dira III. taldeko establezimenduetan sartu eta egon, hala nola taberna berezietan, pub eta disko-tabernetan, nola eta ez dauden adindunekin, alkoholik kontsumitu gabe eta 22:00ak arte.

55. Artikulua.- Interneteko edukietara sartzeko mugak

Establezimendu eta instalazioek bezeroei Interneteko sarbidea duten gailu informatikoa eskainiz gero, edukiak murriztu eta kautelak ezarri beharko dituzte adingabeak sartu ez daitezen nortasunaren garapenean eta prestakuntzan kalte egin diezaiekeen informazioan.

56. Artikulua.- Artista edo exekutatzaile adingabeak

1.- Adingabeek artistak, jardule edo parte-hartzaile gisa esku hartzeko, adingabeen lan-eta babes araudiak ezartzen dituen baldintzak eta baimenak bete beharko dira.

2.- Inola ere ezingo dute adingabeek parte hartu hamazortzi urtez azpiko adingabeentzat desegokitutako kalifikatutako ikuskizunetan edo jolas jardueretan.

57. Artikulua.- Sailkapena adinaren arabera

1.- Antolatzaileak jendaurreko ikuskizuna edo jolas jarduera sailkatu beharko du, aurreko artikuluan zehaztutakoari jarraikiz, eta adinen arabera mailakatu beharko du sarrera eta adingabeen pertsonalitatea edo prestakuntza egokiro garatzeko arriskurik izan litekeenean, honako kategoria hauen arabera:

- a) ez da gomendatzen zazpi urtez azpiko adingabeentzat;
- b) ez da gomendatzen hamabi urtez azpiko adingabeentzat;
- c) ez da gomendatzen hamasei urtez azpiko adingabeentzat;
- d) ez da gomendatzen hamazortzi urtez azpiko adingabeentzat.

2.- Antolatzaileak, era berean, jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera haurrentzat gomendatua edo ikus-entzule ororentzat gomendatua den zehaztu ahal izango du.

3.- Jendaurreko ikuskizunaren edo jolas-jardueraren publizitatean, kanpoko karteletan eta sarreretan, adinen araberako sailkapena ipini beharko du, halakorik izanez gero.

4.- Zinemagintzako eta ikus-entzunezko obren kalifikazioa egiteko, horretarako araudi espezifikoari jarraituko zaio.

58. Artikulua.- Adingabeei bideratutako saioak

1.- Hirugarren eta laugarren ordutegi-taldeetan bildutako dantzarako eta dibertsiorako ostalaritza establezimenduek 14 urtetik gorako eta 18 urtez azpiko pertsonen zuzendutako saioak egin ahal izango dituzte, baldin eta saio horiek honako baldintza hauek errespetatzen badituzte:

- a) 12:00etan hasi eta 1. ordutegi-taldeko establezimenduen amaiera-ordura arte funtzionatzen badute; adingabeen saioaren amaieraren eta establezimenduaren ohiko jardueraren hasiera bitartean gutxienez ordubete igaro beharko da;
- b) gutxieneko adina 14 urte beteta baldin bada;

- c) adingabeentzako saioetan edari alkoholodunak saltzea, kontsumitzea, zerbitzatzea edo erakustea debekatzen bada;
- d) tabakoaren produktuak saltzea galarazten bada, eta tabakoa saltzeko makinak deskonektatuta badaude;
- e) ikusteko moduko tokian eta kanpotik irakur daitekeela, saioak egingo direla iragartzen duen kartela bada;
- f) publizitateak edo propagandak ez baditu adingabekoentzako saioen edukiari eta ospakizun baldintzei buruzko mezu edo ideia zehaztugabeak edo engainagarriak ipintzen;
- g) edozer joko- edo apustu-modalitate egitea debekatzen baldin bada adingabeko saio horietan; establezimenduan jokorako makinak edo sistemak izanez gero, itzalita egon beharko dute saioetan;
- h) ezin izango da ikuskizunik edo jolas jarduerarik egin edo apaingarririk jarri, baldin eta adingabeen osotasun fisiko, psikiko edo morala arriskuan jartzen badute.

2.- Udalek, pilatzen diren ezohiko inguruabarrei erantzunez, urtean gehienez ere 15 egun ezarri ahal izango dituzte adingabeetara bideratutako saio hauetarako, artikuluhonetan ezarritako ordutegietatik bestelakoekin.

59. Artikulua.- Gazteentzako saioak

1.- Hamasei urtetik gorako pertsonak 3. eta 4. taldeetan bildutako dantzarako, dibertsiorako eta ostalaritzako establezimenduetara sartu ahal izango dira, pertsona-talde homogeneoetarako saio ezohikoak egiten direnean, baldin eta ez badago sarreren banaketa komertzialik.

2.- Saioen ordutegia 2. taldeko establezimenduetarako zehaztutakoa izango da, eta aurreko artikuluan hemezortzi urtez azpiko adingabeei ezarritako gainerako mugak kontuan izan beharko dira.

VII. KAPITULUA.- KOKAPEN- ETA SEGURTASUN BALDINTZAK

60. Artikulua.- Erantzukizuna

Establezimenduaren titularraren edo ikuskizunaren nahiz jolas jardueraren antolatzailearen erantzukizuna izango da behar beste bitarteko eta giza baliabide jartzea ekitaldiak behar bezala joan eta beharrezko segurtasun baldintzak errespetatuz gara daitezen, ekitaldiaren ezaugarri zehatzei erreparatuta.

Lehenengo atala.- Sarrera- eta edukiera-kontrolak

61. Artikulua.- Sarrera-kontrolak eta onarpeneko zerbitzuak

1.- Ezaugarriekin, edukierarekin eta herritarren bizikidetzan duten eraginarekin loturik, honako ikuskizun, jarduera eta establezimendu publiko hauek bezeroen edo

erabiltzaileen sarrera kontrolatzeko onarpen-zerbitzu espezifikoak izan beharko dute, behar bezala identifikatuta eta egiaztatuta:

- a) 700 laguneko baino gehiagoko edukiera duten establezimendu edo esparruetan egiten diren jendaurreko ikuskizunek eta jolas-jarduerek;
- b) araubide bereziko establezimenduek;
- c) euren araubide espezifikoari jarraikiz, onarpen-zerbitzu espezifiko bat nahitaez eskatzen duten establezimenduek, jendaurreko ikuskizunek eta jolas-jarduerek, eta horiei Dekretu honetan xedatutakoa modu osagarrian aplikatuko zaie;
- d) baimena eskuratzeko segurtasun-memoria egin beharra daukaten aldi behingo jendaurreko ikuskizunek eta jolas-jarduerek.

2.-Gainerako establezimenduek, jendaurreko ikuskizunek eta jolas-jarduerek onarpen-zerbitzuko langileak izan ahalko dituzte, behar bezala identifikatuta, erabiltzaileen sarrera kontrolatzeko.

62. Artikulua.- Edukiera kontrolatzea

1.- Establezimenduen titularrek eta jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren antolatzaileek une oro galarazi beharko dute ikus-entzuleen kopuruak gehienezko edukiera gainditzea, eta lokalean edo instalazioan zenbat lagun dauden agintaritzaren agenteei noiznahi jakinarazteko moduan egon beharko dute.

2.- Edukieraren kontrola behaketa bisualaren bidez, sarreren kontrolarekin edota bestelako tekniken bitartez egin ahal izango da, hala dagokionean, esleitutako langilearen kolaborazioarekin, egiaztapen hori ahalik eta modurik eraginkorrenean egin ahal izateko.

3.- Pertsonak kontatu eta edukiera kontrolatzeko sistemak eduki beharko dituzte 700 lagunetik gorako edukiera onartuta daukaten establezimendu publikoek edo instalazioek. Udal-agintaritzak arau xedapen baten bidez zehaztuz gero, edukiera txikiagoa dutenek ere eduki beharko dituzte sistema horiek.

4.- Araubide bereziko establezimenduen kasuan eta segurtasun-memoria nahitaez eduki behar duten alde aurreko baimendun jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren establezimenduen kasuan, esandako kontaketa-sistemek Estatuko kontrol metrologikoaren eta Dekretu honetako II. eranskinean deskribatutako baldintzetan indarrean den araudia bete beharko dute. Haien instalazioa baimendutako enpresen bidez egingo da, fabrikatzailearen argibideei jarraikiz, eta enpresa instalatzaileak buletin bat beteko du, hala ziurtatzeko.

5.- Eskumena duten administrazioak edukiera ikuskaritzak egingo dituzte ausaz, egiaztatzeko ez direla gainditzen ezarritako gehienezko edukierak, eta ikuskaritzak bere dispositiboa pertsonak zenbatzeko sistemara konektatu ahal izango du, edukiera gainditu den ala ez egiaztatu ahal izateko.

Bigarren atala.- Onarpen zerbitzuko langileen gaikuntza

63. Artikulua.- Onarpen-zerbitzuko langileen egitekoak

1.- Onarpen-zerbitzuko langiletzat hartuko dira jardueron titularraren edo antolatzailearen mende honako funtzio hauek espezifikoki eta identifikaturik egiten dituztenak:

- a) pertsonak lokalean edo instalazioan normaltasunez sartzen direla ziurtatzea;
- b) lokalaren edo instalazioaren titularrak edo jendaurreko ikuskizunen edo jolas-jardueren antolatzaileak ezarritako baldintzak betetzen ez dituzten pertsoneri sarrera galaraztea, onarpen eskubideari jarraikiz;
- c) ixteko muga-ordutik aurrera, edota, hala dagokionean, jendaurreko ikuskizuna edo jolas jarduera hasi ostean, ikus-entzuleei sartzen ez uztea, baldintza espezifikoei jarraikiz;
- d) bertaratutakoek sarrera edo jarlekua erosten dutela kontrolatzea, hala dagokionean;
- e) adingabeen sarrera-mugei buruzko araua betearaztea, eta, horretarako, sartu nahi duten pertsonen adina egiaztatzea, nortasun-agiri ofizialak erakutsaraziz;
- f) baimendutako gehieneko edukiera inoiz ere gainditzen ez dela kontrolatzea eta, ondorioz, ikus entzule gehiagori sartzen ez uztea;
- g) segurtasun-zaindariei berehala jakinaraztea, halakorik balitz, sarreretan gertatzen diren asalduren inguruan; segurtasun pribatuko ikuskaririk ez balitz, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia Kidegoak ipini beharko dituzte jakinaren gainean berehala, haien eskumenen esparruan;
- h) funtzio horiek egiten dituzten pertsoneri ikuskaritza edo arauzko kontrolak erraztea;
- i) aniztasun funtzionala duten pertsoneri sartzen laguntzea, lokaletara edo instalazioetara sartzeko baldintza orokorrak betetzen dituztenean;
- j) jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera lokalaren edo instalazioaren barruan egiten dela ziurtatzea, ohartaraziz debekatuta dagoela kontsumizioak aldean dituztela bide publikora irtetea;
- k) ate bikoitzeko atondo akustikoen behar bezala funtzionatzen dutela zaintzea;
- l) sarrera mugatze orokorreko kasuren batean dauden pertsoneri lokalean edo instalazioan sartzen ez uztea.

64. Artikulua.- Onarpen zerbitzuko langileen egitekoen zehaztapena eta egikaritza

1.- Onarpen-zerbitzuetako langileek txartel batekin identifikatu beharko dute, honako idazki hau dutela: «Personal de servicio de admisión/ Sarrera zerbitzuko langilea». Txartelean, gutxienez, langilearen argazkia, izena eta abizenak agertuko beharko dira. Txartela erabat ikusteko moduan eraman beharko du, eta ezingo du estalita eduki arrokekin edo osagarriekin.

2.- Euren funtzioak betetzen ari direla, langileok ezingo dute modu arbitrarioan jokatu eta errespetuz jardun beharko dute pertsonen eskubideekin eta askatasunekin; ezingo dute alkoholdun edaririk hartu, ezta drogarik eta substantzia toxiko edo psikotropikorik ere; ezingo dute armarik izan aldean eta ezingo dute, era berean, segurtasun pribatuko langileetarako ezarritako funtziorik bete.

3.- Jarduera edo ikuskizun batean asaldurak gertatuko balira, esandako langileek berehala jakinarazi beharko diete segurtasun-zaindariei, edota, Euskal Autonomia Erkidegoko Polizia kidegoei, hala dagokionean.

65. Artikulua.- Onarpen-zerbitzuko langileen gaikuntza

1.- Onarpen-zerbitzuko langileek funtzio horietarako berariazko gaikuntza eduki beharko dute, ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak emanda.

Dena den, onarpen-zerbitzuen egitekoetarako gaikuntza bereziak ere aitortuko dira, dela autonomia-erkidego honetakoak edo beste batzuetakoak, Estatukoak edota Europar Batasuneko beste botere publiko batzuetakoak.

2.- Ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak aldian-aldian gaikuntza-probak antolatuko ditu Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratutako ebazpen bidez; proba horietan, teoria- eta praktika-moduluei buruzko azterketa bat eta test psikotekniko bat egingo dira.

3.- Proba horietara aurkezteko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) adinez nagusia izatea;
- b) Europar Batasuneko estatu kideren bateko herritartasuna izatea edota dagokion bizileku- eta lan-baimena edukitzea;
- c) aurrekari penalik ez izatea edota ezereztu direla egiaztatzea;
- d) Indar Armaturen edo Segurtasun Indar eta Kidegoen zerbitzutik kentzeko zehapena jaso gabe egotea, segurtasun pribatuko langile gisa jarduteko gaikuntza behin betiko erretiratuta ez edukitzea, edota aurreko hiru urteetan gaikuntza erretiratuta ez edukitzea.
- e) gutxienez honako titulu hauetatik bat edukitzea: lehen-mailako ikasketen ziurtagiria, eskola-graduatu, derrigorrezko bigarren hezkuntzako graduatu edo erdi-mailako lanbide heziketa, hezkuntza-administrazioak homologatuta.

4.- Ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak txartel profesional bat emango die gaitutako pertsoniei.

66. Artikulua.- Onarpen zerbitzuko langileen erregistroa

1.- Ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak erregistro bat izango du; erregistro horretan, gutxienez, honako informazio hau jasoko du:

- a) pertsonaren identifikazio-datuak;
- b) gaikuntza-data, eta, hala dagokionean, ezeztatzearena;
- c) egindako arau-hauste administratiboak eta ezarritako zehapenak.

2.- Ikuskizunen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritza izango da fitxategiaren arduradun datu pertsonalak babesteko araudi erregulatzailean aurreikusitako ondoretarako; halaber, haren aurrean egikaritu ahal izango dira datuak

eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak, epaitegietan egikari daitezkeen eskubideei kalterik egin gabe.

3.- Erregistro horretan jasotako datuak ezin zaizkie hirugarrenei laga. Ikuskizunen arloan eskumena duten administrazioei baino ezin izango zaizkie laga haien eskumenak egikari dizaten, beti ere datu pertsonalak babesteko legeak aurreikusitako kasuetan. Datuok estatistika ikerketak egiteko erabil daitezke, modu despertsonalizatuan.

67. Artikulua.- Gaikuntzaren ezeztapena

1.- Gaikuntza honako arrazoi hauek direla eta kendu liteke, aldez aurretik interesdunari entzun ostean:

- a) pertsonen, ondarearen edo osasun publikoaren kontrako delituengatik kondena penal irmoa; posible da beste gaikuntza bat eskuratzea, aurreko gaikuntza ezereztea eragin zuten aurrekari penalak ezeztatu ostean;
- b) Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren legearen zehapen administratibo irmoa falta astunak edo oso astunak egin izanagatik, urtebeteko epean, dagozkion funtzioak betetzearekin loturik;
- c) gaikuntza eskuratzeko eskatutako betekizunak gerora ez betetzea;
- d) ikuskatze-funtzioari traba egitea;
- e) onarpen-zerbitzu espezifikoko funtzioetan jarduteko egiaztatuko pertsonen indarkeriazko portaera argia izatea;
- f) aurreko zenbakietan aurreikusitakoari kalterik egin gabe, onarpen-zerbitzuari dagozkion funtzioetan jardunbide desegokiak argi eta garbi gertatzen direnean.

2.- Ezeztapenak txartel profesionala erretiratzea ekarriko du, eta jakinarazi eta hamar eguneko epearen barruan entregatu beharko dio ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzari.

Hirugarren atala.- Segurtasun pribatuko zerbitzuak

68. Artikulua.- Obligazioa

1.- Segurtasun-zaindarien zerbitzua nahitaez izan beharko dute, ekitaldietan burutu litezkeen delitu egintzak prebenitzeko edo gerta litezkeen arrisku egoerak saihesteko, honako establezimendu, ikuskizun edo jolas jarduera hauek:

- a) araubide bereziko establezimenduek;
- b) 700 lagunetik gorako edukiera duten ikuskizun publiko eta jolas-jarduerak egiteko establezimendu publikoek;
- c) 700 laguneko baino gehiagoko edukiera duten establezimendu edo esparruetan egiten diren aldian behingo jendaurreko ikuskizunek eta jolas-jarduerak;
- d) baimena eskuratzeko segurtasun-memoria aurkeztu beharra daukaten aldian behingo jendaurreko ikuskizunek eta jolas jarduerak;
- e) hainbat lokal edo instalazio biltzen dituzten gune itxi eta mugatu jakinek, bereizita segurtasun pribatuaren beharrik ez dutenak, baldin eta haien guztien edukieraren batura 700 lagun baino handiagoa bada.

2.- Ertzaintzaren Zuzendaritzak, ofizioz edo ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzaren eskariz, ebatz dezake segurtasun pribatuko zerbitzuak jartzea bestelako establezimendutan, jendaurreko ikuskizunetan edo jolas jardueretan, duten arruisku maila kontuan hartuta.

69. Artikulua.- Salbuespena

Ez dute segurtasun pribatuko zerbitzurik eduki beharrik izango lurraldeetako administrazio publikoek antolatutako jendaurreko ikuskizunek eta jolas-jarduerak, baldin eta dagokien polizia kidegoek erabiltzaileen segurtasuna modu presentzialean, proportzionalen eta egokian bermatzen badute ekitaldiok iraun bitartean.

70. Artikulua.- Dotazioa

1.- Segurtasun zerbitzua eta zerbitzua emango duten segurtasun pribatuko langileak proportzionalak izango dira, eta funtzionamendu ordutegiak iraun bitartean zaindu beharreko pertsonak eta ondasunak babesteko egokiak. Kontratua formalizatu aurretik, segurtasun zerbitzua bere gain hartuko duen segurtasun enpresak bere erantzukizunpean egiaztatuko beharko du zerbitzua emateko gaitasun nahikoa duela, estali beharreko arriskuak kontuan izanik.

2.- Lizentzia- edo baimen eskaerarekin batera segurtasun memoria aurkeztu beharra daukanean, establezimenduaren titularrak zehaztu beharko du establezimenduak edo esparruak zenbat dotazio behar dituen. Nolanahi ere, gero, beharrezkoak diren zuzenketak aurkezteko aukera izango du, segurtasun-enpresarekin sinatutako ikuskaritza zerbitzuarekin batera.

71. Artikulua.- Bateriaezintasuna

Segurtasun pribatuko langileek ezingo dituzte beren eginkizunak bateratu sarrera-zerbitzuko langileenekin. Hala ere, azken horien eginkizunak bete ahalko dituzte segurtasun-zaindari gisa lan egiten ez dabiltzanean.

72. Artikulua.- Ikuskaritza

Segurtasun-enpresarekin sinatutako ikuskaritza zerbitzuaren kontratuak eskura egon beharko du jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak egiten diren lokaletan eta instalazioetan.

Laugarren atala.- Aretozaintza eta ebakuazioa

73. Artikulua.- Aretozaintza eta ebakuazioa

1.- Antolatzailearen erantzukizuna izango da behar beste langile izatea jardueraren ikus-entzuleak edo erabiltzaileak banatzeko eta jesartzeko, pertsona horiek ikuskizuna osorik gozatu ahal izan dezaten, segurtasun- eta erosotasun-baldintza bikainetan.

74. Artikulua.- Aretozaintzako eta ebakuazioko langileak

1.- Autobabes-plana nahitaez eduki behar duten establezimenduetan, ikuskizunetan eta jardueretan, ebakuaziorako laguntzaileak izan beharko dira, eta esku-hartze taldean bildurik eta esandako autobabes-planaren arduradunaren agintepean, hura modu efikazean gara dadin arduratuko dira, larrialdi-ebakuazioren bat beharrezko izanez gero.

2.- Autobabes-planak zehaztu behar du zenbat lagun arduratuko diren ebakuazio-laguntzaile izateaz, jardueraren ezaugarriei, edukierari eta ekitaldiak dituen gainerako inguruabarrei erantzunez. Kasu guztietan, 700 pertsonako baino gehiagoko edukiera duten establezimenduetan, ikuskizunetan edo jolas-jardueretan, gutxienez laguntzaile bat izan beharko da ebakuazio-bide bakoitzeko.

75. Artikulua.- Aniztasun funtzionala duten pertsonak kokatzea

1.- Titularrek edo antolatzaileek erraztu behar dute aniztasun funtzionala duten pertsonen sarrera eta gozamina ikuskizun eta jolas-jardueretan, irisgarritasunari buruzko araudiari jarraikiz.

2.- Era berean, laguntza-txakurrak ere baimendu behar dituzte, aniztasun funtzionala duten pertsonak artatzeko laguntza-txakurrei buruzko araudiak dioenarekin bat.

Bosgarren atala.- Lehen sorospena eta osasun laguntza

76. Artikulua.- Botikina

1.- 700 lagunetik beherako jendaurreko ikuskizun, jolas-jarduera eta establezimendu publiko guztiek oinarritzko botikina izan behar dute, behar bezala seinalizatua. Botikinak suerta litezkeen ezbeharrei aurre egiteko dotazio egokia izango du.

2.- Botikinak, gutxienez, honako hauek izango ditu: baimendutako desinfektatzaile eta antiseptikoak, gaza esterilak, kotoi hidrofiloa, benda, esparatrapua, apositu itsasgarriak, artaziak, pintzak eta behin erabiltzeko eskularruak. Aldian behin material hori berrikusi behar da, eta iraungi bezain laster edo erabili ostean berriztuko da.

77. Artikulua.- Lehen sorospena emateko gela

1.- 301 eta 700 lagun bitarteko edukiera duten jendaurreko ikuskizunetan, jolas jardueretan eta establezimendu publikoetan, gainera, lehen sorospena eta behar litekeen bestelako osasun laguntza emateko leku bat egokituko da. Era berean, lehen sorospeneko ezagutzak dituen pertsona bat izango dute establezimendua irekita dagoen bitartean edo jarduera burutzen den bitartean.

2.- Lehen sorospenak emateko egokitutako lekua behar bezala adierazia egon behar da.

78. Artikulua.- Desfibriladoreak

700 lagunetik gorako edukiera duten jendaurreko ikuskizunek, jolas-jarduerek eta establezimenduek, aurreko paragrafoetan xedatutakoa ez ezik desibriladore bat ere izan beharko dute, kanpo desfibriladore automatiko eta erdiautomatikoen ezarpena eta erabilera arautzen dituen, eta haiek osasun-esparrutik kanpoko erabilera publikoko gune jakin batzuetan jartzea beharrezkoa dela xedatzen duen urtarrilaren 27ko 9/2015 Dekretuan ezarritakoari jarraiki.

79. Artikulua.- Erizaintza zerbitzua

Haien ezaugarriak direla-eta arau ezpezifikoak dituzten jendaurreko ikuskizunei eta jolas jardueri kalterik egin gabe, jendaurreko ikuskizun edo jolas jarduera bat egiten den 2.000 laguneko edo hortik gorako edukiera duten establezimendu publikoek, lokalek edo esparru mugatuek erizaintza zerbitzua eskaini behar dute. Zerbitzu horrek, gutxienez, erizaintzako gradu titulua (ATS edo DUE) duen pertsona bat izango du, baita II. eranskinean eskatutako gutxieneko dotazioa ere. Edukiera 5.000 lagunetik gorakoa bada, berriz, gutxieneko dotazioak, gutxienez medikuntzako titulua duen pertsona bat izatea eskatuko du.

80. Artikulua.- Anbulantziak

Aurreko paragrafoan aurreikusitako erizaindegiaren ordezkari botikina eta anbulantziak jar daitezke, baldin eta betekizun hauek betetzen badira:

- a) edukiera 2.000 lagunetik 5.000 lagunera bitartekoa bada, B motako anbulantzia bat jar daiteke
- b) Edukiera 5.000 lagunetik gorakoa bada, bi anbulantzia jar daitezke; bata, garraiorakoa, eta bestea, C motakoa, medikuntzako titulua duen pertsona batekin
- c) Anbulantziek etengabe erabilgarri egon behar dute ikuskizuna hasi edo jarduera ireki baino ordu bete lehenagotik erabat amaitu edo ixten den arte
- d) Anbulantzia batez estalitako jarduera batean anbulantziak ebakuazio bat egin behar badu beste dotazio bat jarriko da berehala.
Beste dotazio hori heldu bitartean, lehen sorospenetan ezagutzak dituen pertsona bat egongo da. Adierazitako giza baliabide hori izan ezean, edo ordu erdiren buruan alde egin behar izan duen dotazioaren ordezkari beste bat jarri ez bada, ikuskizuna edo jarduera bertan behera utzi eta lokala hustuko da.

81. artikulua.- Osasun laguntza edukiera handiko ekitaldietan

Jendaurreko ikuskizunek, jolas jarduerak eta establezimenduek 10.000 lagunetik gorako edukiera badute, lizentziak edo baimenak aparteko baldintzak edo dotazio gehigarriak ezarri ahal izango ditu. Eskatzaileak eskatutako osasun dotazioei buruzko azterlana aurkeztu beharko du, jardueraren ezaugarriak, non egingo den eta izango duen edukiera kontuan hartuz.

Seigarren atala.- Aseguruak

82. Artikulua.- Erantzukizun zibileko aseguruak

1.- Establezimendu publikoetako titularrek eta ikuskizun eta jardueren antolatzaileek aseguru kontratu bat izenpetu beharko dute bertaratutako jendeari eta hirugarrenei gerta dakizkiekeen kalteen erantzukizun zibila estaltzeko, hain zuzen ere jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren gaineko erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituen martxoaren 25eko 44/2014 Dekretuan zehazten diren estaldura eta zenbatekoek.

2.- Erantzukizun zibileko aseguruaren kontratazioa administrazio publikoei egiaztatu behar zaie, ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak ebazpen bidez zehazten dituen ereduaren arabera egiaztatuta.

Zazpigarren atala.- Boluntariotza

83. Artikulua.- Boluntarioen lankidetzaren antolaketa

1.- Kirol-, kultura- eta gizarte-interesa duten jendaurreko ikuskizunetan eta jolas-jardueretan, boluntarioek ikusleei eta erabiltzaileei informazioa eta asistentzia emateko lanak egin ahal izango dituzte, baita antolatzaileei eta agintariei laguntza ematekoak ere.

2.- Halaber, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren antolatzaileekin lankidetzaren eginkizunetan jardun ahal izango dute boluntariotza-programetan edo boluntariotza erakundeetan parte hartzen ez duten bestelako lagunek ere, indibidualki, irabazi asmorik gabe, ongintza xedez, edo auzolanean, jendaurreko ikuskizun eta jolas jardueraren horiek irabazi asmorik gabe edo ongintza xedez antolatzen badira.

3.- Aurreko paragrafoetan adierazitako lankidetzak ezin ditu segurtasun pribatuko zerbitzuei dagozkien eginkizunak bere gain hartu, edo nahitaezkoa denean, gaitutako langileek ematen dituzten edukiera kontrolatzeko zerbitzuei dagozkienak.

84. Artikulua.- Boluntarioen lankidetzaren kudeaketa

1.- Jendaurreko ikuskizunaren edo jolas jardueraren antolatzaileak esku hartzen duten boluntarioen kudeaketa egokia bermatu beharko du. Horretarako, idatziz izenpetu beharko du boluntarioen antolakuntzarekin hartutako konpromisoa.

2.- Kirol, kultur eta gizarte intereseko jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak antolatzen dituzten kirol federazioek, fundazioek edo irabazi asmorik gabeko elkarteek ekitaldi horietarako boluntariotza programak garatu ahal izango dituzte, eta programa horietan boluntarioak integratu ahal izango dituzte, boluntariotzari buruzko arauketan aurreikusitako baldintza eta eskakizunekin.

3.- Irabazi asmorik gabe edo ongintza izaerarekin antolatutako jendaurreko ikuskizunekin eta jolas jarduerekin indibidualki, irabazi asmorik gabe edo ongintza xedez konprometitutako bestelako pertsonen kasuan, konpromiso hori idatziz formalizatuko da, bi alderdiak izenpetuta; agiri horretan bi alderdiek euren gain hartzen

dituzten betebeharrak zehaztuko dira, baita lankidetzan jardungo den boluntarioaren eskubideak.

85. Artikulua.- Eskubideak eta eginbeharrak

Boluntarioen eskubideak eta eginbeharrak boluntarioei aplikatzen zaien legerian zehaztutakoak dira. Edonola ere, ikuskizun edo jolas jarduera bat antolatzeari dagokionez, eginbehar hauek izango dituzte:

- a) 18 urte baino gehiago izatea, laguntzaile moduan parte hartuko duten jendaurreko ikuskizunaren edo jolas jardueraren ezaugarriek hala eskatzen badute
- b) jendaurreko ikuskizunaren edo jolas jardueraren antolatzailearekin hartutako konpromisoak betetzea, xedek eta araudia errespetatuta;
- c) agindutako egitekoak betetzean arduraz jokatzeko eta antolakuntzako arduradunek emandako argibideei jarraitzea;
- d) boluntario jardutean jasotako eta jakindako informazioaren konfidentzialtasuna gordetzea;
- e) bere jardueraren hartzaile diren pertsonen eskubideak errespetatzea;
- f) eskura ipintzen dizkioten baliabide materialak zaintzea;
- g) hartutako segurtasun- eta higiene-neurriak behatzea.

86. Artikulua.- Bermeak

Jendaurreko ikuskizunen edo jolas jardueren antolatzaileek honako berme hauek eman beharko dizkiete, beti, horietan parte hartzen duten boluntarioei:

- a) Burutuko dituzten funtzio eta egitekoetara egokitutako formakuntza edo prestakuntza
- b) Istripuen aurrean aseguratuta daudela edo hirugarrenetik erantzukizun zibileko aseguruia dutela, boluntariotza programak edo antolakuntzak zehaztutako baldintzetan. Istripuei aurre egiteko aseguruak, gutxienez, 100.000 euroko estaldura izango du.
- c) Idatziz informatzea haien egitekoen eta eginbeharren gainean, eskubideen eta betebeharren gainean, eta indarrean diren segurtasun- eta higiene neurrien gainean nahiz hartu beharrekoen gainean
- d) Soldatapeko langileek laneko segurtasunaren arloan osasunaren prebentziorako dituzten osasun baldintzen baliokideak dituztela
- e) jarduera gauzatzean izandako gastuengatik konpentsazio ekonomiko bat jasotzea boluntariotza programaren edo -antolakuntzaren aldetik, baldin eta hala ezarri baldin bada boluntarioaren eta erakundearen artean adostutako baldintzetan, betiere esandako akordioan aurreikusitako mugen barruan;

VIII. KAPITULUA.- ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEN GAIKUNTZA TITULUAK

Lehenengo atala.- Arau orokorrak

87. Artikulua.- Gaikuntza-titulua

Jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas jardueretarako establezimendu publikoak irekitzeko, gaikuntza-titulua lortu behar da, dela jarduera sailkatuaren lizentzia, dela aldez aurreko jakinarazpena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Legean (otsailaren 27ko 3/1998), Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legean, eta erregelamendu honetan aurreikusten denaren arabera.

88. Artikulua.- Gaitutako jarduerak

1.- Jarduera sailkatuaren lizentziak edo aldez aurreko jakinarazpenak gaitu egiten du establezimendu mota bakoitzari dagozkion edo gaikuntza-titulu horretan jasotzen diren ikuskizun eta jarduerak garatzeko.

2.- Gaikuntza-tituluan, argi eta garbi jaso behar da zer establezimendu mota den jendaurreko ikuskizunetarako eta jolas-jardueretarako katalogoan bilduta daudenen artetik; era berean, egin beharreko jarduera guztiak zehaztu behar dira, edukiera eta guzti, eraikin edo gela bakoitzari dagozkionak bereizita, baldin eta bereizita erabiltzeko espazioak baldin badira.

3.- Establezimendu bera hainbat jardueretarako baliatu ahal izango da, ordutegiari, dotazioei zein bertarutzen den publikoari dagokionez, betiere aldi berean gauzatzen ez badira eta lizentzian edo aldez aurreko jakinarazpenean horren berri jasota badago.

89. Artikulua.- Jarduera-lizentzia

Jarduera lizentzia lortu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Legean (otsailaren 27ko 3/1998) zehaztutako kasuetan, eta lizentzia hori esandako lege horretan, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren legean (abenduaren 23ko 10/2015), eta araudi honetan ezarritako eskakizunen arabera arautuko da.

90. Artikulua.- Ikuskizunetan eskumena duen Zuzendaritzaren txostena

1.- Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legearen 26. artikuluan zehaztutako kasuetan, jarduera-lizentzia eskatu eta gehienez ere 15 egunen barruan emango dizkio udalak proiektu teknikoa eta espedienteko gainerako dokumentuak ikuskizunen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzari.

2. Ikuskizunen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak dokumentazioa jaso eta gehienez ere hilabeteren barruan emango du txostena.

3.- Ikuskizunen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren txostenak segurtasun- eta osasungarritasun-baldintzak betetzeari erreparatuko dio, bereziki honako alderdi hauetan:

- a) gehienezko edukiera eta hura zehazteko irizpideak;
- b) segurtasun- eta ebakuazio-baldintzak langileentzat, ikus-entzuleentzat, erabiltzaileentzat eta exekutatzaileentzat;
- c) Suteen aurkako prebentzioa eta babesa, baita jarduerari datxezkion arriskuena ere, kanpotiko laguntzaren baliabideen irisgarritasuna ahalbidetuz
- d) instalazio elektriko baldintzak eta bermeak jendeari irekitako lokaletan, beste erakunde batzuen eskumena ez den alorretan eta haien berri nahitaez eman beharra denean;
- e) egituren sendotasuna;
- f) osasungarritasun- eta higiene-baldintzak;
- g) aniztasun funtzionala duten pertsonentzako irisgarritasun- eta gozamen baldintzak;
- h) autobabesari buruzko arauketa betetzea

4.- Txostenean, eska litezkeen zuzenketa-neurriak bildu ahal izango dira arrazoituta, eta udalak jakinaraziko dizkio interesdunari. Zuzenketa neurriak lotesleak izango dira, eta jarduera-lizentzia emateko ebazpenean jasoko dira baldintza berberetan.

91. Artikulua.- Udalerriak eman beharreko informazioa

1.- Ikuskizunen arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzaren txosten hori nahitaezkoa denean, udalak Eusko Jaurlaritzari jakinaraziko dizkio emandako jarduera-lizentzia, obraren azken ziurtagiria eta establezimenduaren irekiera-jakinarazpena, baita irekierarekin eta ezarritako zuzenketa-neurriak betetzearekin lotutako bestelako gertakariak ere.

2.- Era berean, txostenak zuzenketa-neurriak ezartzen dituenean, eman ez izanaren kasuak jakinaraziko dizkio eta lizentziari buruzko berariazko ebazpena jakinaraziko epearen barruan, prozedura ebazteko obligazioari kalterik egin gabe.

92. Artikulua.- Jarduera sailkatuaren alde aurreko jakinarazpena

Jarduera sailkatuen alde aurreko jakinarazpenetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko Lege Orokorraren Lege orokorraren arabera (otsailaren 27ko 3/1998) aurkeztu beharreko dokumentazioa ez ezik, honako hauek ere aurkeztu beharko ditu establezimenduaren edo jardueraren titularrak:

- a) aseguru-kontratua sinatu dela egiaztatzen duen ziurtagiria, jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren gaineko aseguruak arautzen dituen arauketa ezarritako moduan;
- b) autobabesari buruzko arautegiaren arabera entregatu behar den dokumentazioa.

Bigarren atala.- Arau espezifikoak

93. Artikulua.- Udal-titulartasuneko establezimenduak

1.- Udal-titulartasuneko establezimendu publikoen kasuan, udalek ikuskizunen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzari txostena eskatu beharko diote,

Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren Legearen 26. artikulua zehazten duen kasu berberetan.

2.- Esandako txostena eskatzeko eta emateko, Zuzendaritza horren nahitaezko txostenerako xedatutakoa beteko da, jarduera-lizentzia lortzeko prozedurei begira.

3.- Udalak ikuskizunen alorrean eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzari dokumentu ofizial bat helaraziko dio, baimendutako jarduerak zehaztuta, edukiera totala eta eraikin, gela edo jarduera guztiena banakatuta, baita jarduera lizentziaren gainerako eduki guztiak adierazita ere. Halaber, establezimenduaren irekieraren berri emango dio, baita establezimenduaren irekierarekin edota ez irekitzearekin lotutako bestelako gertakarien berri ere; era berean, ezarritako zuzenketa-neurriak betetzea ere jakinaraziko dio.

94. Artikulua.- Bi funtzionamendu-mailako establezimenduak

1.- Gaikuntza-tituluan aurreikusitako gehieneko edukiera baino jarduera nabarmen txikiagoa izan ohi duten establezimenduek bi funtzionamendu maila horiek aurreikusi ahal izango dituzte autobabes-planean; hala, bi mailetan ebakuazio-bideak eta haien seinaleztapenak planarekin bat eta egokiro egingo dira.

2.- Edukieraren arabera eska litezkeen osasun-, higiene- eta segurtasun-dotazioen betebeharrak proportzionatuak izango dira funtzionamendu-maila bakoitzerako aurreikusitako edukierarekin.

3.- Bi funtzionamendu-mailak izatearen froga titularrari dagokio; hala ere, establezimenduaren gaikuntza-tituluan ere zehaztu ahal izango da.

95. Artikulua.- Ludotekak

1.- Ludotekatzat hartuko dira haurren aisialdirako gaitutako lokalak, modu ohikoan edo profesionalean, bertako erabiltzaileentzako jolasak eta atrakzioak dituztenak.

Inola ere ez dira haurrak hezteko eta aldi baterako zaintzeko eta gordetzeko jarduerak aurreikusiko, ezta matrikula edo hileko zenbateko bat ordaintzea eskatzen duten jarduerak ere. Era berean, ludoteka bateko jarduerak ezingo dira hezkuntzarekin lotuak izan, eta ez dira ikastetxeen araudi erregulatuaren mende egongo.

2. Jarduera-proiektuaren edukitik ondorioztatzen denean haren egiazko xedea haurreskola bat edo haur-hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe bat sortzea dela, espedientea hezkuntzaren alorreko eskumena duen Sailari helaraziko zaio egoki diren ondoretarako, interesdunari aldezturik jakinarazita.

3.- Lokalean izango diren haur-jokoak argi eta garbi jasota geratuko dira gaikuntza-titulua ematean, eta beti bete beharko dute aplikagarri zaien araudia, nahitaezko homologazio-dokumentua izan beharko dute eta ezingo dituzte izan erabiltzaileei lesioak eragiteko moduko akaberak.

4.- Atrakzioek erabilerari buruzko informazio kartelak izango dituzte, erabileraren eta erabiltzaileen adinari buruzko berriazko jarraibideekin.

5.- Ludotekek, era berean, jokoan sarrera eta funtzionamendua kontrolatuko dituzten langileak izango dituzte, eta aurreko alderdiei buruzko informazioa eman beharko diete gurasoei edo tutoreei, adingabearen adinak hala eskatzen duenean. Langile horiek aplikagarri den araudiak eskatutako prestakuntza izan beharko dute.

6.- Ludoteken edukiera honako arau hauen arabera zehaztuko da:

- a) oro har, pertsona bat bi metro koadroko;
- b) ostalaritza-zerbitzua ezartzen denean, hark hartutako tokiaren edukiera Eraikingintzako Kode Teknikoan eta erregelamendu honetan oro har ezartzen dituen irizpideen arabera zehaztuko da;
- c) atrakzioak edo haurrentzako jolas bereziak instalatzen direnean, homologazio-dokumentuan ezarritako edukiera izango dute.

96. Artikulua.- Sexu-zerbitzuak ematen dituzten establezimenduak

1.- Sexu-jardueretara bideratutako establezimenduek, jendeari irekiek, honako betekizun hauek bete beharko dituzte:

- a) Lokalek bide publikotik zuzenean izan behar dute sarbidea, eta gune erreserbatuetako sarrera lokalaren barrutik egin behar da
- b) osasunaren alorreko araudi espezifikoan jasotako higiene- eta osasungarritasun-baldintzak bete beharko dituzte
- c) Lokal horietan, erabiltzaileek preserbatiboak eta latexezko barrerak eskuratzeko modua bermatu beharko da, behar bezala homologatuak eta indarraldia iraungi gabe dutela; pertsonalki emanda zein banatzeko makinaren bidez eskuratu ahal izango dira
- d) Lokalen barrualdean, erabiltzaileek ondo ikusteko moduko tokian, errotulu bat ipini beharko da sexu transmisio gaixotasunak prebenitzeko elementu profilaktikoak erabiltzea gomendatuz.
- e) Debekatuta dago lokalotan adingabeak sartzea, eta hala jakinaraziko da karteletan, kanpoaldetik argi eta garbi ikusteko moduan
- f) udal-ordenantzetan edota aplikagarri zaizkien hirigintza-araudian ezarritako gainerako eskakizunak ere.

Hirugarren atala.- Araubide bereziko establezimenduak

97. Artikulua.- Araubide bereziko establezimendu motak

1.- Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 15.4 artikuluan xedatitakoaren ondorioetarako, araubide bereziko establezimendu publiko izango dira honako hauek:

- a) dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak eta ostalaritzakoak, ordutegien 4. taldeari dagozkionak eta 300 pertsona baino edukiera handiagoa dutenak
- b) Prostituzio jarduerara dedikatzen diren establezimenduak jendeari irekiak

98. Artikulua.- Eska dakizkiekeen baldintzak

1.- Bizileku-eremuetan eta jarduera sozial zein kulturaletan ahalik eta inpaktu txikiena izateko eta eragindako pertsonen segurtasuna eta osasuna prebenitzeko, araubide bereziko establezimendu publikoak:

- a) Ezingo dira egon osasungintza-ekipamendua erabilera nagusi duten higiezinetatik 200 metrora baino gutxiagora, ezta irakaskuntza arautuko ikastetxeetatik edota hirugarren adineko zahar etxeetatik distantzia horretara baino gutxiagora ere. Udalerriek, toki-ordenantzen bidez, gutxieneko distantziak ezarri ahal izango dituzte araubide bereziko establezimendu horietatik bizitegi-erabilerarako diren eraikin eta orubeetara.
- b) Establezimenduak ikus-entzuleei eta inguruari segurtasunaren, osasunaren eta bizikidetzaren alorrean eragin diezazkiokeen arriskuak ebaluatzeko segurtasun-memoria bat egin beharko dute, eta prebentzio-neurriak hartu, baita segurtasun dispositiboak eta esku hartzeko protokoloak ezarri ere, segurtasun-zerbitzu pribatuekin eta Ertzaintzarekin, udaltzaingoekin eta SOS DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroekin bizkor eta modu efizientean harremanetan jartzeko. Esandako memoria jardueraz lizentziaren eskaerarekin aurkeztuko da.
- c) Segurtasun-zaindarien zerbitzua izatera behartuta egongo dira erregelamendu honetan aurreikusitako baldintzetan.
- d) Pertsonak bitarteko elektronikoen bidez zenbatzeko sistemak izango dituzte, edozer dela ere edukiera.

2.- Prostituzio jarduerara dedikatzen diren establezimendu publikoek, sexu zerbitzuak ematen dituzten establezimendu eta araubide bereziko establezimendu diren aldetik eskagarri zaizkien betekizunez gain, aldagela- eta atseden-eremu bat izan beharko dituzte prostituzioan jarduten duten pertsonentzat. Gune hori ezingo da beste xede batzuetarako erabili, hala nola pertsona horiek gaua igarotzeko edo bizitzeko.

99. Artikulua.- Ikuskizunetan eskumena duen Zuzendaritzaren txostena

1.- Jarduera-lizentzia eskuratzeko prozeduraren barruan, udalak ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzaren nahitaezko txostena jasoko du. Esandako txostena eskatzeko eta emateko Dekretu honen 90. artikuluan zehaztutakoari jarraituko zaio.

2.- Ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak Ertzaintzaren Zuzendaritzari helaraziko dio eskatzaileak aurkeztutako segurtasun-memoria; hala, Ertzaintzaren Zuzendaritzak herritarren segurtasunean izango den inpaktuaren berri emango du, beharrezko izanez gero. Ohartarazpen horiek ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak helaraziko dizkio udalari, txostenarekin batera.

IX.KAPITULUA.- ALDI BATEKO INSTALAZIOEN GAIKUNTZA TITULUAK

100. Artikulua.- Aldi bateko instalazioak

1.- Aldi bateko instalazioek –ez-iraunkorrek, behin behinekoek edo eramangarriek– egokitasuna, segurtasuna eta sendotasuna egiaztatzeko dokumentazioa izan beharko dute, baita behar bezala muntatzekoa ere.

2.- Ez dute segurtasuna, sendotasuna eta muntaketa ziurtagirik izan beharko, ezta udal baimenik edo -lizentziarik ere, agertokiek, oholtzek eta tankerakoek, baldin eta haien azalera ez baldin bada 10 m² baino handiagoa eta zorutik hasita 0,5 m baino garaiagoa ez bada.

Lehenengo atala.- Ikus-entzuleak hartzeko aldi bateko instalazioak.

101. Artikulua.- Betekizunak

1.- Jendea hartzea xede duten behin-behineko instalazioek, establezimendu publiko baten barruan instalatuek edo espazio ireki batean ipiniek aplikagarri zaien araudiak ezarritako segurtasun-, higiene- eta erosotasun-baldintzak bete beharko dituzte. Zehazkiago esateko:

- a) ikus-entzuleentzako segurtasun-neurriak, jendeari irekitako lokalen segurtasunaren alorrean indarrean den araudian zehaztutakoak;
- b) Eraikingintzako Kode Teknikoko suteen kontrako oinarrizko dokumentuan (DB-SI) eta erabilera segurtasunari buruzko oinarrizko dokumentuan (DB-SU) aurreikusitako neurriak ebakuazioarekin lotuta, gutxienez perimetroaren 2/3 itxita daukaten instalazioetan edota, perimetroaren 2/3 baino gutxiago eta 1/2 baino gehiago mugatuta edukirik, gutxienez 2.500 m²-ko azalera dutenak; hala, behin-behineko instalazio horiek barrutizat hartuko dira, legearen 33.3 artikuluan ezarritako ondoretarako;
- c) Arau honetan aurreikusitakoa: UNE-EN 13782:2016 Behin behineko egiturak. Karpak. Segurtasuna.
- d) jardueraren ezaugarri bereziak direla-eta irteera olandan bertan edota itxiturako toldo bertikalean irekitako tarte batetik barrena baldin bada, seinaleztatuta ipini beharko da, bizkor biltzeko sistema bat izan beharko du eta ezingo du izan euskarri-elementu bertikalik igarotzeko hutsartean; edonola ere, hutsarte horiek irekitzeko langileak izango dituzte, jendeari irteten laguntzeko;

d) autobabes-plan bat izatea, aplikagarri den autobabes-araudiak hala eskatzen duenean.

102. Artikulua.- Udal-baimena

- 1.- Aldi bateko instalazio horiek udal-lizentzia edo -baimena izan beharko dute.
- 2.- Instalatzeko eskaerarekin batera, arkitektoak, arkitekto teknikoak edota eskumena duen teknikari baliokideak sinatutako instalazio-proiektua izan beharko dute, segurtasun- eta higiene-neurriak jasota, guztia ere bermatuta gera dadin jarduerak ez diela eragingo arriskurik pertsoneri edota ondasunei. Era berean, autobabes-plana ere izan beharko dute, hala dagokionean.
- 3.- Udal-zerbitzu teknikoek aldi bateko instalazio horiek ikuskatuko dituzte ikuskizuna edo jarduera egin aurretik.
- 4.- Ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak baimentzeko moduko ikuskizun edo jolas-jarduera baterako aldi bateko instalazioen kasuan, esandako baimenak ordeztuko du udalaren esku-hartzea.

Bigarren atala.- Barrakak eta azoketako eremuak

103. Artikulua.- Barrakak eta azoketako atrakzioak

- 1.- Aldi bateko instalazio horietan elementu mekaniko zabalgarriak dituzten azoka atrakzioak ipintzean –hala nola karruselak, noriak, errusiar mendiak edo tankerakoak–, haietarako udal-baimenaren prozedura hasteko eskaerarekin batera dokumentazio hau aurkeztu beharko da:
 - a) dokumentazio teknikoa, egiaztatzen duena betetzen direla, gutxienez, atrakzioa deskribatzeko eta hura muntatu, mantendu, zaindu eta erabiltzeko jarraibideei buruzko segurtasun-baldintzak;
 - b) atrakzioaren urteko berrikuspen-ziurtagiria, eskumena duen teknikari tituludunak edo ikuskatze erakunde egiaztatuak egina, makineriari, azoketarako egiturei eta atrakzio parkei buruzko UNE EN 131814:2006 ziurtagiriarekin edo haren ordezkoko araudiarekin bat;
 - c) erantzukizun zibileko aseguruia kontratatu izanaren egiaztagiria, jolas jarduerak eta ikuskizun publikoak burutzeko eska daitezkeen erantzukizun zibileko aseguruak arautzen dituen dekretuak (martxoaren 25eko 44/2014) edo haren ordezkoko araudiak zehaztuta bezala;
 - d) behin-behineko instalazio elektrikoaren buletina;
 - e) fidantza ordaindu izanaren egiaztagiria;
 - f) muntaketaren segurtasun- eta sendotasun ziurtagiria, eskumena duen teknikari tituludunak edo ikuskatze-erakunde egiaztatuak egina.
- 2.- Baliteke baimena emateko muntaketaren segurtasun- eta sendotasun-ziurtagiria aurkeztu behar izatea; hura aurkeztu bitartean, ezingo da atrakzioa erabili.

3.- Fidantzaren zenbatekoa dagokion udalak zehaztuko du, eta haietako bakoitzerako gutxienekoa 1.000 euro izango da. Fidantza korporazioaren kutxan sortu ahal izango da, eskudirutan edota balio publiko zein pribatutan ordainduta, edo kauzio-adarrean operatzeko baimendutako aseguru-erakunde batekin egindako kauzio-aseguruaren edo abalaren bidez; kontratuaren ziurtagiria organo eskuesleari entregatu beharko zaio. Fidantza osorik edota haren zati bat atxikiz gero, beste bat sortu beharko da zenbateko osoarekin, edo osagai bat bestela, harik eta zenbateko galdagarria eskuratu arte.

104. Artikulua.- Azoketako eremuak

1.- Atrakzio-multzo bat horretarako berariaz ipinitako espazio batean instalatzen denean esparru bat osatuz, udalak baimenean argi eta garbi zehaztuko du haietako bakoitzak zer toki zehatz izango duen, atrakzioen arteko distantziak errespetatzeko, baita erabiltzaileak zirkulatzeko tartek zaintzeko ere.

2.- Udalak muntaketa osoa ikuskatuko du, eta atrakzio bakoitzarentzat zehaztutako tokirako ezarritako baldintzak betetzen direla zainduko du.

X. KAPITULUA.- IKUSKIZUNAK ETA JOLAS JARDUERAK EGITEKO GAIKUNTZA TITULUAK

105. artikulua.- Betekizunak

Jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko, eskakizun hauek bete behar dira:

- a) behar bezala identifikatutako pertsona edo erakundeen ardurapean deitu, antolatu eta egin behar dira, argi eta garbi zehaztuta nork zer erantzukizun duen, eta betiere Dekretu honek ezarritakoaren araberrako gaikuntza-titulu baten babespean;
- b) lokalek edo guneek segurtasun-, osasungarritasun- eta higiene-baldintzak bete behar dituzte, bai eta irisgarritasun unibertsalaren baldintzak ere;
- c) indarrean dagoen araudiak aurreikusiz gero, zaintzaileak eta sarbide-kontrolako langileak eduki behar dira;
- d) autobabes-plan bat eduki behar da, hala aurreikusten badu indarrean dagoen araudiak;
- e) dekretu honek gutxienekotzat jotako higiene- eta segurtasun-zerbitzuak eta osasun laguntzarako egiturak eduki behar dira;
- f) pertsonak kontatzeko eta edukiera kontrolatzeko sistemak eduki behar dira, hala dagokionean;
- g) jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak duen eragin akustikoaren balorazioa aurkeztu behar da, eta, hala badagokio, neurriak hartu behar dira eragin horri aurrea hartzeko eta gutxitzeko;
- h) kontratatuta eduki behar da legez eska daitekeen aseguru-poliza;
- i) dekretu honetan edota aplikagarri den garapen-araudian eskatutako baldintzak betetzea.

106. Artikulua.- Gaikuntza-titulua

1.- Establezimendu publikoetan jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak egiteko, ez da aldez aurreko baimen edo jakinarazpenik behar, lege honen arabera gaikuntza-tituluren baten babespean badaude ikuskizun edo jarduera horiek.

2.- Administrazio-baimen berezia edo aldez aurreko jakinarazpena beharko dute jendaurreko ikuskizunek edo jolas-jarduerak 31. artikuluan eta horrekin bat datozenetan aurreikusitako kasuetan, baita Jendaurreko ikusizunen eta jolas-jardueren Legean (abenduaren 23ko 10/2015) zehaztutakoek ere.

107. Artikulua.- Baimena emateko arau orokorrak

1.- Aldez aurreko baimena lortzeko prozedura interesdunak eskatuta hasiko da; eskaerak, prozedura administratibo erkidearen araudiak aurreikusitako eskakizunak betetzeaz gain, antolatzailearen identifikazioa izan beharko du, jardueraren deskribapena eta ospakizunaren tokia, data, ordutegia eta iraupena; halaber, kasu bakoitzean erregelamenduz eskatzen den dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

2.- Eskumena duen administrazioak egoki iritzitako txostenak eskatu ahal izango dizkie zerbitzu tekniko propioei zein kanpokoei, eta, era berean, ikuskaritza-zerbitzuei egin beharreko egiaztapenak egin ditzatela eskatu ahal izango die, ebazpenaren egokitasuna bermatzeko.

3.- Jendaurreko ikuskizunetan eta jolas-jardueretan animalien partaidetza edo erakustaldiak izanez gero, baimena ematen duen administrazioak aurkeztutako eskaeraren berri emango die abeltzaintzaren alorreko eskumena duten foru erakundeei.

4.- Baimenaren ebazpenak ekitaldia egiteko baimena emango du, bertan aurreikusitako eskakizunekin eta baldintzekin, eta, hala egokituz gero, segurtasun-neurri osagarriak ere ezarri ahal izango dituzte, eskatzaileak aurreikusitakoez gain. Baimenean ezartzen dituzten baldintzek jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera eten ahal izango dute, ebazpenean berariaz hala zehazten bada.

5.- Ebazpena ezezkoa izango da lege-eskakizunak betetzen direla egiaztatu ezean, ospakizunaren segurtasun-baldintzetan gabeziak hautematen direnean edota eskatutako dokumentazioa aurkezten ez denean.

6.- Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hurrengo artikuluetan edota bestelako erregelamendu espezifikoetan espediente modalitate bakoitzerako aurreikusitakoa izango da.

7.- Ebazpena ezezkoa baldin bada eska daitekeen dokumentazioa ez aurkezteagatik edota zuzentzeko moduko hutsak aurkezteagatik, eta eskatzaileak dokumentazio hori edota huts horien zuzenketak aurkeztuko balitu ospakizunaren data baino lehen, baimena emateko beste ebazpen bat eman ahal izango da.

108. Artikulua.- Segurtasun-memoria

1.- Ezinbestekoa izango da, baimen-eskaerarekin batera, segurtasun-memoria bat aurkeztea, establezimendu, lokal, esparru edo espazio irekietan egingo diren eta alde zuzeneko baimena behar duten jendaurreko ikuskizun edo jolas jardueretarako, honako kasu hauetan:

- a) 2.000 pertsonatik gorako edukiera aurreikusten denean;
- b) musika-emanaldiak direnean, ordutegiak 00:00ak gainditzen duenean eta edukiera 300 lagunekoa baino handiagoa denean;
- c) sexu-aisialdiko jarduerak direnean edota borroka zein muturreko indarkeriako kirol-diziplinak gauzatzen edo ematen direnean, federatiboki aitortu gabeak.

2.- Segurtasun-memoriak ikus-entzuleei eta inguruari segurtasunaren, osasunaren eta bizikidetzaren alorrean ospakizunak izan ditzakeen arriskuak ebaluatu beharko ditu, eta prebentzio neurriak hartu, baita segurtasun dispositiboak eta esku hartzeko protokoloak ezarri ere, segurtasun-zerbitzu pribatuekin eta Ertzaintzarekin, udaltzaingoekin eta SOS DEIAK Larrialdiak Koordinatzeko Zentroekin bizkor eta modu efizientean harremanetan jartzeko.

3.- Baimen-espedientearen instrukzio-organoak eskaera Ertzaintzaren Zuzendaritzari helaraziko dio, segurtasun-memoriarekin batera; esandako Zuzendaritzak segurtasun-memoria eskura eduki ahal izango du eta babes-neurri bereziak ezarri ospakizuna ziurtatzeko.

109. Artikulua.- Arau espezifikoak establezimendu edo lokaletarako baimena emateko

1.- Jendaurreko ikuskizun edo jolas-jarduera bat establezimendu, lokal edo barruti batean aldi berean behin egiteko, alde zuzeneko baimena behar da manu honetan aurreikusitako prozeduraren arabera, honako kasu hauetan:

- a) dekretuari atxikitako katalogoaren barruan aurreikusitako jardueretarako gaitutako establezimendu publiko batean egin behar denean baina ez jarduera konkreturako, edota ikuskizun edo jarduera horien eraginez baldintza tekniko orokorrak aldatu behar badira, segurtasuna ere aldatu behar bada, edukiera handitu behar bada, edo jendea hartzeko egitura desmuntagarriak jarri behar badira;
- b) dekretuari atxikitako katalogoaren barruan bildutako jardueretako gaikuntza-titulurik ez duen lokal batean egin nahi badira.

2.- Aurreko zenbakiko a) letrako kasuan, hasiera eskaerarekin batera honako dokumentazio hau aurkeztu beharko da:

- a) autobabes-plan espezifiko edo establezimendurako aurreikusitako autobabes planaren osagarria; autobabes-plana nahitaezkoa izango ez balitz, berriz, eskatutako edukieraren kalkulu-memoria, establezimendurako aurreikusitakoaren desberdina izanez gero, eta edukiera horren ebakuzio-bideak eta -ibilbideak egokitzea;
- b) behin-behineko instalazio elektrikoaren buletina, behar izanez gero;
- c) aldi bateko instalazioen segurtasunaren eta sendotasunaren eskumena duen teknikariak sinatutako memoria, halakorik erabiliz gero, eta muntaketaren amaiera-

ziurtagiria ekitaldia hasi baino lehen amaitzeko konpromisoa, araudi aplikagarriarekin bat;

d) osasun-zerbitzuak, segurtasun pribatuko zerbitzuak, edukiera kontrolatzeko sistemak eta tankerakoak prest izatearen egiaztagiriak, Dekretuak edota erregelamendu espezifikoek hala eskatzen duten kasuetan;

e) segurtasun-memoria, ezinbestekoa denean;

f) erantzukizun zibileko aseguruaren ziurtagiria eta istripuena, hala eska daitekeenean, ezohiko ikuskizun edo jarduera egitea estaliko duena, ordainduta dagoela berariaz aipatuta;

g) establezimenduaren lagapena egiaztatzen duen dokumentua, baldin eta antolatzailea eta establezimenduaren titularrak desberdinak badira;

h) ospakizun-tokiari eska dakizkiokeen betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, eta ekitaldi espezifikoaren antolatzeari buruzko gainerako eskakizunak.

3.- Lehenengo zenbakiko b) letrako kasuan, aurreko idatz-zatian zehaztutakoaz gain, honako dokumentazio hau ere aurkeztu beharko da:

a) establezimenduaren edo lokalaren ohiko funtzionamendurako gaikuntza-titulua;

b) ikuskizuna edo jolas-jarduera egiteko lokalaren egokitasuna egiaztatzen duen teknikari eskudunaren ziurtagiria, lokalaren ezaugarriak eta programatutako edukiera kontuan izanda, betiere indarrean den eraikingintza-araudiari jarraikiz;

c) behe-tentsioko instalazioaren berrikuspenaren ziurtagiria;

d) suteetatik babesteko baliabideen berrikuspen-agiria;

e) lokalaren titularrak sinatutako erantzukizun zibilaren aseguruaren, zehaztuz polizak estaltzen duela lokalean ekitaldi hori egitea.

4.- Behin-behineko instalazio elektrikoaren buletina eta instalazio desmuntagarrien edo aldi batekoen muntaketaren amaiera-ziurtagiria atzeratu liteke jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera gauzatzen den egunera, eta ikuskaritza-agenteei emango zaie bertaraten baldin badira; bertaratu ezean, baimena eman duen agintaritzari helaraziko zaizkio.

5.- Aldez aurreko baimena emateko eskumena udalak edota ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak izango du, segun eta edukiera edota lokal zein ikuskizunaren kapazitatea 700 pertsonaz azpitik edo goitik dagoen, hurrenez hurren.

6.- Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hilabetekoa izango da. Epe horretan ebazpenaren jakinarazpenik jasotzen ez bada, interesdunak ulertu ahal izango du eman diotela eskatutako baimena.

110. Artikulua.- Arau espezifikoak espazio irekietan baimena emateko

1.- Dekretu honen arabera, ez dute aldez aurreko baimenik beharko instalazio edo egitura finkorik, aldi batekorik, eramangarririk edota desmuntagarri beharrezko ez duten jendaurreko ikuskizunek edo jolas-jarduerak, ezta bertaratutako publiko hartzeko halakorik behar ez dutenek ere, betiere dagokion udalerrian espazio publikoaren

erabilera berezi edo pribatiboari buruzko araudiaren arabera aurkeztu beharreko gaikuntza-tituluei kalterik egin gabe.

2.- Udalaren aldez aurreko baimen berezia beharko da ikuskizunak eta jolas-jarduerak bide publikoan edo leku publikoetan egiteko, betiere instalazio edo egitura finkoak, aldi batekoak, eramangarriak edo desmuntagarriak erabiltzen badira ikuskizun edo jarduera horiek gauzatzeko edo ikus-entzuleentzako estalpea jartzeko.

3.- Aldez aurreko baimena ekitaldi horretarako eska daitezkeen betekizun multzoa betetzen dela egiaztatzen denean emango da, ezaugarrien eta programatutako edukieraren arabera.

4.- Hasiara-eskabidearekin batera agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a) egin beharreko jardueraren deskribapen memoria;
- b) espazioaren edo esparruaren disponibilitatea;
- c) aldi bateko elementuen eta instalazioen segurtasunaren eta sendotasunaren eskumena duen teknikariak sinatutako memoria, halakorik erabiliz gero, eta muntaketaren amaiera-ziurtagiria ekitaldia hasi baino lehen amaitzeko konpromisoa, araudi aplikagarriarekin bat;
- d) behin-behineko instalazio elektrikoaren buletina;
- e) eskumena duen teknikariak sinatutako memoria, eskatutako edukiera kalkulatzeari eta edukiera horretarako ebakuazio-bideak eta ibilbideak egokitzeari buruz;
- f) autobabes-plana, hala dagokionean;
- g) erantzukizun zibilaren eta istripuen aseguruia kontratatu izanaren egiaztatzea, eska daitekeenean;
- h) nahitaez eman beharreko baldintzak edo zerbitzuak prest edo kontratatuta daudela egiaztatzen duen agiria, hala nola osasun zerbitzuak, edukiera kontrolatzeko sistemak edota segurtasun pribatuko zerbitzuak;
- i) ekitaldiaren inpaktu akustikoaren ebaluazioa eta prebenitzeko eta minimizatzeko neurriak;
- j) segurtasun-memoria, ezinbestekoa denean;
- k) analisi bat aurkeztuz jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera dela-eta zenbat jende mugitzea espero duten, eta zer egiteko asmoa duten, ohikotik aparte, premia horiei erantzuteko;
- l) ospakizun-tokiari eska dakizkioken betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, eta ekitaldi espezifikoan antolatzeari buruzko gainerako eskakizunak.

Ez da mugikortasun-memoria edo sortutako mugikortasunaren ebaluazioaren azterketa aurkeztu beharko, ikuskizunak edo jolas-jarduerak ez daukanean mugikortasunari eragiteko aurreikuspenik, programatutako edukiera eta erabilitako espazioa aintzat hartuta.

Behin-behineko instalazio elektrikoaren buletina eta instalazio desmuntagarrien edo aldi batekoen muntaketaren amaiera-ziurtagiria atzeratu liteke jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera gauzatzen den egunera, eta ikuskaritza-agenteei emango zaie bertaratzen baldin badira; bertaratu ezean, baimena eman duen agintaritzari helaraziko zaizkio.

5.- Aldez aurreko baimena emateko eskumena baimendu beharreko ekitaldia egingo den tokiko udalak izango du.

6.- Ikuskizuna edo jarduera sartzeko mugak dituzten espazio mugatuetan egiten bada, 700 laguneko edukierarekin baino handiagoarekin, baimenaren aurretik ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzaren txostena eduki beharko da; horretarako, eskaera aurkeztu eta 7 eguneko epearen barruan ekitaldiarekin lotutako informazioaren kopia bidali beharko da, manu honetako laugarren zenbakiaren a), c), d), e), f) eta j) letretan jasotako moduan.

Esandako zuzendaritzak, dokumentazio osoa jaso eta 15 eguneko epearen barruan, ikuskizunaren edo jardueraren ospakizunaren segurtasun baldintzei buruzko txostena eman beharko du, dokumentazio hori aztertuta.

Txostenak zuzenketa-neurriak ezarri ahal izango ditu, arrazoituta betiere; zuzenketok lotesle izango dira, eta baimena emateko ebazpenean baldintza berberetan txertatuko dira. Txostena ezarritako epearen barruan jaso ezean, udalak izapideekin jarraitu ahal izango du.

Udalak ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzari jakinarazi beharko dio emandako baimena.

7.- Ebazpena emateko eta jakinarazteko epea hiru hilabetekoa izango da. Epe horretan ebazpenaren jakinarazpenik jasotzen ez bada, interesdunak ulertu ahal izango du eman diotela eskatutako baimena.

111. Artikulua.- Aldez aurreko jakinarazpen okasionala establezimendu edo lokaletan

1.- Jendaurreko ikuskizunek eta jolas-jarduerak aldian behingo ospakizunetarako aldez aurreko komunikazioa beharko dute honako kasu hauetan:

- a) kultura- edo gizarte-jarduerak edota antzerki- edo musika-ikuskizunak direnean, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren katalogoan beste jarduera batzuetarako gaikuntza titulua dutenean, eta jarduera nagusiaren jarduera edo ikuskizun osagarria denean, harekin batera izan ala ez, baldin eta edukiera, ordutegia, barrutiaren autobabes-plan espezifikoa (halakorik izatekotan), instalazioak, lokalaren konfigurazioa eta gaikuntza-tituluan jasotako gainerako baldintzak aldatzen ez badira;
- b) erlijio-kultuko lokaletan egiteko jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren kasuan, ospakizunak erlijiosoak ez direnean, baldin eta ez badira aldatzen barrutiaren edukiera, autobabes plan espezifikoa, publikoaren eta jarduleen kokapena, eta erlijio-egintzen ikusle eta emaileei bideratutako eserleku eta tokietan egiten badira;
- c) araudi espezifikotan hala ezartzen denean.

2.- Aldez aurreko jakinarazpena eska daitekeen kasuetan, jendaurreko ikuskizuna edo jolas jarduera hasi baino gutxienez hamar egun lehenago aurkeztu behar da jakinarazpen hori, eta hau dena adierazi behar da bertan:

- a) nor den establezimenduaren titularra edo ikuskizun edo jardueraren antolatzailea;
- b) jendaurreko ikuskizunaren edo jolas jardueraren deskribapena hala dagokionean, eguna eta ordua zehaztuta aldiari behingoa bada, baita zer establezimendu publikotan edo espaziotan egingo den ere, edukiera eta tokia adierazita;
- c) lokalaren disonibilitate-dokumentua, ekitaldia antolatzen duen pertsona lokalaren titularra ez baldin bada;
- d) antolatzailearen adierazpena, esanez ikuskizunak edo jarduerak ez dituela aldaraziko gaikuntza-tituluan aurreikusitako gainerako baldintzak eta ez dituela aldaraziko, era berean, edukiera, ordutegia, instalazioak edota establezimenduaren autobabes-planaren konfigurazioa;
- e) antolatzailearen adierazpena, esanez ikuskizuna edo jarduera lokalaren erantzukizun zibileko aseguruak estalitako ekintzen barruan dagoela, eta, hala ez baldin bada, alde aurreko jakinarazpenarekin batera aseguru-konpainiaren ziurtagiria aurkeztu beharko du.

3.- Aldez aurreko jakinarazpenak dena delako jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera egitea ahalbidetuko du, baina, hala ere, egiaztatu, kontrolatu eta ikuskatu ahal izango du administrazio eskudunak. Baimenaren indarraldia ikuskizuna edo jarduera egitearekin bukatuko da.

4.- Aldez aurreko jakinarazpena administrazio eskuduneari aurkezten ez bada, edo funtsezko datuak, adierazpenak edo dokumentazioa zehaztugabeak edo faltsuak badira edo aurkeztu ez badira, gorabehera horiek ezagutzen direnetik aurrera ezin izango da jarraitu dena delako eskubideaz baliatzen edo jarduera egiten, izan litezkeen erantzukizun penal, zibil edo administratiboen kalterik gabe. Halakoetan, administrazio eskudunak jendaurreko ikuskizuna edo jolas-jarduera bertan behera utzi ahal izango du. Funsezko datuak dira, ondorio hauetarako, artikulua honetako bigarren lerrokadan aipatzen direnak.

5.- Ikuskizuna edo jarduera establezimendu publikoetan egiten bada eta establezimenduon lizentziak ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzaren nahitaezko txostena behar badu, dagokion udalak aurkeztutako alde aurreko jakinarazpenaren berri emango dio Zuzendaritzari, jaso eta gehienez ere hiru eguneko epearen barrua

XI. KAPITULUA.- MANTENTZE-LANAK, IKUSKARITZA ETA KONTROLA

112. Artikulua.- Baldintza teknikoaren mantenimendua

Lege honen aplikazio-eremuan dauden establezimenduen eta instalazioen titularrek une oro eduki beharko dituzte establezimenduak eta instalazioak akatsik gabe funtzionatzeko moduan, eta aplikagarri zaien arloko araudian aurreikusten diren funtzionamendu-kontrolak eta berrikusketa teknikoak egin beharko dizkiete.

113. Artikulua.- Mantentze-lanak eta berrikusketa egiteko betebeharrak

1.- Establezimenduak eta instalazioak beti akatsik gabe funtzionatzeko moduan edukitzeko betebeharra dute titularrek eta antolatzaileek; hau da, arautegi aplikagarrian eta dagokion baimenean nahiz alde zuzeneko jakinarazpenean ezartzen den bezala eduki behar dituzte establezimendu eta instalazioak.

2.- Dekretu honen aplikazio-eremuan dauden establezimendu publikoen titularrek, era berean, aplikagarri zaien arloko araudian aurreikusten diren funtzionamendu kontrolak eta berrikusketa teknikoak egin beharko dizkiete establezimendu eta instalazioei.

3.- Ezingo dira jendaurreko ikuskizunak edo jolas jarduerak gauzatu, erregelamendu honetan haiek gauzatzeko establezimendu edo espazioek ez baldin badauzkate martxan erregelamendu honetan eskatutako higie-, osasun- eta segurtasun zerbitzuak.

114. Artikulua.- Jardueraren etenaldi jarraitua

1.- Establezimendua jarduerarik gabe edukiz gero sei hilabetez jarraian, etenda geratuko da gaikuntza-tituluaren indarraldia, interesdunari alde zuzenetik entzun ondoren eta modu arrazoituan, harik eta Administrazioak egiaztatzen duen arte betetzen direla establezimenduari eskatzen zaizkion baldintzak.

2.- Egiaztapena hilabeteko epean egin beharko da, gaikuntza-tituluaren indarraldiari eusteko eskaera argia egiten denetik.

3.- Esandako izapidea ez da egingo iraungitze espedientea abian bada.

115. Artikulua.- Dokumentuak ikuskatzea

1.- Titularrak eta antolatzaileak ikuskaritzako erakunde eskudunaren esku ipini beharko dute nahitaezko kontrolak eta ikuskaritzak egiaztatzeko dokumentazioa, eta noiznahi eskatu ahal izango dira.

2.- Ikuskaritzako eskumena duen erakundeak establezimenduaren titularrari dokumentazio hori eskatu ahal izango dio, baita autobabes-plana eta nahitaezko aseguruak kontratatu izanaren egiaztatgiriak ere, eta horretarako epe bat emango dio.

116. Artikulua.- Ikuskaritza-jarduera

1.- Establezimendu publikoen eta instalazioen ikuskaritza, baita ikuskizunen eta jolas jardueren kontrol ere, Ertzaintzaren Joko eta Ikuskizun Unitateak edota udaltzaingoak egiten du. Ikuskaritzako poliziakideek administrazioako teknikarien laguntza izan dezakete. Kasu horretan, teknikariok egindako balioespenak poliziakideek egindako akten txostenari atxikiko zaizkio.

2.- Era berean, ikuskaritzaren arloan eskumena duen administrazioak beste pertsona edo erakunde batzuk gaitu ahal izango dituzte, eskatutako ezagutza teknikoa baldin badute, kasuan kasuan dagokion ikuskaritza-jarduera egin dezaten.

3.- Ikuskaritzek, establezimenduari edo lokalari ez ezik, jarduerari ere eragin diezaioke. Lokalaren ikuskaritza jarduera gauzatzen ari dela eaginez gero, bi ikuskaritzak egingo dira aldi berean, lokalarena eta jarduerarena, eta inguruabar hori aktan jasoko da.

4.- Ikuskaritzak programatuta edo aldez aurretik abisatu gabe egin daitezke, aurrez aurre edota dokumentazioa eskatuta, jarduera martxan dela, entseguetan eta prestatzeko ekitaldietan, edota jardueraren funtzionamendutik kanpo. Edonola ere, jardueran ahal denik eta endredu gutxien eraginda egingo dira.

5.- Establezimenduen titularrek eta ikuskizun eta jolas-jardueren antolatzaileek obligazioa dute ikuskatze- eta kontrolatze-lanetarako baimenduta dauden pertsonen sartzeko, bai eta ikuskatze lanetan laguntzeko ere. Ikuskariak edozer toki, instalazio edo dependentziatara sartu ahal izango dira, publikoak edo pribatuak, betiere etxeetan sartzeko konstituzio-mugak gainditu gabe, eta noiznahi eskatu ahal izango diete lokal eta instalazioen titularrei edo ikuskizun eta jolas jardueren antolatzaileei eskatutako segurtasun-baldintzen mantentze-lanak egiaztatzen dituen dokumentazioa.

6.- Ikuskaritzak egoki irizitako proba teknikoak egin ahal izango ditu.

117. Artikulua.- Establezimendua ikuskatzea

1.- Establezimenduen ikuskaritzaren xedea hura irekitzea baimendu duen gaikuntza-tituluan ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzea da.

2.- Establezimenduaren titularra edo haren ordezkaria bertan dela egingo dira ikuskaritza lanak, aldez aurretik hitzordua ipinita eta, posible izanez gero, lokalean jarduerarik gabe, jarduera hori txikia izatea badago aurreikusita.

3.- Ikuskaritzak honako auzi hauek egiaztatuko ditu gutxienez:

- a) konfigurazioan lanak edo aldaketak egin diren, eta gaikuntza-tituluaren baldintzak nabarmen aldarazten diren;
- b) instalazioen mantentze- eta kontserbatze-lanak;
- c) lokalaren egoeraren eta autobabes planaren arteko egoeraren baliokidetasuna, egiaztatuta, horrez gain, autobabes-plana eta seinaleztapena ere bat datozen;
- d) indarrean den araudiak eskatutako seinaletikaren erabilera;
- e) gaikuntza-tituluan edo dagokion proiektuan aurreikusitako suteetatik babesteko bitarteko guztiak ba diren eta ondo kokatuta dauden;
- f) alarma-sistemek, atek desblokeatzekoek edota segurtasunarekin eta larrialdiak kudeatzeko gainerakoekin lotutakoek behar bezala funtzionatzen duten.

118. Artikulua.- Jarduera ikuskatzea

1.- Jarduera-ikuskaritzak lokalean jarduera egiten ari direla egingo dira, baina ahalik eta eragin txikiena izaten saiaturik, aldez aurretik abisatu gabe eta ikuskaritzaren garaian jardueraren arduradunarekin edo jardueraren antolatzailearen ordezkariarekin batera.

2.- Ikuskaritzak honako kontu hauek egiaztatuko ditu gutxienez:

- a) jarduera gaikuntza-tituluan aurreikusita dagoen;
- b) jarduera aurreikusita dagoen ezarritako autobabes-planean edo jarduerarako aurreikusitako plan osagarrian;
- c) aldi baterako instalazio elektrikoaren buletina ba ote den, halakorik behar izanez gero; egitura desmuntagarri guztien segurtasun- eta sendotasun-ziurtagiriak eta aldi baterako edozer instalazioren legezkotasuna ziurtatzen duten gainerako ziurtagiriak;
- d) nahitaezko informazio eta publizitaterik eta erreklamazio-libururik ba ote den;
- e) osasun-dotazioek, segurtasun-zerbitzuek eta onarpen-zerbitzuek legezko eskakizunak betetzen ote dituzten;
- f) ezarritako edukiera betetzen ote den, edukieraren kontrola eginda eta edukiera kontrolatzeko bitartekoek behar bezala funtzionatzen duten egiaztatuta.

3.- Era berean, araudi honetan eta gaikuntza tituluan eska daitezkeen gainerako funtzionamendu-eskakizunak betetzen diren egiaztatu ahal izango dute.

119. Artikulua.- Aktak

1.- Ikuskapen bakoitzeko akta bat egingo da, eta interesdunak, ondorioekin ados ez baldin badago, aktan adierazi ahal izango du desadostasuna. Akta ikuskaritzako agenteek sinatu beharko dute, baita agertutako aldeak ere.

2.- Oro har, aktak honako datu hauek izan beharko ditu, gutxienez:

- a) egindako tokia, data eta ordua, lokalaren izena, jarduera eta kokapen zehatza;
- b) esku hartu duten funtzionarioen identifikazioa;
- c) jarduera, establezimendua edo ikuskizuna ustiatzen duen pertsonaren edo titularraren identifikazioa, izen-abizenak edo sozietatearen izena zehaztuta;
- d) ikuskaritza noren aurrean egiten den, haren izen-abizenak eta NANA, eta zer kargutan jarduten duen;
- e) establezimendu-ikuskaritza edo jarduera ikuskaritza den, edo biak batera.

3.- Aktak luze-zabal jasoko ditu lokalean edo ikuskizunaren garapenean hautemandako ustezko hutsak, gaikuntza-tituluan edo indarrean den araudian eskatutakoari dagokionez. Era berean, bertan jasoko dira ustezko hutsen inguruan agertutako aldeak egindako alegazioak ere.

4.- Akta hori interesdunari jakinarazi eta eskumena duen administrazio-organoari helaraziko zaio, jasotako dokumentazioarekin batera.

5.- Ikuskariek egindako akta eta eginbideetan, ikuskariek eurek hautemandako egintzak jasotzen direnean dagozkion lege-eskakizunak ikusirik, egintza horien frogak ere jaso beharko dira, nola eta ez den kontrakorik egiaztatzen.

120. Artikulua.- Hutsak zuzentzea

1.- Pertsonen edo ondasunen segurtasuna edo osasungarritasun publikoari arrisku larria eragiten ez dioten huts posibleak jasotzen direnean aktan, organo eskudunak establezimenduaren titularrari eskatuko dio errekerimenduan zehaztutako epearen barruan zuzen ditzala huts horiek, ohartarazita hala egin ezean zehapen-espeditatea abiaraziko zaiola.

2.- Esandako zuzenketa ezarritako epean egiteko gauza izango ez balitz, establezimenduaren titularrak organo eskudunari emandako epearen barruan proposatuko dio hura luzatzeko, hartuko dituen neurri subsidiarioak zehaztuta, hutsak zuzentzen dituen bitartean.

3.- Jarduera-akta batean ikusitako hutsa ez baldin badago lokalarekin lotuta, baizik eta jarduerarekin, antolatzaileari jakinaraziko zaio ezingo duela jarduera berriz egin nola eta ez duen jasotako hutsa zuzentzen, eta, hala badagokio, dagokion zehapen-espeditatea irekiko dio.

4.- Eskumena duen organoak, prozeduraren edozer unetan, ikuskariei txosten gehigarri edo argigarri bat eskatu ahal izango die, aktan jasotako ustezko hutsa azaltzeko.

121. Artikulua.- Ikuskaritzaren helburuak eta lehentasunak

1.- Dekretu honen IV. eranskinean zehazten dira zer helburu eta lehentasun izango dituzte ikuskizunen arloan eskumena duen Zuzendaritzak eta udaletako ikuskaritza zerbitzuek establezimenduak, jendaurreko ikuskizunak eta jolas jarduerak ikuskatzerakoan. Hori guztiori, Jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

2.- Helburu eta lehentasun horiek honako aldagai hauei jarraiki zehaztuko dira: aisiaren sektorearen garapena eta bilakaera, gizarte dimentsioa, garrantzia, jarduera motak edo horien kokapena, eta ikuskaritza jarduearren bitartez erdietsi nahi den disuasio eragina.

3.- Helburu eta lehentasun horien baitan, Eusko Jaurlaritzak eta udalek haien ikuskaritza programak zehaztu eta elkarri jakinarazi behar dizkiete.

XI.KAPITULUA.- ZEHAPENEN ETA BERREZTEKO NEURRIEN ERREGISTROA

Lehenengo atala.- Zehapenen erregistroa

122. Artikulua.- Erregistroa sortzea

1.- Jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren zehapenen erregistroa sortzen da, Lege honetan tipifikatutako arau-hausteetan berrerortzea gertatzen den ikusteko xede hutsarekin.

2.- Bertan, alor honetan eskumena duten udaletako edo autonomia-erkidegoko agintariek ezarritako zehazpenak jasoko dira; haiek zehapen-ebazpena jakinaraziko

dute, baita inskribatu beharreko datuak ere, zehapena administrazio-bidean irmo egiten denean.

123. Artikulua.- Atxikipena

Erregistroa ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzari atxikita egongo da, eta hura izango da fitxategiaren arduradun datu pertsonalak babesteko araudi erregulatzailan aurreikusitako ondoreetarako; halaber, haren aurrean egikaritu ahal izango dira datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko eta aurkaratzeko eskubideak.

124. Artikulua.- Inskribatu daitezkeen datuak

Inskripzioan datu hauek jasoko dira:

- a) arau-hauslearen identifikazio-datuak;
- b) arau-haustearen tokia eta eguna;
- c) egindako arau-haustea eta legearen zer artikulutan tipifikatuta dagoen zehaztuta;
- d) ezarritako zehazpena edo zehapenak;
- e) zehapena zer datatan egin den irmo.

125. Artikulua.- Datuen eskuragarritasuna eta babes

1.- Erregistroa eta bertan inskribatzen diren datuak datu pertsonalak babesteko legeak dioenarekin bat jasoko dira.

2.- Zehapen-ebazpenen xede diren pertsona guztiek erregistroan inskribatuko direla jakinarazteko eskubidea bermatuko da kasu guztietan, bai eta erregistro horretan betearazteko behar denean bakarrik edukitzekoa ere. Horretarako, zehapen-agintaritzak esandako izapidearen berri emango dio interesdunari, datuak zehapenen erregistrora bidaltzen dituen aldi berean.

3.- Erregistro honetara Euskadiko Autonomia Erkidegoko udalek eta ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak izango dute sarbidea.

126. Artikulua.- Ezerezipena

Ofizioz eta berehala ezereztuko dira inskribatutako zehapenei dagozkien datuak, dagokion denbora luzapenean zehatz-mehatz bete bezain pronto, ezarritako zehapenaren preskripzio-aldia amaitzen denean edota, hala dagokionean, zehapen-ebazpenaren kontra bide judizialean ipinitako errekurtsua baiesten dutenean.

Bigarren atala.- Berrezteko neurriak

127. Artikulua.- Berrezteko neurriengatik etetea

1.- Legearen 57.2 artikuluan aurreikusitakoarekin bat, arau-hauste arinak egiteagatik ikusleei eta erabiltzaileei jartzen zaizkien zehapenak eten egin ahal izango dira, arau-hausleek, borondatez, berriro hezteko neurriak gauzatzen badituzte; esaterako, komunitatearen aldeko zerbitzuak ematen badituzte edo heziketa-, prestakuntza- edo kultura programetan edo antzekoetan parte hartzen badute.

128. Artikulua.- Berrezteko neurrien programak

1.- Udalek berrezteko neurrien programak garatu ahal izango dituzte, eta komunitatearen aldeko prestazioak edo hezkuntzarekin, prestakuntzarekin edo kulturarekin lotutako bestelakoak izango dituzte, guztiak ere herritarren bizikidetzaren kontrako portaerak zuzentzea eta prebenitzea xede dutenak ikuskizunen eta jolas-jardueren garapenean.

2.- Komunitatearen aldeko prestazioen barruan sartzen dira lorategiak eta espazio publikoak egokitzea, hirugarren adineko pertsoneri edo desgaitasuna duteneri laguntzea, kirol- eta kultura ekintzak edo tankerakoak egitea, baldin eta antzeko programak ezarrita baldin badaude zehatua bizi den udalerrian edo hark aukeratutako beste batean. Komunitatearen aldeko lanak ezingo dira, inola ere, udal-langileen euren egitekoak izan, ez eta erakundeenak edo haien mendekoenak ere.

3.- Hezkuntza-, prestakuntza- edo kultura-ekintzen edukia jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren gozameneari eta aisialdian gizabidezko jokaeretan heztearekin lotuta egongo da.

4.- Administrazio publikoek berrezteko neurrien programen publizitatea egingo dute eta haien berri emango diete zehatutako pertsoneri.

129. Artikulua.- Zehapena etetea eskatzea

1.- Berrezteko neurri horiek egiteko eskaera zehapena eman zuen erakundearen aurrean egin beharko du zehatuak, berrezteko neurrien udal programa batean bere borondatez bat egin duela ziurtatzen duen agiri batekin batera, dela prestazio komunitario batean, dela hezkuntza-, prestakuntza- edo kultura-programa edo baliokide batean.

2.- Zehapena etetea baldintza izango da esandako berrezteko programa horiek izatea, baita zehatuak programa horietako batean parte hartzea ere.

3.- Zehazpena eman zuen erakundeak ezarritako zehazpenaren exekuzioa etengo du berrezteko neurrien programa batean onarpena egiaztatuz gero, edukiak zehazpenaren xedera egokituz gero eta prestazioaren iraunaldia zehazpenaren zenbatekoarekin proportzionala eta egokia izanez gero.



4.- Berrezteko neurrien programa babesten duen administrazioak ikuskatzaile bat izendatuko du programa egiten dela ziurtatzeko, eta hark organo zehatzaileari txostena igorriko dio behar bezala bete duen egiaztatuz.

5.- Txostenak baieztatuko balu berrezteko neurria bete dela, zehapena iraugintzat emango da.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Primera.- Titulartasunean edo helbidean izandako aldaketak komunikatzea

Lizentzia , baimen edo bestelako gaikuntza tituluen titulartasunean izandako aldaketak horiek formalizatu eta hilabeteko epean komunikatu behar dira.

Bigarrena.- Animaliekin antolatutako ikuskizunak edo jolas-jarduerak

1.- Animalien partaidetza edo erakustaldiak izaten dituzten establezimenduek, ikuskizunek eta jarduerak animaliak babesteko, animalia osasunerako eta nukleo zoologikoetako araudia bete beharko dute.

2.- Animalien partaidetza edo erakustaldiak izaten dituzten ikuskizunen edo jolas-jardueren gaikuntza titulua eskuratzeko edo aldatzeko espedientean, eskatzaileak honako hauek aurkeztu beharko ditu:

a) albaitari elkargokidearen ziurtagiria, ikuskizunak edo jolas-jarduerak animaliak babesteko araudia betetzen duela adieraziz;

b) 60 kilogramoz azpiko abelburuen kasuan, abelburuon jabearen ziurtagiria, haien pisuari buruz.

Hirugarrena.- Aldi bateko instalazio puzgarriak

14 urteko edo adin horretatik beherako haurrentzako joko puzgarrien ekipoak dituzten aldi bateko instalazioek jarraian adierazten den arauan zehaztutako diseinu-, fabrikazio-, instalazio eta gozamen eskakizunak bete beharko dituzte: UNE-EN 14960:2014, joko puzgarrien ekipoak. Segurtasun betekizunak eta entsegu-metodoak.

Laugarrena.- Ikuskaritzaren helburuak eta lehentasunak berrikustea

Jaurlaritzaren kontseiluak bost urtean behin berrikusi ahal izango ditu Dekretu honen IV. eranskinean zehaztutako ikuskaritza helburuak eta lehentasunak, beti ere lortutako emaitzen ebaluazioa egin ostean, eta arauen betetze maila eta aisiaren sektorearen bilakaera kontuan hartuz

Onetsitako azken emaitzetatik bost urte igarota berrikuspenik egiten ez bada, aurrekoek jarraituko dute indarrean harik eta beste batzuk onetsi arte.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

Lehenengoa.- Izapidetzen ari diren espedienteak

Dekretu hau indarrean jarri aurretik eskatutako lizentzia eta baimenak arautzeko, eskatu ziren garaian indarrean zeuden arauak hartuko dira kontuan; baina, hala ere, pertsonen eta ondasunen segurtasunari eragiten dieten baldintza teknikoak eta herritarren bizikidetzari eragiten diotenak bete beharko dituzte, dekretu honek xedatutakoari jarraituz.

Bigarrena.- Katalogora egokitzea

1.- Aurreko araudiaren arabera dagozkion gaikuntza-tituluetan egindako establezimendu publikoen kalifikazioa Dekretu honetan eta bere eranskinean xedatutakoari erreferentzia eginez ulertuko da, gaitutako jardueren izaerari erantzunez.

2.- Hala ere, Dekretu hau indarrean jarri eta bi urteko epearen barruan, indarraldiaren aurretik emandako gaikuntza-titulua egokitu egin beharko dira Dekretuari atxikitako katalogoan aurreikusitako establezimendu, ikuskizun eta jolas-jardueren kategorietara.

3.- Aurreko katalogoan jasotako jarduerak katalogo berrikora subsumitze hutsa ofizioz egingo da, eta ez du gaikuntza-titulua aldatzeko eskatu beharrik ekarriko.

Hirugarrena.- Establezimenduak egokitzea

1.- Dekretu hau indarrean jartzen denean funtzionamenduan eta publikoari irekita dauden establezimenduek eta espazioek martxan jarraitu ahal izango dute, baita instalazioek haietako xedapenen bat betetzen ez badute ere, ondoren agertzen diren baldintza jakin batzuk egokitzeko eskatzeko aukerari kalterik egin gabe.

2.- Dekretu hau indarrean jartzen denean publikoari irekita eta funtzionamenduan diren establezimendu eta espazioek:

- a) sei hilabete izango dituzte, Dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita, osasun dispositiboak eta jantzizaindegiak Dekretu honetan ezarritako baldintzen arabera egokitzeko;
- b) urtebete izango dute, Dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita, soinu mugatzaileak ipintzeko, erregistratzeko gailuarekin, hala eska dakiekeenean;
- c) urtebete izango dute, Dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita, pertsonak zenbatzeko Dekretu honetan ezarritako sistema elektronikoa instalatzeko, hala eska dakiekeenean.

3.- Dekretu hau indarrean jartzen denean funtzionamenduan diren eta sexu-zerbitzuak ematen dituzten establezimenduek urtebete izango dute, Dekretu hau indarrean jartzen denetik hasita, Dekretuan haietarako aurreikusten diren eskakizun espezifikoetara egokitzeko, nola eta horretarako ez den ezinbestekoa erreforma nabarmen bat (kasu horretan, egokitzapena obrarekin batera egin beharko da).

4.- Dekretu hau indarrean jartzen denean funtzionamenduan diren eta publikoari irekita dauden establezimendu eta espazio irekiek erregelamendu honetako eskakizunetara eta baldintzatzaileetara erabat egokitu beharko dute, baldin eta honako inguruabar hauetakoren bat agertzen bada:

- a) establezimenduaren erreforma edo aldaketa nabarmena, establezimenduaren egitura aldatzea edo banaketak aldaketak egitea eskatzen duena, horrek segurtasun-, osasungarritasun- edo arriskugarritasun-baldintzak murriztea eragiten duenean edo eragin dezakeenean pertsona eta ondasunetan;
- b) gaikuntza-tituluan bildutako jendaurreko ikuskizunak edo jolas-jarduerak zabaltzea edo aldatzea, baldin eta horretarako instalazioetan aldaketak eskatzen badira.

Laugarrena.- Udal-titulartasuneko establezimenduak

Dekretu hau indarrean jarri eta bi urteko epean, udalek zehaztu beharko dute euren titulartasuneko establezimendu bakoitzak katalogoko jardueretatik zein dauzkan gaituta, baita jarduera bakoitzerako edukiera eta espazio desberdinak aldi berean erabiltzeari dagozkion mugak ere, jarduerekin eta edukierekin loturik.

Erregelamendu hau indarrean jarri aurretik irekitako udal-titulartasuneko establezimendu publikoak legezatzeko prozeduretan, ez da ezinbestekoa izango ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak nahitaezko txostena egitea.

Bosgarrena.- Onartzeko baldintza bereziak

Dekretu hau indarrean jarri aurretik onarpen baldintza espezifikoak ezarrita dauzkaten establezimenduek haien berri eman beharko diote eskumena duen administrazioari, indarrean jarri eta hiru hilabeteren barruan ikuskatzeko.

Seigarrena.- Onarpen-zerbitzuko langileak

Dekretu hau indarrean jarri aurretik onarpen zerbitzuko langileen lanak egiten zituzten langileek lan horretan jarraitu ahal izango dute, eta ez zaie eskatuko gaikuntza-eskakizuna harik eta Dekretu hau indarrean jarri eta lau urte igaro arte.

Zazpigarrena.- Zehazpen-erregistroa martxan ipintzea

Ikuskizunen alorreko eskumena duen Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak, Dekretu hau indarrean jarri eta urtebeteko epearen barruan, zehapenen erregistroa funtzionamenduan ipintzea xedatzen duen Agindua emango du.



XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da abenduaren 16ko 296/1997 Dekretua (jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren ordutegiak eta jarduera horiei buruzko beste alderdi batzuk ezartzen dituen Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan), baita haren aldaketak eta maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak ere, dekretu honetan ezarritakoari aurka egiten dioten orotan.

AZKEN XEDAPENA

Lehena.- Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta bigarren hilabetearen biharamunean jarriko da indarrean.

Bigarrena.- Larrialdi-egoerei aurre egiteko hainbat jarduerari, zentrori edota establezimenduri eska dakizkiekeen autobabeserako betebeharrak erregulatzen dituen Dekretuaren (azaroaren 2ko 277/2010) d) letra aldatu egingo da, eta honela geratuko da idatzita:

«d) Ikuskizun publikoak eta jolas-jarduerak. Ikuskizun publikoen eta jolas-jardueren arloko arautegiaren mendeko ekitaldietarako lekuak, egoitzak eta instalazioak, baldin eta ezaugarri hauek badituzte:

- Aldi bateko establezimenduetan edo egitura zein instalazioetan:

- eraikin itxiak: 300 laguneko baino gehiagoko edukiera edo kapazitatea dutenak edo ebakutzeko garaiera 28m edo handiagoa dutenak;
- aldi baterako instalazio edo egitura itxiak, eramangarriak, desmuntagarriak edo sasoikoak: 300 pertsonako edo gehiagoko edukiera dutenak;

- espazio mugatu edo irekietan:

- sartzeko mugak dituzten esparru edo espazio mugatuak, 700 lagun baino gehiagoko edukiera dutenak;
- espazio irekiak: 10.000 laguneko edo gehiagoko edukiera eta kapazitatea dutenak.»

Hirugarrena.- Paragrafo bat eransten zaio, in fine, Euskadiko Autonomia Erkidegoan jokoaren erregelamendu orokorra onesten duen uztailaren 27ko 120/2016 Dekretuaren 193. artikuluari. Honela idatzita geratuko da:

“Joko aretoetan jarduera nagusiaren osagarri diren jarduera kulturalak edo sozialak, antzerki ikuskizunak edo musika emanaldiak egin ahal izango dira jendaurreko ikuskizunen eta jolas jardueren abenduaren 23ko 10/2015 Legearen 25.4 artikuluan aurreikusitako baldintzetan. Jarduera horiek aurretiaz komunikatu beharko zaizkio Jokoaren Agintaritza Arautzaileari”.

I.ERANSKINA.

JENDAURREKO IKUSKIZUNEN, JOLAS-JARDUEREN ETA ESTABLEZIMENDU PUBLIKOEN KATALOGOA

I.- JENDAURREKO IKUSKIZUNAK

a) **Zinema-ikuskitzuna:** zinema-filmak pantaila batean jendaurrean erakustea eta proiektatzea, erabiltzen diren bitarteko teknikoak alde batera utzita eta lokal itxi batean edo aire zabalean proiektatzen diren ere alde batera utzita.

b) **Antzerki-ikuskitzuna:** lan eszeniko, antzezlan edo askotariko ikuskizunen jendaurreko antzezpena, hizkuntza, mimika, musika edo txotxongiloak erabilia, antzezle edo jotzaileen, profesional zein amateurren, eskutik, lokal itxietan edo aire zabalean.

c) **Musika-ikuskitzuna:** musika-, opera- edo dantza lan edo -konposizioak jendaurrean antzeztea, musika-tresnak edo giza ahotsa erabilia, musikari, kantari edo artisten, profesional zein amateurren, eskutik, lokal itxietan edo aire zabalean.

d) **Zirku-ikuskitzuna:** akrobaziako edo trebetasuneko ariketa fisikoak eta pailazo, malabarista, eskujokari, animalia bezatu eta antzeko beste batzuen emanaldiak jendaurrean antzeztea, pertsona profesionalak lokal itxietan edo aire zabalean eginak.

e) **Zezen-ikuskitzuna:** behi-abelburu suharrek parte hartzen duten ikuskizunak dira; abelburuok heriotzarik gabeko ikuskizunetan parte hartzen dute edo jendea duten zezen-plazetan toreatzen dituzte toreatzaile profesionalak eta, batzuetan, amateurrek, horrelako ikuskizunei aplikagarri zaien berariazko araudiaren arabera.

f) **Kirol-ikuskitzuna:** edozein kirol-modalitatearen edo espezialitatearen jarduna, lehiakoa edo lehiakoa ez dena, jendaurrean erakustea, kirolari profesional edo amateurren eskutik, esparru, instalazio, bide publiko edo espazio publikoetan.

g) **Erakustaldiak:** erakustaldizat hartzen da desfileak eta horrelakoak jendaurrean egitea, bai eta kulturaren, kirolaren, tradizioaren eta herriaren arloko edo beste edozein arlotako agerraldiak jendaurrean erakustea ere, lokal itxietan edo aire zabalean.

h) **Ikuskizun piroteknikoak eta su artifizialak:** aire zabaleko ikuskizunak dira, eta, besteak beste, profesional aditu batzuek lehergailu piroteknikoak botatzea edo erretzea izaten da.

i) **Aratu gabeko ikuskizuna:** dituzten ezaugarriengatik edo nolakotasunagatik, emandako araudietan bildu ezin daitezkeen ikuskizun berezi edo salbuespeneko batzuk; edo, zenbait kasutan, katalogo honetan zehaztuta eta berariaz jasota ez egonik, jendaurrean lokal itxietan edo aire zabalean egiten direnak.

II.- JOLAS-JARDUERAK.

a) **Kultura- eta gizarte-jarduerak:** jarduera hauen bitartez, ezagutzak eta giza harremanak gehitzeko edo trukatzeko aukera eskaintzen zaio jendeari, hurrenez hurren,

arte-lan eta arte-agerraldiak erakutsiz, hitzaldi, biltzar eta liburutegiak eskainiz, eta ondasun higigarrien edo eduki sozial eta etnografiko aipagarriko ondasunen erakustaldiak eginez, bai eta antzeko ezaugarri eta helburuko beste zernahi jarduera agerraraziz ere.

b) Kirol-jarduerak: jendeari kultura fisikoaren ariketa edo edozein kiroletan jardutea eskaintzea, dela horretarako behar bezala egokitutako establezimenduetan, dela bide eta espazio publiko irekietan. Hau da, jendeari jolasaldi edo aisialdi bat eskaintzea, instalazio finko, aldi batekoak edo kirol izaerako, trebetasuneko edo erresistentzia fisikoko beste elementu edo zerbitzu batzuk erabiliz, hala dagokionean, prezio bat ordainduta horrelako elementuak erabiltzeagatik edo horrelakoak dauden establezimendura edo esparrura sartzeagatik.

c) Herri-jai edo jai tradizionalak: herriko edo ohiko izaera duten jai-ekitaldiak ospatzea, pertsonak espazio ireki edo bide publiko jakin batzuetan elkarretaratzuz, alde batera utzita politika, lan, erlijio edo irakaskuntza arloko oinarrizko eskubideak erabiltzea dakarten pertsona-elkarretaratzeak.

d) Usadiozko zezen-jaiak: herri-mailako zezenketak; besteak beste, behi-abelburu suharrak zezen plazetan edo bide eta plaza publikoetan askatzea edo ixtea, horrelako zezenketetan parte hartzen dutenak jolasteko eta haien zaletasuna sustatzeko, herriko usadio tradizionalen arabera.

e) Ostalaritza-jarduerak: erabiltzaileei, modu isolatuan edo beste jarduera desberdin batekin batera, aisialdirako edo dibertsiorako egoerak eskaintzea, edariak edo elikagaiak eskainita, baita, hala dagokionean, eskaintzea, horretarako behar adina egokitutako establezimenduetan.

f) Aisialdiko jarduerak: erabiltzaileei, modu isolatuan edo beste jarduera desberdin batekin batera, katalogoaren beste epigrafe batzuetan bildu ezin diren aisialdirako edo dibertsiorako egoerak eskaintzea. Eskuarki, esandako aisialdia dantzarako musika izaten da horretarako espezifikoki mugatutako establezimenduetan, musika grabazioen soinu erreproduzioaren bidez, edo, hala dagokionean, musikari eta abeslarien zuzeneko emanaldien bidez.

g) Helburu komertzialeko aisialdi-jarduerak: jarduera hauetan, erabiltzaileei instalazioak ezagutzea edo produktuak dastatzea eskaintzen zaie, haien salmenta sustatzeko xedez, eta establezimendura sartze hutsagatik ordaindu beharra izaten da.

h) Sexu izaerako aisialdi-jarduerak: Jarduera horiek, era berean, sexualak izan litezke, modu askean eta independentean zerbitzu emaileak eskainiak.

i) Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoak: hainbat jarduera; besteak beste, itxian edo erdiaske dauden animalia basati edo exotikoen erakustaldiak eskaintzea jendeari, bai eta uretako animalia bizienak ere, pertsonen segurtasunerako eta animalien ongizaterako behar bezala egokitutako instalazio, esparru edo espazioetan. Era berean, horrelako jolas-jardueratzat hartzen da honako hau: jendeari, landare-erreinuko –bai eta, zenbait kasutan, mineral-erreinuko– espezie biziak erakustea, behar bezala egokitutako instalazio, esparru edo espazio irekietan.

j) Joko jarduerak: joko-jarduera batzuk dira; besteak beste, diru-kopuruak edo balioespen ekonomikoa edukitzeko modukoak diren gauzak lehiatzea, arriskatzea edo jokatzea, esku-diruko sari bat –edo, zenbait kasutan, aletako sari bat– eskuratzeko; jokoaren emaitza ez da egongo jokalariaren trebetasunaren edo abileziaren mende, baizik eta soilik zoriaren edo zortearen mende.

k) Dibertsio-jokoak: jarduera soil-soilik ludiko batzuk dira; besteak beste, jolasaldi edo aisialdi bat eskuratzea edo gozatzea, makina, aparatu eta elementu informatiko eta eskuzkoak erabilia, prezio bat ordainduta makina eta aparatu horiek erabiltzeagatik, horrelakoak instalatuta dauden establezimendura sartzeagatik edo establezimenduan bertan eskainitako edari, janari edo produktu batzuk hartzeko aukeragatik. Horrelako jolasetan parte hartzeagatik inoiz ez da aukerarik izango esku-dirutan edo gauzetan ordaindutako sariak eskuratzeko, ez eta ekonomikoki balioesgarriak diren zerbitzuak lortzeko ere, salbu eta, azken kasu horretan, jolasaldi bat errepikatzeko aukera.

l) Jolas-atrakzioak: jarduera honen bitartez, jolasaldi edo aisialdi bat eskaintzen zaio bertaraten den jendeari, elementu mekaniko eta trebetasuneko elementu batzuen instalazio finko edo aldi batekoak funtzionaraziz edo erabiliz, prezio bat ordainduta horrelako elementuak erabiltzeagatik edo horrelakoak instalatuta dauden establezimendura edo esparrura sartzeagatik, hala nola uretako atrakzioak, zaldiko-maldikoak, gurpil handiak, errusiar mendiak, barrakak eta antzeko ezaugarriko beste zernahi. Abilezia bat eskatzen duten jardueren kasuan, sariak eman ahal izango dira, betiere haien balioa ez bada partaidetzaren prezioa baino handiagoa izan.

m) Uretako jolas-jarduerak: jolasaldi edo aisialdi bat eskaintzea, kirol arloko, trebetasuneko edo aisiako uretako elementu edo tresna batzuk erabiliz, prezio bat ordainduta horrelako elementuak erabiltzeagatik, hala nola uretako motoak, pedalontziak, tresna flotagarriak eta antzeko ezaugarriko beste zernahi.

III.- JENDAURREKO IKUSKIZUNETARAKO ETA JOLAS-JARDUERETARAKO ESTABLEZIMENDUAK.

a) Kultura- eta gizarte-jarduerako establezimenduak: establezimendu finko eta itxi batzuk, modu iraunkorren, sasoikoan edo noizean behin, jendeari, ezagutzak eta giza harremanak gehitzeko edo trukatzeko aukera emateko eta eskaintzeko erabiltzen direnak, hurrenez hurren, museoak, liburutegiak, ludotekak, hemerrotekak erakusketa eta hitzaldi aretoak, biltzar-aretoak, liburu-azokak, pabilioi iraunkorrak edo ez iraunkorrak, erabilera antzeko aretoak, kultur etxeak, etab. Establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, eta inoiz ez du lokalaren azaleraren %10 baino gehiago izango eta osagarria izango da; halaber, jarduera nagusiaren ordutegi bera izango du.

b) Exhibizio-establezimenduak: nagusiki zinema, antzerki-, musika edo antzeko ikuskizunak emateko erabiltzen direnak, dela modu iraunkorren, sasoikoan edo noizean behin, eta establezimendu finkoetan edo aldi batekoetan, lokal independenteetan edo beste batzuetan dihardutenekin taldekatutako lokaletan kokatzen direnak. Establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, eta inoiz ez du lokalaren azaleraren %10 baino gehiago izango eta osagarria

izango da. Establezimendu horien artean daude, adibidez: zinemak; multizinemak; udako edo aire zabaleko zinemak; antzerki tradizionalak, dela aire zabalekoak dela aldi batekoak; entzunareto tradizionalak, dela aire zabalekoak dela aldi batekoak; kontzertu aretoak, etab.

c) Kirol-establezimenduak: establezimendu publiko batzuk, independenteak edo beste jarduera ekonomiko batean diharduten beste batzuekin taldekatuak, modu iraunkorren, sasoikoan edo noizean behin, soil-soilik edo nagusiki kirol-ikuskizunak egiteko erabiltzen direnak, instalazio finko edo aldi batekoetan, edota kultura fisikoaren egikaritzea edo kirol-modalitate baten edo batzuen praktika eskaintzeko, modu iraunkorren, sasoikoan edo noizean behin, instalazio finko edo aldi batekoetan. Establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, eta inoiz ez du lokalaren azaleraren % 10 baino gehiago izango eta osagarria izango da; halaber, jarduera nagusiaren ordutegi bera izango du.

d) Igerileku publikoak: establezimendu publiko batzuk, finkoak, independenteak edo beste jarduera ekonomiko batean dihardutenekin taldekatuak, jendeari, modu iraunkorren edo sasoikoan, bainua, igeriketa eta uretako beste ariketa eta kirol batzuk eskaintzeko erabiltzen direnak, ontzi artifizial bat edo bat baino gehiago egonda edo erabilia, bai eta jarduera horiek egiteko beharrezko diren ekipamendu batzuk erabilia ere.

e) Zezen-plazak: independenteak, modu iraunkorren edo aldian behin, zezen-ikuskizunak eta -jaiak ospatzea xede eskusibo edo nagusi dituzten establezimendu publikoak edo aldi batekoak. Establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, inoiz ez du lokalaren azaleraren % 10 baino gehiago izango eta osagarria izango da; halaber, jarduera nagusiaren ordutegi bera izango du.

f) Zirkuak: establezimendu publiko itxi batzuk, modu iraunkorren, sasoikoan edo noizean behin, zirku-ikuskizunak egiteko erabiltzen direnak, establezimendu finko edo aldi batekoetan eta instalazio independente edo beste jarduera ekonomiko batean dihardutenekin taldekatutakoetan. Establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, inoiz ez du lokalaren azaleraren % 10 baino gehiago izango eta osagarria izango da; halaber, jarduera nagusiaren ordutegi bera izango du.

g) Ostalaritzako establezimenduak: establezimendu finko edo aldi bateko batzuk, modu iraunkorren, sasoikoan edo noizean behin, jendeari, ostalaritza jarduerak eskaintzeko eta emateko erabiltzen direnak. Establezimenduok musikaz girotuta egon ahalko dute, beti ere lokalaren intsonorizazio-maila errespetatuz. Establezimendu horien artean daude, adibidez: jatetxeak, kafetegiak, tabernak, karaokeak, etab.

h) Ostalaritzako beste establezimendu batzuk:

-Autozerbitzuak: establezimendu publiko finko, independente edo beste jarduera ekonomiko batean dihardutenekin taldekatu batzuk, modu iraunkorren, lokalean edo, udalaren baimena lortu ondoren, terrazetan edo barrualdetik irisgarriak diren eremu batzuetan kokatutako mahaietan, jendeari, haiek aukeratutako edari edo platerak eskaintzeko erabiltzen direnak, han hartu ditzaten.

-Taberna-kioskoak: establezimendu publiko finko edo mugikor eta independente batzuk, modu iraunkorrean, sasoikoan edo noizean behin, jendeari, edari eta janariak zerbitzatzeko erabiltzen direnak, bide publikoan edo jabari publikoko eremuetan hartuak izateko.

- Zuzeneko ikuskizunak ematen dituzten ostalaritza establezimenduak: establezimendu publiko finkoak dira, kafe-antzoki, ikuskizun jatetxe edo antzeko izendapena dutenak, jendeari ostalaritza jarduera nagusiaren osagarriak diren zuzeneko kultur edo gizarte jarduerak, edo antzerki nahiz musika emanaldiak eskaintzen dizkietenak. Horretarako, kamerinoak eta agertokia izan beharko dute.

i) Dantzarako eta dibertsiorako establezimenduak: establezimendu publiko finko itxi batzuk, modu iraunkorrean edo sasoikoan, bertaratzen den jendeari, aisialdi, dibertsio edo jolasaldiko egoerak eskaintzeko erabiltzen direnak, horretarako berariaz mugatutako establezimenduko espazio batzuetan dantzatzeko musika aukera emanda, musika grabazioen soinu-erreprodukzioa eginez edo, zenbait kasutan, musikari eta kantarien zuzeneko emanaldiak eginez. Zuzeneko emanaldiak egiteko, agertokia eta kamerinoa izan beharko dute. Establezimenduok ostalaritza- eta jatetxe zerbitzua eduki ahal izango dute. Establezimendu horien artean daude, adibidez: dantza aretoak, diskotekak, gazte-diskotekak, disko-tabernak, karaokeak, taberna bereziak, pubak edo antzekoak.

j) Herri-azoketako eta -dantzaldietako esparruak: udalerrietako eremu edo espazio batzuk, eta haien gainean instalatzen dira, behar diren baldintza higieniko-sanitario, segurtasun-baldintza eta suteen aurkako babes-baldintzekin, zaindariaren jai eta feriak edo jai tradizionalak eta gizarte-intereseko ospakizun eta ekitaldi batzuk hartzeko erabiltzen diren eraikuntza behin-behingo batzuk, bai eta, zenbait kasutan, azoketako atrakzio eta barraken instalazioa eta funtzionamendua hartzeko ere.

k) Azoka-pabilioiak: eraikin, lokal edo instalazio batzuk, estaliak edo estali gabeak, non produktu, landare, animalia edo zerbitzuen erakusketak egiten diren, hedapenerako. Establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, inoiz ez du lokalaren azaleraren %10 baino gehiago izango eta osagarria izango da; halaber, jarduera nagusiaren ordutegi bera izango du.

l) Sexu-zerbitzuak ematen dituzten establezimenduak: jendeari irekitako lokal edo establezimendu batzuk; haien barrunbeetan, sexu izaerako aisialdi-jarduerak eskaintzen dira modu askean eta independentean, zerbitzu eskaintzailearen aldetik. Establezimenduok ostalaritza- eta jatetxe-zerbitzua eduki ahal izango dute.

m) Jarduera zoologiko, botaniko eta geologikoko establezimenduak: establezimendu finko, itxi edo aire zabaleko batzuk, modu iraunkorrean, jendeari, jarduera horiek eskaintzen dizkietenak. Establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, eta inoiz ez du lokalaren azaleraren %10 baino gehiago izango eta osagarria izango da; halaber, jarduera nagusiaren ordutegi bera izango du.

n) Joko-lokalak: establezimendu publiko finkoak, lokal independenteetan edo beste jarduera ekonomiko batean dihardutenekin taldekatuetan zori, apustu eta ausazko jokoetan aritzeko erabiltzen direnak, indarrean dagoen sektore araudiaren arabera.

Zerbitzu edo jarduera osagarriak egitea araudi sektorialak ezartzen duenaren arabera egongo da.

o) Dibertsio-jokoetarako establezimenduak: establezimendu publiko finko batzuk, lokal independente edo beste jarduera ekonomiko batean diharduten beste batzuekin taldekatuetan, eskuarki, dibertsio-joko eta -jarduera batzuetan aritzeko erabiltzen direnak. Establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, eta inoiz ez du lokalaren azaleraren % 10 baino gehiago izango eta osagarria izango da; halaber, jarduera nagusien ordutegi bera izango du.

p) Jolas-atrakzioetarako establezimenduak: establezimendu publiko finko edo aldi bateko batzuk, modu iraunkorren, sasoikoan edo noizean behin, hainbat motatako jolas-atrakzioak egiteko erabiltzen direnak, eta, zenbait kasutan, haiekin batera, zinema, antzerki-, musika- edo zirku ikuskizunak egiteko erabiltzen direnak, bai eta barrualdean ostalaritzako eta jatetxeko zerbitzu osagarriak emateko erabiltzen direnak ere.

q) Erabilera anitzeko establezimenduak: establezimendu finko eta itxi batzuk, modu iraunkorren, sasoikoan edo noizean behin, katalogo honetan jasotako establezimendu motek egiten dituzten jarduerak egiteko erabiltzen direnak. Jarduera nagusietako bat ostalaritzakoa ez denean, establezimendu horiek ostalaritzako zerbitzu osagarri bat eduki ahal izango dute, eta inoiz ez du lokalaren azaleraren % 10 baino gehiago izango eta osagarria izango da; halaber, jarduera nagusien ordutegi bera izango du.

r) Titulartasun pribatuko eta erabilera publikoko establezimenduak, irabazi asmorik gabeak: titulartasun pribatuko eta erabilera publikoko establezimenduetan, irabazi asmorik gabekoetan, bazkideek euren burua arautzen dute erakundearen jarduera arautzen duten estatutu-arauen bidez, eta ez da izango haien xede soziala edo jarduera propioa ondasunen edo produktuen salerosketa merkaturatzea. Establezimenduok ostalaritza- eta jatetxe-jarduera eduki ahal izango dute.

II. ERANSKINA.- PERTSONAK ZENBATZEKO SISTEMAK

A. Pertsonak zenbatzeko sistemen eskakizun teknikoak.

1.- Sistemok azaroaren 22ko ITC/3708/2006 Arauaren arabera homologatuta egon beharko dute, edo hura ordezteko arauaren bidez bestela.

2.- Sistemok laser-erako potentzia handiko izpien eraginetik babestuta egon beharko dute, establezimenduetan halakoak erabiltzea ohikoa den aldetik. Horrez gain, akatsik gabe funtzionatu beharko dute edozer argi-baldintzatan. Alde horretatik, sistemek behar den guztia izan beharko dute baldintza horietan behar bezala funtzionatzeko.

3.- Sistemek edozer soinu-presiotatik babestuta egon beharko dute.

4.- Sistemek igarotze-sentsore ez-intrusiboz funtzionatu beharko dute, eta bi norabideetan zirkulatzeko duten pertsonak zenbatzeko gauza izan beharko dute aldi berean; hau da, bi norabideko kontaketa-sistema, irteten eta sartzen ari direnena.

5.- Bat-bateko kontaktetan gutxi gorabehera % 2ko errore-marjina onartzen da 500 pertsonako.

6.- Sistemek ezingo diote inolako trabarik ipini pertsonen zirkulazio askeari, eta ezingo dira izan istripu elektriko edo mekanikoak eragiteko modukoak.

7.- Martxan ipini ostean, sistemek hauteman eta gertakari teknikoen erregistroan grabatu beharko dituzte honako hauei eragiten dioten alterazioak, nahita sortutakoak edo ustekabeak: sentsoreen irakurketari eragiten diotenak, kableekin lotutakoak, unitate zentralaren funtzionamenduari eta, finean, sistema osoaren funtzionamendu normalari eragiten diotenak.

8.- Sistemen konfigurazioa, kudeaketa eta mantentze-lanak egiteko, erabiltzaileek identifikatuta sartu beharko dute, eta abiarazteko garaian instalatzaileak edo fabrikatzaileak definitutako pasahitzekin. Establezimenduaren, ikuskizunaren edo jardueraren operatzaileak datuak irakurtzeko eta sistemaren funtzionamenduaren egoeraren segimendua egiteko funtzioetara bakarrik izango du sarbidea, eta beti erabiltzaile berezitu bezala identifikatuta eta bere pasahitzarekin.

9.- Sistemak laginak erregistratuko ditu hamar segundoko aldietan. Lagin bakoitzak honako hauek erregistratuko ditu:

- laginaren data eta ordua (HH:MM:SS);
- hutsetik abiarazi ostean izandako sarrera kopuru osoa;
- hutsetik abiarazi ostean izandako irteera kopuru osoa;
- alarma aktiboak laginaren unean.

10.- Datu horiek dagozkion datu-fitxategietan gordeko dira. Fitxategi horiek ikuskizunen eta jolas-jardueren alorreko eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko

administrazio publikoaren sailak zehaztu beharko ditu, ikuskaritzako softwareak irakurketa eta osteko tratamendua egin ahal izan dezan.

11.- Biltegiratutako datuak ikuskariak deskargatu ahal izango ditu, edukiera kontrolatzeko sistemaren eta ikuskaritza egingo duen PCaren arteko kable bidez, ikuskizunen eta jolas-jardueren alorreko eskumena duen Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren sailak ezarritako komunikazio-protokoloak baliatuta. Sistemek deskargatutako datu-fitxategiaren egiazkotasuna eta osotasuna ziurtatu beharko dute.

12.- Fitxategiak kontsultatzeko edo deskargatzeko prozesuetan, sistemek edukiera kontatzen jarraituko dute, nahasmendurik gabe.

13.- Erregistratutako datuak gutxienez xx hilabetez biltegiratu beharko dira.

14.- Sistemak behar bezala funtzionatzea galarazten duen akats elektrikoren bat izanez gero, kontaketa-sistemak azken edukiera-datu balioduna gorde beharko du memorian. Korrante elektrikoa berrezartzen den unean azken datu baliodunetik zenbatzen jarraituko da, eta argiak zer unetan joan eta etorri diren erregistratu beharko da.

15.- Sistemek gutxienez sarrera bakoitzeko gailu bistaratzailerik bat izango dute edukieraren aldi berean, argizko panel edo monitore itxurakoa, eta digituek 150 mm garai eta 90 mm zabal izan beharko dute gutxienez. Honako informazio hau bistaratuko da:

- bat-bateko edukiera;
- lokalaren gehieneko edukiera;
- gehiegizko edukiera adieraztea;
- sistema zerbitzuz kanpo dagoen adierazteko gailua.

B. Edukiera kontrolatzeko sistemak instalatzea eta lokalizatzea.

1.- Printzipio orokorrak.

- a) Instalazioa azaroaren 22ko ITC/3708/2006 Aginduak ezarritakoaren arabera egin behar da.
- b) Instalazioak efikazia- eta segurtasun-printzipioen arabera gidatuko dira, fabrikatzailearen argibideak jarraituz.
- c) Edukiera kontrolatzeko sistemak ezartzen diren sarrera- eta irteeretan, pertsonen fluxu indibiduala ziurtatu beharko da.

2.- Edukiera kontrolatzeko sentsoreak instalatzea.

- a) Sentsoreak ohiko sarrera eta irteera guztietan instalatuko dira.
- b) Itxita egon ohi diren gainerako sarrera-irteera guztietan (hala nola larrialdietarako irteerak, zerbitzu-ateak, salgaien sarrera, leiho handiak...) irekiera-detektagailuak instalatu beharko dira atean. Ateak irekitzeko detektagailuek irekiera guztiak erregistratuko dituzte, irekieren eta itxieren data eta orduekin.
- c) Igarotze-sentsoreek ezingo dute ebakuaziorako espazio fisikoa murriztu, ezta pertsonentzako bestelako elementu arriskutsurik erantsi ere, ez jarduera normaleko egoeretan, ez larrialdi-egoeretan.

- d) Kontrolatutako sarrera guztien kapazitate osoa egon beharko da kontrolatuta, baita oro har itxita egoten direnak baina une jakin batzuetan pertsonak zirkulatzeko erabil daitezkeenak ere.
- e) Igarotze-sentsoreak establezimenduaren barruan instalatu beharko dira, hain zuzen ere, zehaztapen horiek betez, establezimenduaren edo esparruan kanpoaldearen mugetatik gertuen diren tokietan, ahalik eta azalera handienaren gaineko kontrola bermatu ahal izateko.
- f) Instalaturako igarotze-sentsoreek dimentsio egokiak izango dituzte, euren ezaugarriak eta sarreraren garaiera eta zabalera kontuan izanda, hala, pertsonen kontaketa modu ahalik eta onenean egingo da eta fabrikatzaileak zehaztutako espezifikazioak betetzen direla bermatu ahal izango da.
- g) Instalatzaileak establezimenduaren elementu arkitektonikoak, apaingarriak eta gainerakoak kontuan izan beharko ditu (hala nola ekipo elektronikoak eta ikus-entzunezkoak), igarotze-sentsoreen funtzionamendu normalari traba egin ez diezaioten jarduera normal kontrolatuan.

3.- Kableen instalazioa eta interkonexioa.

- a) Sentsoreen eta kontrol-unitate zentralaren arteko interkonexioa kableen bidez egin beharko da.
- b) Kableak manipulazio-arriskua ahalik eta txikiena izango den tokian ipiniko dira.
- c) Instalazioan, behe-tentsioko erregelamendu elektroteknikoari jarraituko zaio (abuztuaren 2ko 842/2002 Errege Dekretua), edo haren ordezkoko arauari.
- d) Kableak hodi eta konduktu babesleetan ipiniko dira, kableak zuzenean ikusteko edo manipulatzeko moduan ez direla. Erabilitako hodiak eta konduktuak kontrol-sistema horretara bakarrik bideratu ahal izango dira, edota beste sistema batzuekin partekatuta, betiere horrek ez badie eragiten disfuntzio-arriskurik kableak elkarrekin partekatzen dituzten sistemei. Kasu guztietan, behe-tentsioko araudia bete beharko da.

4.- Kontrol- eta prozesamendu-unitate zentrala instalatzea.

Kontrol- eta prozesamendu-unitate zentrala eta, hala dagokionean, bigarren mailako kontrol-unitateak baimendu gabeko pertsonak zuzenean iristeko moduko tokitik kanpo instalatuko dira, sistemaren kudeaketa eta mantentze-lanak egiteko eta datuak eskuratzeko moduko tokian.

5.- Edukieraren bistaratzailerak instalatzea.

- a) Edukieraren bistaratzailerak operadoreari establezimenduaren edo esparruaren edukiera behar bezala jarraitzeko aukera eman beharko dio; horrenbestez, hark ikusteko moduko tokian instalatuko da. Era berean, erabiltzaileek ikusteko moduko tokian ipini beharko da.
- b) Bistaratzailerak baimendu gabeko pertsonak iritsiko ez diren tokian instalatuko da, eta ezein oztok estaltzen ez duela.
- c) Bistaratzaileraren fabrikatzaileak gomendatutako instalazio-eskakizun teknikoak erabat errespetatuko dira, behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko.

6.- Ateen irekiera-sentsoreak instalatzea.

Ateen irekiera-sentsoreek behar bezala funtzionatzen dutela bermatuko da, bai eta unitate zentralarekin komunikatuta daudela ere, dagozkien zigiluekin eta bestelako beharrezko mekanismoekin.

7.- Irisgarritasuna eta ingurura egokitzea.

- a) Instalaturako sistemek pertsonen manipulatzeko moduko tokitik kanpo geratuko behar dute, kontrolaturako jarduera normala kontuan izanda.
- b) Instalatzailea instalaturako sistemak inguruarekin mimitizatzen saiatuko da, eragindako inpaktu bisuala murrizteko eta disimulatzeko, betiere gailuaren eraginkortasuna murriztu gabe.

8.- Pertsonen segurtasuna.

- a) Instalaturako sistemek ezingo dute pertsonen edo establezimenduaren segurtasuna inola ere murriztu, ezingo dute arrisku-egoerarik sortu, ezta arrisku-faktore osagarri izan ere larrialdi-egoera batean.
- b) Instalazioak erabilera okerretatik babestuta egon beharko du.

9.- Fidagarritasun teknikoa.

- a) Instalatzaileak argitaraturako ezaugarri teknikoen eta operatiboen kontserbazioa bermatu beharko du, instalaturako elementuen fabrikatzaileek konprometitua.
- b) Instalazioa egiteko, kontuan izango da elementuen mantentze-lanak eta berregokitzapenak deserosotasuna handitu gabe egiteko aukera, modu bizkor eta eraginkorrean.

C. Edukiera kontrolatzeko sistemen funtzionamendu-arauak.

1.- Edukiera kontrolatzeko sistemek A15 puntuan adierazitako edukiera-datuak erregistratuko dituzte, eta etengabe deskargatzeko aukera emango dute, urteko egun eta ordu guztietan.

2.- Kontagailua egunero ipini behar da hutsean automatikoki, eta establezimenduan edo esparruan publikorik ez dagoela ziurtaturako orduetan egiteko programatuta egon beharko du. Kontagailua hutsean ipintzeak erregistro bat sortuko du horren berri emanez, eta edukieraren erregistro historikoetan bilduko da, eguna eta ordua adierazita, baita eguneroko hutsean ipintzearen deskribapena ere.

3.- Edukiera negatiboak lortuz gero, sistemak erregistratu egin behar du eta alarma bezala tratatu.

4.- Edukieraren erregistro historikoak, gutxienez, dagokion goiburuan, honako informazioa izan beharko du: fabrikatzailearen izena eta IFK, ekipoaren erreferentzia, ekipoaren serie-zenbakia, instalatzailearen erreferentzia eta lokalaren enpresa jabearen IFK.

5.- Hauek dira gutxienez erregistratu beharreko alarmak:

- a) sentsoreen disfuntzioa;

- b) sentsoreen eta unitate zentralaren arteko komunikazio edo konexio fisikoa galtzea, nahita eraginda edo ustekabekoa;
- c) elikadura elektrikoa etetea sistemaren edozer puntutan;
- d) kontrol-unitate zentrala edo sistemaren edozer parte itzaltzea eta martxan ipintzea, nahita eraginda edo ustekabekoa;
- e) edukieraren edo gertaeren datuak deskargatzeko eskaera, eskatzailearen izena adierazten duen erregistroarekin;
- f) sistemaren konfigurazioko, kudeaketako edo mantentze-lanetako softwarea sartzeko edo sartzeko ahalegina, erabiltzailearen izena adierazten duen erregistroarekin;
- g) udako eta neguko ordutegiaren aldaketa;
- h) edukiera negatiboa.

D. Edukiera kontrolatzeko sistemen berrikuspenak.

1.- Lehendabizikoz martxan ipini aurretik, sistemek dagokien adostasun-adierazpena izan beharko dute.

2.- Edukiera kontrolatzeko sistemek azaroaren 22ko ITC/3708/2006 Aginduak ezarritako aldian aldiko berrikuspenak egin beharko dituzte. Agindu horretan adierazitako frogaketez gain, ezinbestekoa izango da gutxienez honako froga hauek egitea:

- elikadura elektrikoaren akatsa;
- autodiagnostisko-sistemaren funtzionamendua;
- bistaratzzailearen funtzionamendua.

III. ERANSKINA.- OSASUN-DOTAZIOAK

a) Oinarrizko botikin eramangarria

Honako material hau izan beharko du:

Desinfektatzaileak eta antiseptikoak

Analgesikoak

Gaza esterilak

Kotoi hidrofiloa

Benda

Esparatrapua

Apositu itsasgarriak

Artaziak

Pintzak

Behin erabiltzeko eskularruak

b) Erizaindegiak edo anbulantzia dotazioak izan beharko duen gutxieneko materiala.

Poltsako botiken zerrenda eta EUD osasuneko botika kutzako materiala.

MEDICACIÓN BOLSA/POLTSAKO BOTIKAK

MIN	MAX	MIN	MAX
Adalat 2	2	Paracetamol	2 4
Adiro 100	2 2	Scandinibsa	1 1
Adiro 300	4 4	Seguril2	2
Adrenalinas	6 6	Sumial 10	2 2
Helduentzako Aspirina		2 2	Urbason 40i/v 2 2
Atrovent	1 1	Tramadol i/v	2 2
Atropina	4 4	Trangorex konprimatuak	2 4
Buscapina	1 1	Trinispray	1 1
Glucosmon	2 2	Valium 10 i/v	1 2
Lidocaina i/v	1 2	Valium 10 konprimatu	2 2
Lorazepan	2 4	Ventolin inhalatzailea	1 1
Manidon	1 1	Ventolin i/v	1 2
Naloxona i/v	2 2	Ventolin solucio1	1 1
Nolotil kapsulak	2 4		
Nolotil i/v	1 2		

MATERIAL BOTIQUÍN SANITARIO/ BOTIKIN SANITARIOAREN MATERIALA

MIN	MAX	MIN	MAX
S. fisiologikoa 250ml	1	S. fisiologikoa I/v 500ml	1 1
S. fisiologikoa 100ml	1	S. fisiologikoa i/v 100ml	1 1
S. fisiologikoa 10ml	1	Serum bal./3bide	1 2

Alkohola	1	1	Kateterra 14. zk.	1	2		
Povidona iodatua	1	1	Kateterra 16. zk.	1	2		
Mihi-depresorea	1	2	Kateterra 18. zk.	1	2		
Paperezko esparatrapua	1	1	Kateterra 20. zk.	1	2		
Termometroa	1	1	Kateterra 22. zk.	1	2		
Arropa-guraizeak	1	1	Kateterra 24. zk.	1	2		
Pintzak	1	1	Tortor 1	1			
Metalezko guraizeak	1	1					
Begi-linterna	1	1	Esku-aspiragailua	1	1		
Azetona	1	1	Aspirazio-zunda 6. zk.	1	1		
			Aspirazio-zunda 8. zk.	1	1		
Pultsioximetroa	1	1	Aspirazio-zunda 10. zk.	1	1		
Fonendo eta esfignoa	1	1	Aspirazio-zunda 12. zk.	1	1		
Gizenentzako mahuka	1	1	Aspirazio-zunda 14. zk.	1	1		1
Glukosa-aparatua	1	1	Aspirazio-zunda 16. zk.	1	1		
Lantzetak	5	5	Aspirazio-zunda 18. zk.	1	1		
Edukiontzia pintx.p	1	1					
			Ambú helduak+erreserb.	1	1		
Guedel 2. zk.	1	2	Ambú maskara	1	1		
Guedel 3. zk.	1	2	O2 luzagailua	1	1		
Guedel 4. zk.	1	2	Xiringa 10 ml	1	1		
Guedel 5. zk.	1	2					
Eraztun-ebakigailua	1	1	Maskara 7cc	1	1		
Aho-irekigailua	1	1	Nebulizazio-maskara	1	1		
Bizarra moztekoa	1	1	Trakeo maskara held.	1	1		
Kautxu-kuña	1	1					
			Krepe benda 10x10	1	1		
Konpresak 50x50	5	10	Krepe benda 10x4	1	1		
Gasak 20x20	5	10	Gasazko benda	2	2		
Botaka egiteko poltsak		1	2	Tirita kutxa	1	1	
			Paperezko puntuak (kutxa)	1	1		
Sudur-betaurrekoak	2	2	Oihalezko esparatrapua	1	1		
Maskara 7cc	1	1					
Maskara % 100	1	1	Ur oxigenatua	1	1		
			Hotz-poltsa	1	1		
Xiringak 2ml	1	2	Tapaki termikoak	1	2		
Xiringak 5ml	1	2					
Xiringak 10ml	1	2					
Xiringak 20ml	1	2					
Orratz laranja	2	4					
Orratz horiak	2	4					
Orratz berdeak	2	4					

MATERIAL BOTIQUÍN PEDIÁTRICO/ BOTIKIN PEDIATRIKOAREN MATERIALA

	MIN	MAX		MIN	MAX			
Ambú pediatrikoa	1	1	Maskara % 100	1	1			
Fonendo eta esfignoa	1	1	Maskara 7c.c.	1	1			
Sudur betaurreko pediatrikoa	1	2	Ambú maskara	1	1			
Guedel 00. zk.	1	1	Nebulizazio maskara	1	1			
Guedel 0. zk.	1	1	Dea partxe pediatrikoak	1	1			
Guedel 1. zk.	1	1	Erditze set osoa	1	1			
			Termometroa	1	1			

IV. ERANSKINA.- IKUSKAPENEO HELBURUAK ETA LEHENTASUNAK

a) Helburuak.

- Establezimendu, ikuskizun publiko eta jolaserako jardueren katalogoan aurreikusitako establezimenduetan ikuskapenak egiteko irizpide orokorrak ezartzea.
- Jarduera-lizentziak Legean eta bere erregelamendu-garapenetan ezarritakora egokitzea.
- Establezimendu horiekin lotuta dauden arrisku-faktoreak murriztea eta kontrolatzea, horien segurtasun-baldintza egokiak sustatuta.
- Lan-prozedura normalizatu bat ezartzea ikuskapen-jarduerak arriskuaren arabera planifikatzeko.

b) Ikuskapenen edukia.

- 1.- Ikuskapenetan hau egingo da: egiaztatu lokalak eta instalazioak Ikuskizun Publiko eta Jolaserako Jardueren Legeko aurreikuspenetara eta ikuskizun publikoen eta jolaserako jardueren alorrean indarrean dagoen araudira egokitzen direla.
- 2.- Hori egingo da, banaka edo batera, lokalari buruzko dokumentazioa egokia den egiaztatuta, lokala bertatik bertara ikuskatuta eta bere egoera egiaztatze aldera beharko liratekeen proba teknikoak eginda.
- 3.- Ikuskapen horiek, dagokien ikuskapen-aktan jasoko direnak, pertsonal espezializatuak edo Administrazioak eginkizun horren mandatu eman dion pertsonalak; kasu horretan, teknikari eskudunak emango die informazioa.
- 4.- Lokal eta instalazioetan egiaztatu beharreko baldintza orokorrak hauek izango dira:

a) Establezimenduaren dokumentazio orokorra:

- Jardueraren lizentzia/aurretiazko jakinarazpena.
- Jardueraren benetako titulartasunaren egiaztageria, beharrezkoa denean.
- Establezimenduaren titulartasun, edukiera eta ordutegiaren dokumentua edo edukiera-egiaztageria.
- Erantzukizun zibilaren derrigorrezko kontratua, eta indarrean dagoen ordainagiriaren egiaztageria.
- Segurtasun-enpresarekin duen zaintza-kontratua, halakorik bada.
- Kexa eta erreklamazioen orriak.
- Sarrera ukatzeko baldintza espezifikoak izatea eta horien berri ematea.

b) Instalazioen dokumentazio teknikoa:

- Instalazio elektrikoaren azken berrikuspenaren ziurtagiria.

- Klimatizazio-instalazioen azken berrikuspenaren eta mantentzearen ziurtagiria.
- Suteetatik babesteko instalazioen azken berrikuspenaren eta mantentzearen ziurtagiria.
- Eraikuntzako elementuen eta materialen suarekiko portaerari buruzko justifikazio-dokumentuak.
- Obra eta instalazioen proiektua, edo halakorik bada, establezimenduaren eskalazko plano(a)(k) eta bertan hauek adieraziko dira: publikoa irits daitekeen barrutiak, lokal teknikoak, komunak, sarbide mugatuko guneak, ohiko sarbideak eta kanpora ateratzeko ebakuazio-bideak, irisgarritasun-baldintzak eta barrera arkitektonikoen deuseztapena.
- Autobabesaren plana, eska daitekeenean.

c) Instalazioa ondorengo arau tekniko arautzaileetara egokitzen dela egiaztatzea:

- Behe-tentsioko instalazio elektrikoak.
- Suteen aurkako babeserako instalazioak.
- Eserlekuen baldintzak eta ebakuazio-neurriak eta -baldintzak.
- Irisgarritasun-baldintzak eta oztopo arkitektonikoak ezabatzea.
- Baldintza higieniko/sanitarioak.
- Establezimenduaren gainerako industria-segurtasuneko instalazioak.

5.- Jarraibide hauek indarrean dauden bitartean, establezimenduan bertan edo jarduera egiten den tokian egiten diren ikuskapenak gai hauek lehentasunez egiaztatuko dira:

- Garatutako jardueren identifikazioa eta horien estaldura egiaztatzea gaitzen duen tituluan eta katalogoarekiko duen doikuntza bere izendapenean. Aipatzea jarduera osagarriak legearen aplikazio-eremuarekiko era bateragarrian edo hortik kanpo egiten diren. Azken kasu horretan egiaztatu bete egiten dela herritarren segurtasuna babesteko legedian ezarritakoa eta, halaber, betetzen direla eska daitezkeen segurtasun eta osasuneko eskakizunak
- Egiaztatu lokaleko eta bere instalazioen edukiera desberdinen titulu gaitzailean adierazita dagoen, egiten diren jardueren arabera.
- Gaitzen duen titulua aldatzea edo berri bat egitea ekar dezaketen establezimenduko egituraren arazoaren edo eraberritzearen itxurazko zantzuak detektatzea.
- Ebakuazio-bideak eta larrialdi-kasuan martxan jartzen diren mekanismoen (esaterako, desblokeoak, irekitzeak eta dagozkion seinaleak) funtzionamendua egokia dela egiaztatzea.
- Egiaztatzea edukiera kontrolatzeko sistemak eta ikuskizunean edo jardueraren zehar segurtasuneko eta sarrera ukatzeko kontrolerako pertsonala duela.
- Egiaztatzea adingabeei buruzko araudia betetzen dela, zehazki, adingabeek bertan egotea debekatuta duten establezimendu publikoetan adingabeak sartzeari eta bertan egoteari buruzkoa.
- Egiaztatzea ordutegiak betetzen direla bai jardueraren hasieran bai amaieran, establezimendua ixteko ezarritako baldintzak, derrigorrezko itxiera-aldia, edariak kontsumitzen diren establezimenduetatik kanpo eta zarata gogaikarriak sor ditzaketen ekipamendu edo jardueren funtzionamendurako ezarritako mugak. Bestalde, egiaztatutako da establezimenduko edo jardueraren zarata-mailak lokaleko intsonorizazio-mailarekin bat egiten duela.

- Egiaztatzea badagoela arauz eska daitekeen informazioa eta publizitatea, bai establezimenduari buruzkoa bai egiten ari diren jarduerari buruzkoa.
- Egiaztatzea ez direla 6 hilabete baino gehiago pasatu establezimendua itxi zenetik.

c) Eska daitezkeen segurtasun-estandarrak

Hala ikuskapenetan nola detektatutako irregulartasunak zuzentzeko jarduketetan segurtasunaren alorreko araudia zein eska daitezkeen segurtasun-estandarrak aplikatzean irizpideak homogeneousatze aldera, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluak hala kontsultak bideratu ahal izango ditu edo beste teknikari edo erakunde batzuei txostenak eskatu ahal izango dizkie nola Kontseilutik aplikatu beharreko irizpideak proposatuko dituzten batzorde teknikoak era daitezela eska dezake.

d) Jarduketa-lehentasunak

1.- Administrazio bakoitzak ikuskapenen egutegia programatuko du hemen ezarritako helburu eta lehentasunen arabera. Programazio horiek ekitaldi bakoitzeko urtarrilean Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluari bidaliko zaizkio.

2.- Administrazio bakoitzak ezartzen duen programazioa alde batera utzi gabe, lokalak edo instalazioak ikuskatzeko lehentasuna lokalarekin erlazionatutako parametro hauen arabera ezarriko da:

- a) Titulartasuna: lehentasunezko jarduketa titulartasun publikoko lokal edo instalazioetan egingo da.
- b) Edukiera: lehentasunez, edukiera handieneko lokal edo instalazioei eta araubide bereziko establezimenduei helduko zaie.
- c) Jarduera: urtean zehar maiztasun handiagoarekin erabiltzen diren lokal edo instalazioei lehentasuna emango zaie.
- d) Antzinasuna: lehentasunez, antzinasun handieneko lokalak edo instalazioak ikuskatuko dira.

3.- Fase bakoitzari dagokion ikuskapen-programazioaren baitan, hauetatik hasiko da: titulartasuna publikoa dutenak, edukiera handiena, jarduera handiena eta antzinasun handiena, orden horren arabera.

4.- Segurtasun Sailak urtero edukiera 700etik gorakoa duten establezimendu guztiak ikuskatuko ditu, baita araubide bereziko establezimenduen lagin garrantzitsu bat ere. Ikuskapen horretarako Segurtasun Saila udalekin koordinatuko da sinergiak areagotzeko eta bikoiztasunak edo establezimenduetako titularrei karga administratiboak saihesteko; hala, behar izanez gero, ikuskapenak batera egin ahal izango dituzte edo ikuskapenen programazioak batera planifikatu ahal izango dituzte.

5.- Bikoiztasunak saiheste aldera, Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak aurrez txosten bat eginda Udalak baimentzen dituen ikuskizun publikoak eta jolaserako jarduerak ikuskatzen direnean, ikuskapenak udal-administrazioak egingo du, salbu Udalak Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzaren esku-hartzea edo babeska eskatzen duenean edo bi Administrazioek akordio bat badute ikuskaritza-jarduerari buruz edo ikuskapenak batera egitea programatu badute.

6.- 700 pertsonatik gorako edukiera duten establezimendu, ikuskizun eta jolaserako jardueretan eta araubide bereziko establezimenduetan egindako ikuskapenen aktak administrazio eskudunei jakinaraziko zaizkie.

7.- Joko eta Ikuskizunen Zuzendaritzak eta udalek sei hilean behin Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueren Euskal Kontseiluari bidaliko diote ikuskapen-jarduketan txosten laburtua.